



*Biktimak
Euskal Hezkuntzan
Testigantza baliotsua*

Duela denbora gutxira arte terrorismoaren biktimen kontakizuna falta izan zaigu geure ikasgeletan. Euskal hezkuntza sistemarentzat arrotza gertatzen zen hainbat hamarkadetan jasan behar izan dugun terrorismoaren izurritea. Terrorismoaren biktimen testigantza falta izan zaigu eta horrekin batera gure errealitate gordinaren ezagutza ezkutatu izan zaigu.

Liburu hau hutsune hori betetzera dator eta, bide batez, hezkuntzarako lanabes zehatz bihurtzera. Askoren lana da honako hau. Obra korala da. Adituak, irakasleak, ikasleak eta biktimak dira lan honen benetako egileak.

Bere iragana ahantzi bide duen herria, bere etorkizunean iraganeko akatsak berregitera kondenatua dagoela esana zuen George Orwell idazleak eta liburu honen xedea da iraganekoak ahantzi ez, baizik eta gogora ekartzea da. Memoria duen gizarteak soilik asma baitezake bere etorkizuneko bidea.

Liburu hau eta bertan azaltzen diren jarduerak Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko elkarriketaren emaitzak dira, baina gure geletako irakasleei esker soilik burutu ahal izan da. Beraiek izan dira euskal curriculumera biktimen begirada ezinbestekoari sarbidea eman dietenak

Duela denbora gutxira arte, terrorismoaren biktimek ezin izan dute beraien biktima izaeraren berri eman, ezin izan dute azaldu horrek izan dituen ondorioak, eta gazteak isiltasun latz horren barruan hazi eta hezi dira, inguruan zegoen sufrimenduaren kontakizunetik aparte, inolako azalpenik jaso gabe.

Liburu hau iraganeko isiltasun larriari erantzuna ematera dator.

Isabel Celaá



Biktimak
Euskal Hezkuntzan
Testigantza baliotsua

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a 2012ko abendua
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Testu egilea: Ricardo Arana
Itzultzailea: Joseba Berriotxo
Koordinatzailea: Mónica García
Internet: www.ikastea.hezkuntza.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz
Diseinua: Dosomás
Ilustratzailea: Apodaka Estudio
Inprimaketa: Gestingraf
Lege gordailua: BI-2129-2012

ESKER ONEZ

Ohar labur honen bitartez, nire esker ona adierazi nahi diet edizio hau posible egin duten guztiei. Lehenik eta behin egileak eskertu nahi ditut, baina bide batez konturatzen naiz askoren ekintza izan dela emaitza hau. Idatzi dutenen alboan eta inguruan hainbat aditu eta irakasleren lan ederra dago. Ezin ditut aipatu gabe utzi Galo Bilbao eta Xabier Etxeberriaren izenak, beraien jakinduria eta zuhurtziaz lagundu gaituztelako. Mila esker, halaber, hezkuntza-komunitateari ekintza honetan modu aktiboan parte hartzeagatik. Irakasleok eta Berritzeguneetako aholkulariok ere jaso ezazue ongi merezitako eskerronik egiazkoena.

Baina terrorismoaren biktimak, biktima hezitzaileak, dira baliabide pedagogiko baliotsuena, Euskadiko Eskola Kontseiluaren hitzetan. Beraien eraman dute geletara beren lekukotasun argiaren eta beren esperientzia mingarriaren ekarpen hunkigarria. Erakutsi duten duintasuna eta zuhurtzia portaera etikoaren eredu bilakatu dira. Biktimak dira hezkuntza eta memoriaren arteko lotura posible egin dutenak.

Ezin ditut ahantzita utzi proiektu honen hartzaile zuzenak. Ikasleak dira hezkuntza-esperientzia honen muina eta zoriondu eta eskerrak eman nahi dizkiet beren jarrera eta enpatiagatik. Ikasketa prozesuaren erdigunea eta etorkizun hobe baten itxaropena dira.

Ez da lan erraza izan, ezta mesfidantzarik gabekoa, azken batean funtsik gabekoak izan diren arren, baina onik burutu dugu gure ardura. Hargatik berretsi nahi diet nire esker ona egitasmo honetan lagundu diguten guztiei.

Mila esker.

Isabel Celaá

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

HITZAURREA

Baloreetan heztea pertsona oso-osorik heztea da. Eskolan beti egon den zerbait da, baloreetan heztea hezkuntzaren funtsa delako. Berrikuntza baloreetako hezkuntza hori curriculumera sartzean datza.

Asko hitz egiten da baloreen krisiaz, erreferentzia faltaz...eta, jarrera batzuetatik, giza-legezko baloreetan hezteko aukera ukatzen da. Moral pribatuaren eremuan dagoen zerbait dela eta baloreak transmititzeko saio oro diktatoriala eta doktrinatzeari dela pentsatzen da. Horrek nahasketa eragiten du eta, kasu askotan, baloreak gizarte-trebetasun soilak izatera mugatzen dira.

Eguneroko lanean eta ikasle guztiekin eta bakoitzarekin dituzten harremanetan transmititzen dituzte baloreak irakasleek. Izpiritu kritikoa sustatzen dutenean, hausnarketa egiten laguntzen dietenean, guztiak berdintzatzen dituztenean, tolerantzia eta onarpena adierazten dituztenean, ikasteko estrategiak lortzen laguntzen dutenean, egoera zailetan orientabide eta aholkuak ematen dituztenean...baloreak transmititzen dituzte. Irakasleen jardueran, edo ez-egite, bakoitzak ez ezik, eskolak, instituzio gisa, hezkuntza-erkidegoak eta, oro har, gizarteak ere transmititzen dituzte baloreak.

Baloreetan heztea irakaskuntza-lanbidearen erronketako bat da eta horrela aitortzen du Europako Batzordeak, irakasleen eskuduntzen esparrua zehaztean lan egiteko funtsezko hiru arlo finkatzen dituztenean irakaskuntza-lan hori aurrera eramateko orduan: ezagutza lantzea eta kudeatzea, pertsonekin lan egitea eta gizartearekin eta gizartean lan egitea.

2009ko apirilean, euskal hezkuntza-erkidegoko ordezkari organo gorena den alde-tik, elkarbizitza demokratikorako eta indarkeriari zilegitasuna kentzeko planari (2009-2011) buruzko txosten bat egiteko eskaera egin zitzaion Euskadiko Eskola Kontseiluari. Terrorismoaren biktimek beren lekukotasuna geletan ematea zen plan horrek kontuan hartzen zuen eta liburu honek azaldu eta adierazten dituen jardueretako bat. "Biktimen lekukotasuna baliabide pedagogiko baliotsua dela eta elkarbizitzarako hezteko prozesuan laguntzen duela, betiere haren egokitasuna irizpide pedagogikoen arabera eta aniztasuna kontuan hartuta finkatzen bada", argi geratu zen Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek aho batez eman zuen txostenean.

Eta horrela izan da. Kontuz ibili da biktimak selekzionatu eta prestakuntza emateko orduan eta biktima horiek egiazko hezkuntza-eragile, biktima hezitzaile bihurtu dira. Arretaz landu da irakasleen prestakuntza, programa hau nolakoa den sakon ezagutu dezaten. Beterie babestu dira borondatezkoa izatearen eta konfidentzialtasunaren baldintzak, hedabideetan gehiegi agertzeak ezarritako helburuak desitxuratu ez ditzan. Hori guztia zehatz-mehatz agertzen da argitalpen honetan. Liburu honetako zenbait pasarte irakurtzeak bati eragiten dion emozioa lagungarri da, biktimen lekukotasun zuzenak saio horietan parte hartu duten ikasleen artean izan duen eragina errazago ulertzeko. Eragin hori ikasle horien eta parte hartu duten irakasleen iritzi eta balorazioetan oso ondo jasota agertzen da.

Justizia, elkartasuna, enpatia eta errukia bezalako baloreak sustatzeko orduan gizarte-eragile desberdinen eta instituzioen laguntzak duen garrantzia azpimarratzen zuen ere Kontseiluak, balore horiek hezkuntzaren esparruan sartu eta garatzeko ez ezik, euskal herritarrek beraiek, oro har, beraien ondare etiko eta moralean ere sar zitzaten. 2011ko abenduan Bilboko Carlton hotelean izenpetu zen elkarbizitzarako hezkuntzaren aldeko konpromisoak akordioetarako bideak eta ildo horretako itunak irekitzeko aukera ematen du.

8 Bukatzeko, nire eskerrona adierazi nahi dizuet gure gazteek indarkeria bidegabearen eta biktimen aurrean begiak, bihotza eta kontzientzia ez ixteko lanean ari zireten guztioi, haxe besterik ez zait falta. Esperientzia hori ahalbidetu duzuen pertsona eta gizarte- eta hezkuntza-instituzio guztioi, biktima hezitzaileei eta ikastetxeei batez ere, esperientzia horrek lehenaldi eta geroaldi bat ezarriko baititu baloreetako hezkuntza gure herrialdean aurrera eramateko prozesuan.

M^a Luisa García Gurrutxaga

Euskadiko Eskola Kontseiluaren lehendakaria

AURKIBIDEA

Sarrera	11
Atea zeharkatuz	15
Eusko Legebiltzarraren eskakizuna	19
Bizikidetza demokratikorako plana	25
Hezkuntza, ez hotza ezta abstraktua ere	29
Hezkuntza eta memoria	35
Ikuspegi inklusiboa	39
Biktimen begirada curriculumean sartuz	45
Biktimak hezkuntzan egin beharreko lana	53

Indarkeriak giza berdintasunaren aurka egiten du	59
Indarkeria ez da ez urrunekoa ez arrotza	69
Euskal hezkuntzaren potentzialtasuna	75
Hezkuntza lanerako laguntza	81
Inpartzialtasuna ez da neutraltasuna	85
Errezeloak gaindituz	93
Ezustea eta errukia	103
Etorkizuna zabalduz	111
Bibliografia	115



Lerro hauek idazten hasi garenean urtebete igaro da terrorismoaren biktimen kontakizuna gure herrialdeko ikastetxe bateko ikasgelara lehen aldiz sartu zenetik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programaren barruan.

Gainera, idazki hau, Otxandio, Durango, Eibar, Bilbo bezalako herriak bonbardatu zituztenetik hirurogeita hamabost urte bete direnean idatzi dugu. Eta, jakina, mundu osoko kulturaren imajinarioan, borroka baten barruan, biztanleria zibilaren aurkako krudeltasunaren salaketaren ikur gisa geratu den herria, Gernika, bonbardatu zutenetik.

Bonbardaketa negargarri haren ondoren bizirik geratu zirenak isilpean bizi behar izan zuten denbora luzez, jasandakoa inoren aurrean azaltzeko eta bonbardaketa haren ardura-dunak zeintzuk izan ziren esateko aukerarik gabe.

Ikasgeletan ere isiltasuna nagusitu da urte luzez, indarkeria bidegabea jasandako pertsonen kontakizuna entzuteko aukerarik ematen ez zuten hormen barruan. Duela denbora gutxira arte, terrorismoaren biktimek, ezin izan dute beraien biktima izaearen berri eman, ezin izan dute azaldu horrek izan dituen ondorioak, eta gazteak isiltasun latz horren barruan hazi eta hezi dira, inguruan zegoen sufrimenduaren kontakizunetik aparte, inolako azalpenik jaso gabe.

Baina hori guztia amaitu da, eta badirudi denbora gehiegi gurekin egon den terrorismoa ere amaitu dela. Xesús Rodríguez Jares irakasleak, Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren bultzatzaile nagusietako batek, itxaropenez beteriko garaiak ari garela



bizitzen adierazi du, hiritarrek, gero eta gehiago, memoria historikoa pizteko beharra eskatzen dutela, mendekurik gabe, baina zorrotzasunez, eta biktimei beraien izaera aitortuz.

Eta begirada horretan, indarkeria bidegabera jasan duten biktima guztiek oso lan garrantzitsua bete behar dute hezkuntzaren alorrean. Antonio Duplá irakasle eta historialariak esaten duenez, “biktimen aurrean jartzea indar handiko ariketa da”. Biktimaren testigantzari esker, justifika ezinezko erasoak ez errepikatzea lor dezakegu. Eta horrek, inolako zalantzarik gabe, pertsona libreagoak eta hobeak bilakatuko gaitu.

Duela denbora gutxira arte, gazteen hezkuntzan, bidegabeko biktima krudel izan diren pertsonen kontakizuna falta izan zaigu. Terrorismoaren biktimen testigantza falta izan zaigu batez ere, terrorismoaren biktimak asko izan diren arren, eta beraien egoera oso larria izan bada ere.

Duela ia hamar urte, Javier Elzo irakasleak terrorismoak dena kutsatzen duela azaldu zuen: bihotza eta arrazoia. Irakasle berak bi tentazio posible zeudela esan zuen, “eta ez dakit zein den txarragoa”, aitortu zuen. Bat, ezer jakin nahi ez izatea da. Bestea, norberaren uste eta posizio pertsonalekin bat datorrena bakarrik ezagutu nahi izatea da. Argi dago biktimak eta borrokoak ez direla gauza bera. Gizarteak ezin die tratatu bera eman terrorismoaren biktimei eta terroristei. Lehenbizikoek alor guztietatik aintzatespena eta gizarte laguntza jasotzeko eskubidea dute. Bigarrenek, atxilotuak izan ondoren, beraien zorrak ordaindu behar dituzte, justiziak erabakitzen duen moduan, esan zuen Elzo irakasleak. Baina denak dira pertsonak, biktimak eta terroristak. Erantzun zuzen bakarra eskubide estatuan dago. Une oro, eta egoera guztietan, zorrotz errespetatu behar dira pertsonaren eskubideak, zapaldu ezin daitezkeen Giza Eskubideak.

Berunezko gau luzetik irteten ari gara. Une hauetan bizi ditugun garai hauek itxaropen sendoa ematen digute. Mende erdiz gure gainean izan dugun indarkeria terroristaren eszenatokia behin betiko amaituko den itxaropena.

Hezkuntza oso lagungarria izan daiteke indarkeria desager dadin, baina baita inoiz itzul ez dadin ere. Eta hori gertatzen ari da. Horretarako, hezkuntzak bere ateak ireki dizkie

biktimei, alderdikerien gainerik dauden testigantzek, kontakizun zuzenek, narrazio zintzoek, gure arrazoa eta gure bihotza hezi dezaten.

2012-01-31

Kaixo [redacted],

[redacted]. Batxilergoko ikasleak gara eta eskutitz hau idazten dizugu zure hitzaldiagatik eskerak emateko.

Askotan hitz egin dugu terrorismoari buruz eta honek dakarren sufrimendua, baina egoera horretan egon den pertsona baten esperientzia entzuteak terrorismoak beretan eragiten duen ondorioa ulertzen lagundu zigun.

Zoritxara gertatu ziteaizun egunetik gaur egun arte zure barnean izandako aldaketa izugarri hori guztioi transmititzeko gai izatea asko baloratzen dugu. Hamigania iruditu ziteaizun aurrera jarraitzeko izan zenuen indarra.

Aldi berean, presoekin hitz egiteko nahia izatea aurrerapauso handia dela uste dugu eta hori ere eskatu nahi gero.

Azkenik, espero dugu hurrengo urte batzuetan beste ikasle batzuegana etortzeko aukera izan dezatur, beretan hitzaldi interesgarria izan zelako.

Bestetik gabe, begirunez agurteen zaitugu

20/12/2014

Kaio

Lo primero que gostaria darte las gracias por haber venido en esta
compañia de la Pta. Normalmente cuando hacemos compañías en el
obsequio nos suelen poner videos, que si pueden llegar a tocar los sentimientos
pero esta compañía ha sido especial, aparte de que nos hayan puesto un video
el hecho que hayas venido nos ha quedado bastante y esto lo puedo decir en
nombre de muchos compañeros más

Nunca nos han traído un testimonio de este estilo y hablando así que nos
ha impactado mucho y cosas que yo les ha hecho pensar y darle vuelta de
cabeza.

No es que este mundo en este tema sea terrorífico pero un poco de ser
Estraña tengo bastante miedo este año en casa. Muchas veces tengo
pesadillas y miedo de que algún día pueda pasarte algo así a mi padre.
Yo se que yo podría nunca perdovarlo, pero es mi testimonio de que yo podés
vivir con el caso que es que pensar y te doy la razón.

De nuevo te digo que estamos así y que nunca olvidas algo más.
Espero que todo es vaya muy bien.

Un Saludo

ATEA ZEHARKATUZ



2 011ko apirilaren 24an, terrorismoaren indarkeria gertutik jasandako bi pertsonak Euskadiko ikastetxe bateko ateak zeharkatu zituzten lehen aldiz. Egun horretan, beren testigantza eman zuten Bigarren Hezkuntzako berrogeita hamar ikasle ingururen aurrean.

Hizketan hasi eta denbora gutxira bi ahotsek bat egin zuten, eta aurrean zituzten gazteen arreta erakartzea lortu zuten. Gazteen aurrean, jasandakoaren kontakizun gogorra baina lasaia eman zuten. Testigantza leiala, zuzena, zirrargarria, izan zen. Emozioz betetako isiltasunean zabaldu zen, eta gazteen kontzientziak irauli zituen. Horrela aitortu zuten ikasleek ondoren egindako idazkietan eta gogoetetan.

15

la bi ordu geroago, ikasleek ikasgela utzi zuten. Hunkituak hain gertakari latzak zuzenean ezagutu ondoren. Baina, aldi berean pozik, beraiek aitortu zuten, “begiak ireki dizkieten” bi testigantza jasotzeagatik, testigantza horiek oso lagungarriak izango baitira giza eskubideekin konpromisoa izango duten pertsona sentsible gisa hazteko. Itxaropenez irten ziren, biktima haiek baikortasunean eta adiskidetzearan oinarritutako mezua zabaldu zitelako. Etorkizun zuzenagoa eraikitzeke oso mezu baliagarria jaso zuten.

Irakasleek, ikasgeletara joan ziren bi biktimen berotasun pertsonala eta kalitate morala azpimarratu zituzten. Jardueran parte hartu zuten irakasleak aurretik jarduera prestatzen aritutakoak ziren. Beraien ebaluazioan, biktimen “jarrera pedagogiko egokia azpimarratu zuten, ikasleengandik gertu egonez, azalpen argiak emanez”. Kontakizunean jarrera partidistarik edo gehiegizkorik ez zela egon ere azpimarratu zuten, ezta gazteek, narrazioa emozioz beterik entzun eta gero, egin zituzten bat-bateko galdera zuzenen aurrean ere.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programaren barruan lehen aldiz terrorismoaren bi biktima jaso zituen zentroa Ermuko San Pelayoko ikastetxea izan zen.

Zergatik esan zion San Pelayok baietz ekimen honi?

“Programa oso egokia zen gure ikastetxerako. Gure egiteko eta pentsatzeko moduarekin bat zetorrelako. Betidanik pertsona askoren testigantza zuzena erabili izan dugu, gure ikasleek ikas dezaten, Emakundek aurrera daraman Nahiko programan hartzen dugu parte... Beste alde batetik, UNESCOrekin kideguriko eskolen sarean gaude. Ondorioz, bakearen kulturaren alde egiten dugu lan, eta gure balioen curriculumean desberdintasunaren aurreko errespetua, bakearen eta indarkeria ezaren aldeko lana, hitzaren balioa... sartu ditugu”

Carmen Álvarez,

Ermuko San Pelayoko ikastetxea zuzendari pedagogikoa

16


Bi biktimentzat, ikasle talde baten aurrean beraien bizipena ikastetxe batean azaltzea, jasandako minaren berri ematea eta horrek guztiak beraien bizitzan izan dituen ondorioak kontatzea benetako erronka izan da. Baina beraien borondatez erabaki dute hori egitea. Ordura arte inork ez zien biktimei gune pedagogiko baten barruan, programa instituzional batean, flashik eta kamerarik gabe, ikasgela bateko giroan, beraien bizipenen berri emateko gonbidapenik egin. Ez dute izan beraien senideen indarkeriazko heriotzak izandako ondorioak kontatzeko aukerarik.

Bi biktima horien senideak laurogeiko hamarkadaren hasieran hil zituzten, tiroka, 50 kilometro baino pixka bat gehiagotara dauden Gipuzkoako bi herritan. Bi hilketen artean lau hilabete baino ez ziren igaro. Eta bi biktimek oso antzeko adina zuten terrorismoak beraien bizitzak moztu zituenean.

Baina zoritzarreko kointzidentzia horiek baino gehiago zen aipaturiko bi pertsonen ikasleen artean emandako narrazioa egituratzen zuena. Ikastetxera joandako bi pertsonen testigantzak, jasandako biktimazioa, biktima izate hori, kontatu zien gazteei, eta, haien bitartez, gizarte osoari.

Lehen egun hartan, 2011ko apirilaren 24an, Bigarren Hezkuntzako ikasgela batera joatea, ikasleei Euskadin jasan dugun indarkeriaren biktimen lekukotza zuzena ematea, oso aurrerapauso garrantzitsua izan zen. Orduetik, milaka izan dira testigantza hori jaso duten ikasleak. Horrela, beraien ezagutza handitu dute, eta gizaki gisa hazi dira.

Narrazio horren bitartez, azkenik, jasandako injustiziaren testigantza zuzena eta pertsonala eman zitzaaien gazteei, hezkuntza prozesuaren barruan. Narrazio horrek ez du “alderik” edo “bandorik”, terrorismoaren biktimen artean ez baitago horrelakorik. Kontakizuna plurala da, baina aldi berean bakarra, indarkeria nork eragin duen ez duelako zerikusirik.



¡Hola, ...!

Somos cuatro alumnos de 3º de E.S.O. del Colegio ...

Te escribimos esta carta porque creemos que eres un modelo a seguir, ya que no cualquier persona viene a un colegio a contar lo ocurrido con su padre, sin saber lo que pensábamos y cómo íbamos a reaccionar.

Tras acabar la charla nuestro profesor ..., nos recordó, aunque tu ya nos lo habías dicho antes, que era la primera vez que ibas a un colegio a contar tu experiencia.

Hubo dos momentos en la charla que nos impresionaron mucho: Cuando nos contaste que tuviste que contárselo a tu hermano pequeño y cuando fuiste a hablar con un preso de E.T.A., ya que en ese momento fuiste muy valiente, y aunque sabías que fue un compañero del asesino de tu padre no dudaste en hablar con él.

A pesar de que lo pasaste muy mal con tu mala experiencia con E.T.A., nosotros te animamos a que sigas dando charlas en los colegios, para que los alumnos conozcan tu experiencia, y reflexionen sobre ella.

Para despedirnos te volvemos a dar las gracias por tu visita.

Julián

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ESKAKIZUNA



Euskadiko erakundeek oso ibilbide luzea egin zuten, eragindako mina kontuan izanik egokia izango litzatekeen arauzko erantzuna eman aurretik. 2008an Terrorismoaren Biktimen legea aldarrikatzea oso pauso garrantzitsua izan zen bost urte lehenago hasitako ibilbidean.

Giza Eskubideen Batzordeak Terrorismoaren Biktimen Txostena argitaratu zuen 2003ko ekainaren 25ean, talde Jeltzaleak, Popularrak, Sozialistak, Eusko Alkartasunak eta Ezker Batua /Berdeak taldeek lortutako akordioaren ondoren. Txosten horretan, terrorismoaren biktimen alorrean Euskadiko politika publikoetarako eremua ezarri zen, eta administrazioei hainbat neurri ezartzea eskatu zitzaion, biktimen egoera hobetzeko.

Akordioan jasotzen zen puntu baten bitartez, Eusko Jaurlaritzak plan bat aurkezteko konpromisoa hartu zuen. Planaren helburua “bakean eta balio demokratikoetan oinarrituriko hezkuntza” eta “hiritarrentzat eta demokraziaren, askatasunaren, aniztasunaren eta bakearen etorkizunarentzat terrorismoaren mehatxuak dituen arriskuak ulertaraztea” zen.

Hala ere, denbora igaro zen agindu horiek ekintza zehatzetan gauzatu aurretik. Izan ere, ekintzak ez ziren 2007. urtera arte martxan jarri, Bakerako Hezkuntzarako lehen planaren bitartez.

Lan luzearen amaiera izan zen

1. 2003 (ekainak 25): Eusko Legebiltzarrak, bertan zeuden talde guztien aho bateko aldeko iritziarekin, terrorismoaren

biktimen egoera arintzeko neurriei buruzko Ez Legezko Proposamena onetsi zuen. Horrela amaiera eman zitzaion horretarako eratutako taldearen urtebeteko lanari.

2. 2004 (abendua): Eusko Jaurlaritzak, bi urte lehenago amaitutako “Bizikidetza eta Bakerako hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetan” azterlana argitaratu zuen.

3. 2006 (maiatzak 2): Gobernu Kontseiluak Bakerako eta Bizikidetzarako I. Plana onetsi zuen. Plan horrek, beste puntu batzuen artean, terrorismoaren biktimek eta beraien testigantzak Euskadiko hezkuntzan partaidetza izatea bermatuko duen programa pedagogikoa prestatzea agintzen zuen.

4. 2008 (ekainak 19): Eusko Legebiltzarrak, bertan zeuden talde guztien aho bateko aldeko iritziarekin, 4/2008 Legea onetsi zuen, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.

5. 2009 (irailak 15): Terrorismoak Euskadin eragindako biktimei eskaini beharreko arreta instituzionalari buruzko Ez Ohiko Txostena aurkeztu zuen Arartekoak Eusko Legebiltzarrean. Urte bereko maiatzean amaitutako txostena zen.

6. 2009 (urriak 15): Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Euskal Hezkuntza Planari buruzko Eusko Legebiltzarraren 30/2009 Ez Legezko Proposamena.

7. 2010 (apirilak 20): Oinarrizko Hezkuntzako curriculumua eraldatzen duen martxoaren 30eko 97/2010 dekretuaren argitalpena.

8. 2010 (apirilak 29): Bizikidetza Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Planaren (2010-2011) zirriborroari Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako ekarpenei buruzko txostena. Bertan “biktimen testigantza baliabide pedagogiko baliotsua dela eta bizikidetzarako hezkuntza prozesuari laguntzen diola” adierazten da.

9. 2010 (ekainak 8): Gobernu Kontseiluan, Bizikidetza Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Plana (2010-2011) onetsi zen.

10. 2010 (ekainak 9): Eusko Legebiltzarrean (Hezkuntza eta Giza Eskubide Batzorde Baterakoan), Bizikidetza Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Plana (2010-2011) aurkeztu zen.

11. 2010 (azaroak 17): Eskola Bakegunearen, bizikidetza demokratikorako hezkuntza alorreko dokumentazio zentro fisikoaren eta birtualaren, aurkezpena.

12. 2011 (urtarrilak 12): “Markatzen gaituzten istorioak” eta “Pausoak bakerantz” ikasmaterialen aurkezpena eta terrorismoaren hamalau biktimek osatutako taldeak beraien testigantza ikasgeletan emateko zuen prestutasunaren iragarpena.

13. 2011 (apirilak 24): Lehen aldiz, terrorismoaren bi biktima ikasgela batean sartu ziren, DBH-ko ikasleen aurrean beraien kontakizuna azaltzeko, Jaurlaritzaren programa baten barruan.

14. 2011 (abenduak 30): Hezkuntzako hogeitaz hamar agentek bizikidetzarako hezkuntzaren aldeko jende aurreko konpromisoa sinatu zuten Bilbon. Carlton-eko Konpromisoa izenez ezagutzen dena izan zen.

15. Ondoren, 2012ko maiatzaren 4an, hezkuntzako beste lau agentek bat egin zuten konpromiso horrekin.

Hezkuntza sistemak Euskadiko hiritarren borondatea ordezkatzeko duen Ganberaren deia jaso zuen, herrialdea jasaten ari zen terrorismoaren deslegitimazioari eta terrorismoaren biktimekiko izan beharreko elkartasunari bultzada emateko. Dei hori behin baino gehiagotan egin zen. Hezkuntzak berez izan behar duen behar etikoari Legebiltzarraren erabakia gehitu zitzaion. Beharrezko erantzuna ezin zitekeen gehiago atzeratu. Indarkeria terroristaren arazoak indarrean zirauen, eta biktimak hor zeuden.

Azken berrogeita hamar urteetan ETA (m)-k, ETA (pm)-k eta CAA-k (Comandos Autónomos Anticapitalistas) 850 pertsona baino gehiago hil dituzte; GAL, BVE eta Triple A taldeek 50 baino gehiago; eta, 40 pertsona baino gehiago bahitu dituzte. Horrez gain, kalkuluen arabera, 40.000 hiritarrek indarkeria zuzena edo zeharkakoa jasan dute, eta milaka izan dira estortsio ekonomikoa jasan dutenak.

Biktima horiek eragin dituzten taldeen artean gaur egun bizirik dagoen bakarra ETA da, 2011ko urriaren 20an “bere jarduera armatuaren erabateko amaitzea” adierazi bazuen ere. Xabier Euzkitze bertsolari eta kazetariak, Jose Inazio Iruretagoienaren hilketaren 14. urteurrenean adierazi zuenez, “ETA ez da desegin, baina hiltzeko makineria desaktibatuta du”.

“Biktimen testigantza entzutea ezinbestekoa da bakearen eta giza eskubideen balio unibertsalekin erabateko konpromisoa erakutsi nahi duen hezkuntza lortu nahi badugu”, adierazi zuen Isabel Celaá Hezkuntza sailburuak esperientzia honen hasieran.

22

Bakerako hezkuntza lortzeko ezinbestekoa da indarkeria egoeren aurrean jartzea eta indarkeria horrek sortzen dituen biktimek jasan duten krudeltasuna erakustea. Hori dela eta, kontakizunak balio pedagogiko handia du, eta oso lagungarria da, kontatutako gertakizunak berriro gerta ez daitezen. “Esperientzia, elkarketa, bakar batek, indarkeriari buruzko 100 lezio teorikok baino askoz gehiago hezten dute”, adierazi du.

Terrorismoa, gizarteari egiten zaion eraso larrienetakoa eta zuzenetakoa da, inolako zalantzarik gabe, demokraziaren funtsa, hiritarren borondatea, erasotzen duelako, eta, gainera, krudeltasunaren gehigarria du, pertsona gauza bilakatu eta duintasuna kentzen baitio. Baina, hala ere, Euskadiko hezkuntza ekintzan gai hori baztertuta egon da.

Akordioa zegoen balio unibertsalen existentziari eta balio horiek ikasgelan sustatu beharrari zegokionez. Eta, ondorioz, ezinbestekoa zen orain arte egindakoa era kritikoan aztertzea. Izan ere, gauza bitxia gertatzen zen. Bizikidetzaren alorrean, berdintasunaren defentsan, berdinaren arteko erasoen aurka edo ingurumenaren alde, gatazken konponbidean... lan handia egina bazegoen ere, terrorismoak eragindakoa indarkeriak eta bere ondorioek eta biktimek oso toki txikia betetzen zuten Euskadiko hezkuntzan.

Argi dago Euskadin hain gertu jasan dugun indarkeria horren biktimak bazterturik eta batzuetan mespretxaturik, egon direla Euskadiko gizartean, eta baita gazteen hezkuntzan ere. Bazterrean utzita egon dira Euskadiko ikastetxeetan aurrera eramandako bakerako hezkuntza prozesuetan. Baina egoera hori 2010eko ekainean bukatu zen, prozesu luze eta zailari amaiera eman zitzaionean.

2005ean, Eusko Legebiltzarraren eta Terrorismoaren Biktimen Arretarako Eusko Jaur-laritzako zuzendaritzaren laguntzarekin, Xabier Etxeberria Mauleón eta Galo Bilbao Alberdi irakasleek gogoeta sakona egin zuten bakerako hezkuntzaren inguruan, Bakearen Aldeko Koordinakundeak, Bakeaz taldeak eta Deustuko Unibertsitateko Etika Gelak elkarlanean burututako egitasmoaren barruan.

Bi irakasleek biktima kontzeptuaren definizioa azpimarratu zuten, eta biktimek hezkuntza ekintzan egon behar dutela adierazi zuten, alderdi etikoa eta pedagogikoa era bikainean uztartuz.

Bi irakasle horien gogoetak oihartzun zabala jaso zuen, eta Euskadin Bakearen hezkuntzan interesa zuten pertsona eta talde askori funtsezko erreferentzia eskaini zieten, indarkeria bidegabearen biktimen presentzia aktiboa eta zuzena izango duen ikuspegi pe-dagogikoa aukeratu ahal izateko.



BIZIKIDETZA DEMOKRATIKORAKO PLANA



2 010eko ekainaren 9an, egun gutxi lehenago Eusko Jaurlaritzak onetsitako Bizikidetza Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Plana aurkeztu zen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Giza Baliabide batzordeen aurrean.

Plan horren helburua, “Baliuetan oinarrituriko hezkuntzak Euskadiko gizarteari planteatzen dion erronkari eraginkortasunez eta erantzukizunez” erantzutea zen. Oso beharrezkoa zen, izan ere, Isabel Celaáren hitzetan, “gure gazteen hezkuntza ezinbestekoa da indarkeriaren aurkako jarrerak lortzeko, inolako anbiguotasunik gabe”.

25

Bere aurkezpenean plan honen erabilgarritasunari buruzko konfiantza agertu zuen legebiltzarkideen aurrean, eta azpimarratu zuen “epe ertainean edo luzean ekarriko dituen onurak oso baliagarriak izango direla gurea bezalako gizarte bat ikuspegi moraletik eta zibikotik indartzeko. Izan ere, armadura etiko eta politiko hobea eta indartsuagoa behar duen gizartea da gurea”.

Jaurlaritzak bultzada berria eman zion planari, ezinbestekoa zelako Euskadiko gizartean bizikidetza demokratikoaren, giza eskubideen defentsaren eta giza eskubide horien urraketa salatzearen aldeko jarrera trinkoak bultzatzea.

Aitortu behar da plana aurreko jaurlaritzak egindakoa berridatzi zuela, Euskadiko hezkuntzaren alorrean, indarkeria bidegabearen aurrean oso argiak ez ziren jarrerak edo isiltasunak saihesteko, besteak beste. Sailburuak eman zuen hitzaldiak, hiritar guztiak giza eskubide guztien defentsan hezi beharra azpimarratu zuen, bizitza eta askatasun eskubi-

deak batez ere, terrorismoaren izugarrikeria ekiditeko eta “gu bezalakoak ez dena errespetatzeko”.

Eta “biktimen testigantza elkarbizitzarako hezkuntza prozesurako baliabide pedagogiko gisa” erabili beharra azpimarratu zuen, beti ere irizpide pedagogikoak betez eta ikas-tetxeen autonomia errespetatuz.

“Plan hori, orain arte arreta jaso ez duen edo, arreta jaso badu, behar bezalako arreta jaso ez duen tokietan zentratzeko beharretik sortu da, gureak bezalako herrialdeek esfortzu handiagoa behar dutela ikusteko, denok bakean eta askatasunean bizitzeko”, azpimarratu zuen.

Hezkuntza arduradunak azpimarratu nahi izan zuen, baita ere, “ez zela hutsean oinarritutako plana”, izan ere, 2008tik, Euskadiko Bakerako eta Giza Eskubideetarako I. Hezkuntza Plana indarrean baitzegoen. Plan hura aurrerapen garrantzitsua izan zen Euskadiko gizarteak bakerako hezkuntzarekin izan beharreko konpromisoari zegokionez. Hori dela eta, plan berria ez zen aurrekoa ordezkatzeko helburuz sortu, plan hura “osatzeko” helburuz, baizik.

“Euskal gizartearen aldaketak, aurrerapenak eta indarkeria bidegabekia deslegitimatze-
ra eta zuzenbide estatua errespetatzera zuzendutako jarrerak bultzatu beharretik sortzen
den berridazketa, birformulazioa da —jarrailu zuen sailburuak—. Errespetuari eta indarkeria
errefusatzeari dagokionez erabateko adostasuna lortzera bideraturiko aurrerapenak dira.
Etorkizunari gizarte gisa ekiteko beharretik sortzen da, totalitarismo hiltzailearen iritziekin bat
ez zetozen iritziak izateagatik, Euskadiko gizartearen pluraltasuna ordezkatzegatik, gure
gizartetik indarkeriaz ezabatutako biktimen aintzatespena eta memoria gizartean uztartu
beharretik, alegia”.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak, 2008an terrorismoaren biktimen alorrean onetsitako le-
gea, zein haren berridazketa eta birformulazioa zen Bakerako eta Gizarte Eskubideetarako
Hezkuntzari zegokion Euskadiko Planari buruzko 30/2009 Ez Legezko proposamena, bere
gain hartu zituen.

Legeak, indarkeria bidegabe horren biktimak aintzatetsi nahi zituen, baina, horrez gain, bost urte lehenago, indarkeriari aurre egiteko hartutako konpromisoa ere berretsi nahi zuen. Legezko testuaren bitartez, agintariak Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza bultzatzeko konpromisoa hartu zuten berriro eta, horrez gain, hezkuntza sistemako maila guztietan balio demokratikoak bultzatu beharra onartu zuten, etikaren, gizartearen eta politikaren ikuspegietatik terrorismoa deslegitimatzeko neurri aktiboak martxan jartzeko eta estatu demokratikoari legitimazio soziala emateko, askatasunerako eta bakean oinarritutako elkarbizitzarako berme gisa. Onetsitako arauak, terrorismoaren biktimen aintzatespena eta haiekiko enpatia bilatzen zuten ekimenak bultzatzen zituen. Beste helburuetako bat, “Bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntzan biktimen testigantza izatea” zen.

2009an onetsitako Legebiltzarraren proposamenak agindua eman zion Eusko Jauriritza berriari, Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren Euskal Planaren birformulazioa Legebiltzarraren aurrean aurkez zezan, 2010eko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik. Bertan, era argiagoan agertu behar zuen terrorismoaren deslegitimazio etikoak, sozialak eta politikoak, funtsezko giza eskubideen aldeko balio sistema indartuz eta terrorismoaren biktimei zor zaizkien memoria, duintasun eta justizia printzipio etikoak eta demokratikoak bultzatuz.

Plana birformulatzean “biktimak bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza proiektuan parte hartzeko” eta “hezkuntza sistemako maila guztietan balio demokratikoak sustatzeko” agindua gauzatzea erraztu zuen. Birformulazio horren ondorioz, zortzi ekintza lehen bezala geratu ziren, hogeita zortzi berriro formulatu ziren, eta bederatzi lehen aldiz sartu ziren Bizikidetzaren Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Plana izenez ezagutu zen planean. Planak aholkularitza kontseilua ere eratu zuen. Kontseiluaren buru, Eusko Jauriritzako Hezkuntza Sailburu eta ondoren Justizia Sailburu eta, 2000. urtean ETAk bere aurka egindako atentatutik bizirik irten zen José Ramón Recalde izan zen.

Gazteen artean balio eta instituzio demokratikoak sustatzeko kontzeptu hori sartzea etengabe landu da Europan 1993ko Vienako Konferentziaz geroztik. Konferentzia hartan erakunde guztiei berriaz gogorazi zitzaizen giza eskubideak, giza zuzenbidea, demokrazia eta legea irakaskuntza sistemako programatan sartu beharra. Jarraibide hori etengabe

gogoratu dute nazioarteko zenbait erakundek, eta 2002an Hiritartasun Demokratikorako Hezkuntzari eta bere aurrekari izan zen Giza Eskubideen hezkuntzari buruz EB-ko Minis-
troek emandako Aholkuan azpimarratu zen.

Horrela adierazi zuten era grafikoan lau ikasleek, testigantza bat entzun eta gero.

28



HEZKUNTZA: EZ HOTZA, EZTA ABSTRAKTUA ERE



Betidanik, askoz ere arreta mediatiko, sozial eta politiko gehiago eskaini zaie indarkeria burutu dutenei indarkeria hori jasan dutenei baino. Denbora luzez, gizarteko agente anitzak —politikoetatik hasi eta bakearen aldeko mugimenduetara— gehiago arduratu dira indarkeriaz eta indarkeria hori desagerrarazteaz, indarkeriak sortzen zituen biktimez baino.

Xabier Etxeberriaren eta Galo Bilbaoren iritziz, indarkeria bidegabearen biktimen presentziak, urrun dagoen bakerako hezkuntza hotzak edo abstraktuak izan dezakeen arriskua baztertzen du. Abstrakzio horrek hainbat maila izan ditzake. “Hedatutakoena indarkeria ekintzak eta, ondorioz, baita indarkeria horrek eragindako biktimak ere, ahazten edo baztertzen dituen da, soilik jarreretan zentratzea erabakiz”. Abstrakzio partziala, Xabier Etxeberriaren hitzetan, “indarkeria kontuan hartu arren, bigarren mailan, biktimek ikusten ez duten tokian, jartzen dena” izango litzateke.

Batzuetan, hasierako hezkuntza helburua, indarkeria erabili duten pertsonak eta indarkeria mota horiek landu ditu, beraien aurrean jarriz, indarkeria horri eta indarkeriak sortzen dituen biktimei amaiera emateko. Horrela, biktimak berehala agertzen dira, biktimen presentzia hor dago, baina era pasiboan: “biktimak dira gure arreta jasotzen dutenak, desgertzea nahi dugun indarkeria ‘jasotzen dutenak’ direlako”.

Hori baliagarria da, biktimaren interpelazio lausoa sortzen duelako, baina ez du biktima-izaera pasibo hori apurtzen, eta ez dio protagonismorik ematen indarkeriaren aurkako jarrera jaso behar dutenen aurrean, azaldu du Xabier Etxeberriak.



Abstrakzio horiekin amaitzeko modu finkoena eta positiboena, indarkeriaren biktimei presentzia ematea da, “biktimgan oinarrituz dauden indarkeriak ulertzea”. Galo Bilbaok adierazten du, baita ere, biktimgaren kontakizunak indarkeriaren ezmoraltasuna, indarkeriari aurre egin beharraren exigentzia morala, agerian uzten duela. Jarreretan oinarrituriko hezkuntza sustatu behar da, biktimgak eta biktimga horiek jasandako indarkeriaren eza-gutzak bultzatuz. Biktimgek izena eta aurpegia jartzen diete indarkeriari zein demokraziak eskatzen duenari. “Biktimgen aurrean begiak zabalduz ikasten da zer den indarkeria”, gogoratu du irakasle horrek. Galo Bilbao, bost urtez oso joera politiko desberdineko indarkeriaren biktimgak elkartu dituen Glen Cree ekimenaren dinamizatzailea da. Ekimena joan den ekainaren 16an aurkeztu zen jendearen aurrean, eta helburu pedagogiko nabarmena izan du.

Gai hori oso kontuan izan dute gazteek dituzten gaitasunak ebaluatzen dituztenek, gizarte fenomenoak eta arazoak interpretatzeko, erantzunak prestatzeko eta erabakiak hartzeko eta baita beste pertsona eta talde batzuekin elkarlanean aritzeko, hiritarrok guretzat hartu ditugun arauak betez.

30

Gure gazteek sistema demokratikoaren antolakuntzari, funtzionamenduari eta bilakaerari, sistema demokratikoaren balioei eta ezaugarriari, edo justizia eta errespetua bezalako balio demokratikoei buruz zein ezagutza maila duten jakin nahi dugunean; edo gazteek beren ingurunean dauden arazoak identifikatzeko beharrezkoak diren trebeziak dituzten eta bere esperientzia pertsonaletan oinarrituz azterketa eta gogoeta egiteko eta erantzukizunez eta izpiritu kritikoz, elkartasunez, aritzeko gai diren jakin nahi dugunean, kontrastea planteatzen diegu, aipatutako guztiaren ukazioaren aurreko kontrastea, hain zuzen ere.

Horri dagokionez, oso lagungarria da ebaluazio parametroei behatzea, ikasleek lortutako Eskumen Sozial eta Hiritar maila neurtzeko. Ikasleen artean, eskumena jasotzearen hasierako mailaren ezaugarria, indarkeriazko ekintza ez zuzena hautemateko gaitasuna da; tarteko mailen ezaugarria, ekintza hori deskribatzeko gaitasuna da; baina maila aurreratuen ezaugarriak, aurretik hauteman eta deskribatu diren indarkeriazko ekintzen edo ekintza ez zuzenen biktimganako aintzatespena, hurbiltasuna eta jasotakoa nolabait ordaintzeko asmoa dira. Gaitasun aurreratuago horiek dira biktimgarekin izandako topaketan lantzen direnak.

Hori da, baita ere, Xabier Etxeberria irakaslearen esperientzia, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean lan egiteko ildo horri ekin zionetik.

Ikasleak bat datoz hezkuntzaren ikuspegitik onura dakarrela dioen ikuspegi horrekin. Beraien iritziz, biktimaren aurrean egindako “denbora apur hori”, beraiek esaten duten bezala, zuzenean entzuten duten kontakizun hori, “oso baliagarria zaie errealitatea eta sufrimendua ulertzeko”. Horrela azaldu zuen, argi eta garbi, hogeita sei ikaslek osatutako taldeak, bere esperientziaren berri eman zien biktimari idatzitako eskerroneko gutunean.

Terrorismoaren biktimak ikasgelan egoteak, beraien biktima izaera aitortzea ere badakar, jakina. Aitortza hori zor zaie, eta aitortza egiteko eremu bat baino gehiago dago. Horietako bat gizartearen memorian gordetzea da, eta hezkuntzaren alorrean garrantzi handiagoa jasotzen du.

Baina kontuan izan behar dugu ez dela heroien memoria. Biktima edo heroi izatea oso errealitate desberdinak dira, Daniel Innerarityk azaltzen duenez. Zientziarako Ikerbasque Fundazioko filosofo eta ikerlari horrentzat, kontua “ez da soilik indarkeria askatzailearen erretorikaren aurka egitea, nazioen memoria heroikoen ordez, historia biktimen ikuspuntutik ikusi nahi duen memoria erabiltzea baizik, garaipenez betetako kontakizunak saihestea eta norberaren iraganaren ikuspegi kritikoa eskaintzea”. Indar eraldatzaile nagusia, Innerarityren hitzetan, “balentrien narratibaren ordez zain dauden subjektuen narratiba erabiltzea da”.

Horrela, biktimen diskurtsoarekin batera sarritan joaten den eta biktima, eta ez heroi, direla ez dakiela dirudien erretorika baztertzeko gonbidapena egiten du ikerlariak. Izan ere, ez dira “heroi” gisa ikusi behar, ezta ikuspegi moraletik ere. Beraien bizitza arriskuan jarriz askatasunaren, justiziaren eta bakearen alde borrokatzeagatik biktima bilakatu direnean, horren ondoriozko mirespena merezi dute. Baina hezkuntzaren alorrean jaso beharreko aintzatespena biktima izaerari dagokiona da, hau da, giza ekimen baten ondorioz sufrimendua jaso duen pertsonarena.

Joera hori ikusita, ez dira medioen aldetik garrantzia jaso duten biktimak bakarrik hartuko kontuan, izan ere, hori ez litzateke zuzena izango bazterturiko biktimekiko. Eta are gutxiago biktimak, “gureen” eta “beraienen” artean sailkatzea. Horrela eginez gero, hurbiltasun ideologikoaren arabera onartuko genituzke. Xabier Etxeberriaren hitzetan, garrantzitsuena “biktimen aurrean ikuspegi inpartziala eta unibertsalista izatea da”.

Iñaki García Arrizabalaga, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko irakasle eta 1980an Comandos Autónomos Anticapitalistas taldeak hildako Juan Manuel García Corderoren semeak esaten du zoritxarrez, gehienetan “gure hildakoei bakarrik negar egin diegula”.

Iñaki García Arrizabalaga, Bigarren Hezkuntzako irakasleekin burutzen ari den programa honetan parte hartzen duen irakasle eta terrorismoaren biktima, urundu egiten da “irabazleak eta galtzaileak izango dituen bakea eskatzen dutenetatik” eta baita “irabazlerik eta galtzailerik izango ez duen bakea eskatzen dutenetatik” ere. Galtzaileak, porrota jaso dutenak, “helburuak baliabide guztiak justifikatzen zituela dioen printzipio zitala pentsatu eta aurrera eraman zutenak dira”. Iñaki Garcíaaren salaketa ez dago soilik bere aita hil zuen ETA-ren inguruari zuzendua: “helburuak baliabide guztiak justifikatzen dituela dioen printzipio zitala sarritan entzun da terrorismoarekin amaitzeko helburua zutenen artean ere”. Eta GAL edo BVE bezalako taldeen jarduera edo Ordena Publikoko Indarren neurritz kanpoko jarduketak gogorarazten ditu. Amaitzeko, biktima horien guztien senideek kasu bakoitzean zer gertatu zen ezagutzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du.

Ulertzeko modu hori “distantziakidetasun mingarriaren” aurka dago erabat. Iñaki Garcíaaren iritziz, biktimaren eta hiltzailearen arteko “egia ez dago erdian”. Terrorismoak bere presentzia justifikatu nahi du, eta horretarako, indarkeria erabiltzen duten bi aldeen arteko gatazka aipatzen du. Eta distantziakidetasuna, metodoa konpartitzen ez duela esaten duen arren, terrorismoaren existentzia konpondu gabeko gatazka horretan oinarrituz azaldu nahi duena da. Horrela, indarkeriaren existentzia azaltzen den heinean, indarkeria horri buruzko edozein epai moral baztertzeko joera nagusitzen da, eta hori benetako arazoa da.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Hezkuntza Sailburu izandako Fernando Bue-saren eta bere eskolta Jorge Diez ertzainaren erailketen 12. urteurren ekitaldian, Reyes

Lehenengo eta berriro eskerrik emon nah diatzaugu IKASLEAK
zure munitzaldirengatik asko egundu diguleko barkamenaren bidez
hausnartzeko.

Uste dugunez, ikasle eta irakasleen artean baita ere asko baloratu dira zure
hitzak, oso zaila delako nagei, nagei nator esio denak delako dena-
ra pasatze mailatu duzun pertsona baten heriotaz hitz egitea, jen-
de aurrean, eta berriro eskerrik ematen diatzaugu.

Zure hitzak indarra eta pertsonak bezala hasiko aukera emon digute.
Zer eta zerbaiten hasien begara munitzaldira joan aurretik esaten
zirenek zure egueran ez zueko barkatuko ez genuke amaituko,
baina zure hitz adreitsuek entzun eta gero hausnartzen iritzia
aldatu da eta gaur honen inguruan olatoparke gabe hitz egiteko inda-
ria emon digu. Gaur hau oso umurtatik ikusien gertuen gure bizitza-
tik, baina orain badakigu barka egitera zailen aurrean jarzen
badigu, barkamenaren bidea hobeto dela.

Gure gutuna amaitzeko eskerrik emateko osten aukera dugu eta zuk
jakiteko zure egutia entzanda gure artean barkamenaren sen-
timendua ireri dela.

Agur bero bat,



Mate filosofoak Ernst Bloch filosofoa aipatu zuen, “salbamena hurbildu ahala, arriskua handiagoa da” esanez. Reyes Matek esan zuen “naufagoaren biziak arrisku gehien duen unea kostaldetik gertu dagoenean dela. Ordura arte ur gainean eutsi dion tentsioa galtzen badu, dena jada eginik dagoela pentsatzen badu, bere burua korrontearen mende uzten badu, salbatzeko behar dituen indar apur horiek huts egiteko arriskua sortzen da. Itxaropenez beteriko une honetan hori da Euskal Herrian dugun arriskua”.

Terrorismoak Euskadiko bizikidetasuna hain sakonetik aldatu duenez, badago arrisku bat. Egoera berriaren aurrean iragana ahazteko tentazioa nagusitu daiteke (biktima askok horrela sentitzen dute). Bizitza “normalizatuak”, “baketsuak” dakarren lasaitasunaren prezioa ahaztea edo presa izatea. Tentazio horretan eroriko bagina —azpimarratu du Reyes Matek—, “ito egingo ginатеke, salbamena eskutik gertu dugunean, hain zuzen ere”.



HEZKUNTZA ETA MEMORIA



Euskadin terrorismoa amaitzen ari den une hauetan badago arrisku bat, benetan gertatu dena bide erdian dagoela pentsatzea. Iraganaren kontakizun egokia ez da inoiz biktimen eta erasotzaileen kontakizunen erdiko puntua, azaldu du Galo Bilbaok. “Memoria kolektiboa, biktimen artean agertu ez diren printzipio etiko eta politiko batzuetan oinarriturik eraikitzen da, eta sarritan printzipio horiek izan dira biktimek desagertzea edo aldatzea eskatu dutenak”. Daniel Innerarityk oso argi du horri buruzko jarrera: “iraganaren kontakizun zuzena, zaila bada ere, ez da inoiz biktimen eta borroeroen arteko erdiko puntua”.

35

ETAk, lehen aldiz, baldintzarik gabe, “jarduera armatua behin betiko etetea” iragarri zuen egun berean, Daniel Innerarityk erkidegoen arteko gerra edo gatazka horrela amaitu daitekeela idatzi zuen, “baina Euskadin ez da egon ez bata ez bestea”. Eta jarraitu zuen esaten “Estatu indarkeriaren gertakari zitatek ere ezin dezaketela erruduntasuna erdibana banatuko lukeen simetria eskemarik justifikatu”.

Iñaki García adierazten duenez, “herrialde honetan ez dira egon desagerrarazi beharreko bi indarkeria baliokide”. Indarkeria bidegabea ez da inoiz saihestezina izan, eta ezin da justifikatu aurreko beste indarkeria bati emandako erantzun egoki gisa.

Biktima batentzat benetan mingarria izan daitekeena, biktimen eta erasotzaileen arteko simetria da. Hori dela eta, benetan gertatu denaren memoria zuzenerako egokiena, gertatutakoa biktimen ikuspegitik ulertzea da.

Horrela, Ángela Meloren, UNESCOko Giza Eskubideen zuzendariaren, iritziz, terrorismoaren biktimek beraien testigantza belaunaldi berriei helaraztea “oso ideia ona da, biktimen memoriak esan nahi duenarengatik, batez ere”. Horrez gain, “gauzak errepika ez dai-
tezen aurrerapausoa dela” ere esan zuen.

Ez ahaztea bizikidetzaren oinarria da, izua gogoratzen ez duen belaunaldiak izu hori errepikatzeko arriskua duelako. Memoriaren eta Bizikidetzaren Kongresuan izan zuen partaidetzan, Isabel Allende Bussik, kongresista txiletarrak, biktimak ikastetxeetara “bizi izan zutena azaltzera eta kontatzera” joatean oinarrituriko esperientzia horren garrantzia baloratu zuen. Isabel Allenderen, kolpe militar latzak kargutik kendutako eta eraildako Txileko presidentearen alabaren iritziz, gazteak “testigantza zuzena izanez gero informazio hobea izango duen, gertatu dena ezagutuko duen eta hobeto baloratuko duen” belaunaldia dira.

Biktimarengan, ez ahazteko nahiak, iraganak harrapatuta geratzeko arriskua ekar dezake, baina ohiko hiritarrengan, eta erakundeetan, arriskua ahaztea, amnesia, izan daiteke. Oroitzapen selektibo krudela, bidegabea eta suntsikorra eragin dezakeen amnesia kolektiboa. Indarkeriaren biktimen partaidetzarik ez duen kontakizuna indarkeria aurrera eramanez dutenen kontakizuna bilakatzen da.

36

Galo Bilbaoren iritziz, oroimen egokiak, egindako akatsak berriro egitea zailtzeaz gain, biktimek duten eta gizarteak biktimei bermatu behar dien eskubidea ere bada, baina ez da biktimek duten eta bermatu behar den eskubidea soilik, gizarteak, orokorrean, duen beharra ere bada. Biktimen oroimena egiteko, herri baten nortasun kolektiboan, terrorismoak kalteturikoen esperientzian biltzen den aberastasun ikaragarri baina dramatikoa sartzeko aukera eskaini behar da.

Ugariak eta oso anitzak izan dira mundu osoan oroimenaren eta bakerako hezkuntzaren alorrean landu diren esperientziak. Gernika Gogoratzuz elkarteak, terrorismoaren eta diktaduren memoriaren inguruko esperientzia pedagogikoei buruzko ikerketa lan garrantzitsua egin du, eta Alemania edo Txile bezalako tokietan aurrera eramandako esperientziak aztertu ditu, besteak beste.

•Hola [redacted].


Somos un grupo del Colectivo [redacted], que hemos decidido escribirte una carta, con gran ilusión. Mediante esta, queremos agradecerte el esfuerzo que hiciste para venir a [redacted], ya que era tu primera vez, y darnos una emotiva charla en la que nos transmitiste tus sentimientos e incluso nos enseñaste que ningún acto puede estar justificado para utilizar la violencia, ni aún siendo la última opción.

Durante la charla estuvimos muy interesados ya que es un tema muy importante para nosotros que la hemos vivido bastante cerca. Además la charla fue muy dinámica y no fue para nada aburrida, porque nunca ninguno de nosotros había estado tan cerca de una persona que había vivido de su propia carne la violencia de ETA.

Queremos que sepas que tienes todo nuestro apoyo y que te admiramos por tu gran valentía, al ser capaz de sentarte frente a uno que posiblemente pudiese haber sido el compañero del asesino de tu padre, ya podría haber matado personas como tú, así de valiente y luchadora.

Por eso y mucho más, te mandamos junto con esta carta un gran saludo desde aquí con respeto y admiración y como no, de todo corazón.

Firmado:









Querida

No podemos dejar de agradecerte que vinieras. Quizás para algunos, esta charla fue como otra cualquiera.

Pero para nosotros no, nos elegí y nos llenó profundamente. Puede que fuera gracias a las palabras que utilizastes, o el como las dijistes. Porque, ahora, nos reorientaremos las cosas antes de hacerlos, sabiendo que pueden molestar a otras personas. Que sabemos que no estábamos solos, pero no nos habíamos parado a pensar lo que les puede perjudicar a los de nuestro alrededor. Desde ese día, aprendimos, que los miembros de ETA no son "ETAños" son personas manchados por ese mal llamado odio. Puede que en el "Barómetro" dijéramos cosas de los que al final de la charla ya no estábamos de acuerdo. Aprendimos, que "OJO POR OJO" todo el mundo se queda ciego. Creemos que tienes mucho valor por llevar la vida que has llevado; y agradecemos que queden personas como tú. Personas, que detrás de prejuicios, fomas físicas y otros tópicos ven personas, ante todo. Mucho gracias por enseñarnos que detrás de todo dolor siempre hay un arrepentimiento. Gracias por compartir tu experiencia con nosotros/as.

En definitiva, gracias.

X X



IKUSPEGI INKLUSIBOA



Patxi Lópezen jaurlaritzak bultzatutako terrorismoaren biktimak hezkuntzaren espaziora hurbiltzeko prozesuak ez ditu bestelako indarkeria bidegabeen eta garrantzitsuen (genero indarkeria, eskolako jazarpena, arrazismoa) beste biktimak baztertzen, izan ere, guztiak bilaka baitaitezke hezteko gaitasuna duten subjektu.

Berez inklusiboa den planteamendu horrek ez ditu “lehen mailako” eta “bigarren mailako” biktimak bereiztu nahi. Izan ere, guztiak, salbuespenik gabe, injustiziarri eta indarkeriari buruzko ondorioa ateratzeko aukerak emango baitizkiete gazteei. Hala ere, 2011. urtera arte ez dira eman baldintza egokienak ikasgelatik eta ikuspegi berezitik terrorismoak eragindako indarkeria larria eta hurbilekoa lantzeko, eta biktimei ez zaie tokirik utzi. Hori dela eta, ezinbestekoa zen gai horri berehala ekitea, baita hezkuntzaren ikuspuntutik ere.

Terrorismoaren biktima kontzeptua argi eta garbi dago islatuta 2008tik indarrean dagoen legedian. Herralde honetan ezagutu den indarkeria politikoa jasan duten pertsona guztiak biltzen ditu. Urte horretako ekainaren 19an, talde guztiek (eztabaidetan parte hartu ez zuen EHAK-ak izan ezik), Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea onetsi zuten Eusko Legebiltzarrean.

Arau horretan, terrorismoaren biktima izaera, Ekintza terrorista bat edo, banda edo talde armatu batean egonik, herritarren bakea eta segurtasuna modu larrian eraldatzea helburu duten pertsonen ekintza nozitzen duten edo nozitu duten pertsoneri aplikatuko zaie. Kontzeptu bera aplikatuko da, halaber, erantzuleak xede hori duten talde edo bandetako kide ez izan arren, asmo berarekin jarduten badira”.

Definizio horren barruan, ETak eta gertuko erakundeek, GALEk eta antzeko ezaugarriak dituzten taldeek, aurrera eramandako terrorismoaren biktima guztiak sartzen dira, hau da, talde horiek hildako edo erasotako pertsona guztiak, beraien senideak ere, mehatxuen, estortsioen edo bahiketen edo “kale indarkeriaren” edo “jazarpen indarkeriaren” biktimak barne.

40

Galo Bilbaok gogoratzen duenez, gure egungo testuingurua, gertu gertukoa eta orokorragoa, mota guztietako biktimizez beterik dago. Horregatik, bere iritziz, ikuspegi etikotik, bidezkoa da zenbait gauza argitzea eta mugatzea: biktima beste pertsona batzuek nahita eragindako indarkeria era pasiboan jasan duen pertsona da, indarkeria hori bakarka, taldean edo era estrukturalen eragindakoa bada ere, eta horrek sufrimendu bidegabea, hau da, ez merezitakoa, eragin du.

Terrorismoa jasan duena biktima da, jasandakoa justifika dezakeen ezer egin ez duelako. Bere hiritartasuna kendu zaio, era bidegabean, eta ikuspegi etiko horretatik, istripu bat edo zorigaitz natural bat, hondamendia edo gaixotasuna... jasan duenetik bereizten da. Tortura jasan duena biktima da, izan ere, gauza bat edo beste egin badu ere, ezerk ez du justifikatzen gizaki gisa duen duintasuna bortxatzea, “baina zigor zuzena, bere funtsezko eskubideak errespetatzen dituen zigorra, jasaten ari den presoak ez da biktima”, argitu du Bilbao irakasleak. Berrito ere, zuriaren eta beltzaren artean gris asko, tonu asko, ikusten ditugu hemen, baina konplexutasun horrek ez du erabateko bereizketa eza justifikatzen: denak biktimak edo denak errudun. Ezinbestekoa da kontu handiz eta etengabe egin beharreko bereizketa egitea.

Eta biktima horrekin burutu beharreko elkarrekintzak oinarrizko ikasketa asko sortzen ditu, eta horien artean bat azpimarratu behar da: era bidegabean eragindako indarkeriak sufrimendua eragiten du, gu bezala, duintasun subjektu diren pertsonak direnengan. Jesús Mari Mujikak, programa honetan parte hartu duen ikastetxeetako bateko, Santo Tomas Lizeoa ikastolako, irakasle ohiak, oso era sinplean laburbiltzen du: “lehenbizikoa pertsonaren duintasuna da, eta gazteek hobeto ikusten dute biktima bat datorrenean”.

Galo Bilbaoren hitzetan, terrorismoaren biktimen ikuspuntua sartzekak, benetako iraultza etikoa eragin dezake, errealtatea beste era batera ikustean, gogoeta arrazionalaren parametroak aldatuz eta mota guztietako idealismoetatik ihes eginez. Dinamika horrek beste eremu batzuetan ere itxaropenak sortzen ditu. Izan ere, programa hau martxan jartzearen ondorioz, beste erakunde batzuek ere bide bera hartu dute, beste indarkeria bidegabe batzuen kasuan, genero indarkeriaren kasuan, besteak beste.

Jesús Prieto Mendaza antropologo eta irakasleak, programa hau bultzatzen lanean aritu den pertsonetako batek, adierazten duenez, “ETAren edo GALen biktima baten testigantza entzuten duenak, pertsona horren sufrimenduarekin enpatizatzen duenak, edozein basakeria fanatikoren edo totalitarioren biktimekin ere gauza bera egingo du era berean”.

Biktima ikasgelan sartzekak, gazteen sentimentaltasun moral hoberena indartzen duen ikasketa da: haserrea, errukia, errespetua, ausardia edo elkartasuna. Ezinbesteko hezkuntza sentimentala da. Aristotelesek, bere irakasle Platon gogoratuz, hezkuntza egokia “norberaren burua behar bezala poztea eta mintzea” zela esaten zuen, eta gure sentimenduen ontasuna neurtzeko dugun neurria pertsona orori zor zaion duintasuna baino ez da.

Xabier Etxeberriak gogoratzen du hiritarrak, batez ere, hiritar sentimentalak direla, hori baino gehiago ere badiren arren: “ezinbestekoa da sentimendu hori, pertsona jakin batzuetan biziturikoa den heinean, oso modu erabakigarrian lantzen duten emozioz, afektuz, pasioz... osaturik egotea”. Gure giza izaeraren isla ikusi behar da, eta hori ezin da arrazionaltasun hutsera mugatu. Xabier Etxeberriaren iritziz, sentimendu baldintza hori “ez da zorigaitza, adierazkortasuna, aberastasuna, konplexutasuna, loturak ezartzeko gaitasuna, ekintzarako motibazio indarra... sortzen baititu”, baina ez dugu ahaztu behar abantaila horiekin batera

fanatismorako, besteak menderatzerako edo baztertzeko arriskua ere baduela. “Horregatik da, hain zuzen ere, hain beharrezkoa, dinamika sentimental positiboak bultzatzera bideraturiko azalpena”, adierazi du Etika katedradunak.

“Hezkuntza lanean ahalegina egin behar da begirada hez-teko, ikusten erakusteko. Erabakigarria da biktimen esperien-tziak presente egotea, hau da, solaskide bihurtzea, beraien kon-takizunen bitartez. Sektore garrantzitsu bati, kontakizun horiek bihotzera helduko zaizkio. Beste sektore batentzat, berriz, zaila-goia izango da, biktimen aurrean oihalak jartzeaz gain, biktima izaera horretatik kanpo sentituko dituztelako, beraientzat “etsai” hutsak direlako. Hala ere, sektore horretan ere, bide erabaki-garria, biktima den pertsona hori benetan ikustea da”, idatzi du Xabier Etxeberria irakasleak

42

Hezkuntzan helburuak lantzen dira, ez ezagupenarekin erlazionaturiko helburuak soilik, baita jarrerekin erlazionaturikoak ere. Hezkuntza orok sentimenduzko osagai garrantzitsua du berarekin, ez pertsonen, irakasleen, ikasleen, familien, arteko elkarrekintzaren ondorioz soilik, baita berez duen izaerarengatik ere. Heztea pertsona onak prestatzea da, eta horrek, parte batean behintzat, sentimendu onak azaleratzea eskatzen du. Hezkuntza oso toki garrantzitsua da ondoren gainerako jokaerak bideratuko dituen bereizketa horretarako ahalmena bilatzeko. Xabier Etxeberriaren hitzetan, “Horrek esan nahi du gaur egun hainbestetan eskatu den hiritartasunerako hezkuntza, dagokion ikasgaitik haraindi, baina ikasgai hori ere barne hartuz, hori barneratzen duten eta behar bezala adierazten duten sentimenduetan oinarrituriko hezkuntza ere izan behar dela”.

Hiritar izateko hezkuntzari buruzko ideia hori bat dator José Antonio Marina irakasle eta filosofoak sarritan adierazi duenarekin. Bere iritziz, hezkuntza etikoa gizarte eskumenak jasotzeko modu egokiena da, “hezkuntza emozionala barruan hartzen du, baina gainditu egiten du”. Hezkuntza horren helburua, ikasleen artean “balio etikoekin bat datozen arrazonamendu moralak, sentimendu egokiek eta jokaera ohiturek” indarra har dezaten lortzea da.

Hiritar izateko hezkuntza, beraz, gizarte trebezetan entrenatzea baino askoz gehiago da. Isabel Celaá Hezkuntza sailburuak horrela adierazi zuen 2011ko otsailaren 9an, programa horren helburua berriro azaltzean: "helburu nagusia, ikasleak beste pertsona baten sufrimenduaren aurrean jartzeko gai izan daitezela da, horrek beraien sentimenduak eratzten lagunduko baitie".


30-1-2012

Estimado _____,

lo primero agradecerte de corazón la amabilidad y la valentía que tuviste al acudir al colegio para transmitirnos tus sentimientos y tu experiencia con la violencia.

Tengo que decirte que a mí personalmente me ayudó mucho. Nunca pensaría que una persona que ha sufrido tanto podría superarlo y perdonar a la persona que lo hizo. He dicho lo de que me ayudó ya que cuando mi abuelo falleció me costó mucho superarlo y creo que si me pasara lo que te ha pasado no tendría la valentía de ir a contarlo en público y mucho menos perdonar al que lo hizo. Me sorprendió mucho que después de que asesinaran a tu padre y pusieran una bomba en la discoteca de tu tío sigas con la vida adelante. Otra vez debo agradecerte que vinieras y nos enseñaras que pase lo que pase la vida sigue adelante.

Te deseo lo mejor.



Hola _____:

Somos los alumnos del colegio _____
y te enviamos esta carta para agradecerte por la charla
indubtable que nos disten sobre la experiencia tan emotiva
que ocurrio' hace varios años.

Creemos que hay que tener mucha valentia para venir
por primera vez a un colegio con gente para ti desconocida
y contar una etapa de tu vida que no fue facil para
ti.

Nos ha parecido muy emocionante el que nos contases en
primera persona una historia como esta que ocurrio' de verdad.

Aun nos cuesta entender que hayas podido intentar superar
algo tan cruel como lo que te ocurrio' y lo padre, no nos pudimos
ver en tu misma situacion.

Esperamos que sigas adelante y que sigas intentando
conseguir lo que quieres sin miedo a lo que te piden los
demas.

Un beso, y esperamos volver a verte.

BIKTIMEN BEGIRADA CURRICULUMAREN BARRUAN



Hiritartasunerako Hezkuntzaren alorrean sartutako curriculum aldaketa izan zen, hain zuzen ere, begirada hori posible egin zuena. Izan ere, ordura arte biktimei arretarik inoiz eskaini gabeko begirada hori Euskadiko ikasgela guztietan sartu baitzen. Alor horretan egin zen helburuen, edukien eta irizpideen aldaketaren helburua, oinarrizko erreferente gisa giza eskubideak eta pertsonaren duintasuna izango zituen hezkuntza ekintza finkatzea eta biktimenganako enpatia sustatzea zen. Asmoa zirrikiturik ez uztea zen, indarkeriaren deslegitimazioari dagokionez ezer ez ahaztea, eta indarkeria jasan duten biktimenganako enpatia eta hurbilketa bultzatzea.

45

Ikastetxe guztietan, bakoitzak aurrera daraman hezkuntza proiektuaren ezaugarriak kontuan izanik, bake, bizikidetzeta eta duintasun alorretan helburu berberak landu eta lortu behar ziren. Aldaketa horren helburua, gazteen artean indarkeria bidegabearen aurkako jarrera argia bultzatzea zen, eta baita Euskadiko gizarteak jasan duen indarkeria terroristaren aurkako ere.

Ebaluazio helburuetan, edukietan eta irizpideetan eragina zuen curriculum aldaketa horrek hasierako erresistentziak gainditu zituen, eta bere arrakasta azpimarratuta geratu zen. Hezkuntza sailak onetsitako araudi berriak, ia hasiera-hasieratik, adostasun maila garrantzitsua lortu zuen, alor politikoan zein hezkuntza erkidegoan bertan. Eusko Legebiltzarrean behin baino gehiagotan azpimarratu da gobernuan zein gobernutik kanpo dauden talde guztiek curriculumaren hobekuntza eta biktimei eta giza eskubideak zapaltzeari buruz planteatzen duen tratamendu “integral” horren inguruan izan duten adostasuna.

Arauaren hasierako egitasmoa Euskadiko Eskola Kontseiluari bidali zitzaion, txostena egin zezan. Euskadiko Eskola Kontseiluan hezkuntza erkidegoko estamentu guztiak dau de ordezkaturik, eta bertan ere balorazio orokor positiboa lortu zuen. 2009ko abenduaren 18an egindako txostenean, Eskola Kontseiluak alor horretan sarturiko “aldaketa garrantzi-tsuek nabarmen” ordura arteko araua hobetzen zutela adierazi zuen.

Hilabete gutxi geroago, 2010eko apirilaren 29an, Bizikidetzeta Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Planaren balorazioarekin (2010–2011) bat etorritz, organo berberak berriro eta zehatzago aztertu zituen egun batzuk lehenago onetsitako curriculum dekretuan sarturiko aldaketak.

Eskola Kontseiluak ikusi zuenez, lehendik ere curriculumean sarturik zeuden genero indarkeriaren biktimez gain, indarkeria bidegabearen eta errefusagarriaren biktimak ere agertzen ziren orain Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Hiritartasunerako Hezkuntza alorreko ebaluaziorako helburuen, edukien eta irizpideen idazketa berrian.

46

Onetsitako curriculum dekretu berriaren 70. artikuluaen barruan, mota guztietako biktimen testigantza ezagutzeko interesa aipatzen da, eta horrek argi eta garbi uzten du Isabel Celaák zuzentzen duen sailak gaiaren inguruan duen filosofia: “Hezkuntzatik Giza Eskubideetara egiten den hurbilketa izan behar duen zorrotasun kontzeptuala erabat bateragarria da biktimekin lortu beharreko enpatiaren bilaketarekin, eta hori lortzeko biktimen testigantza behar dugu”.

Arau berberak, lortu beharreko helburuen artean honako hauek aipatzen ditu: “bizimodu demokratikoaren oinarriak ezagutzea eta ezartzea eta horien arabera jarduten ikastea” eta “indarkeria estrukturaleko indarkeria egoerek (gatazka belikoak, pobrezia, muturreko desberdintasunak...), indarkeria terroristak,

genero indarkeriak, berdinen arteko indarkeriak... osaturiko Giza Eskubideak zapaltzen diren egoerak identifikatzea, bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna lortzera bideraturiko ekintzak baloratuz, mundu zuzenagoa eta solidarioagoa lortzeko bide gisa”

Horrez gain, curriculum dekretu berriak, eduki berri gisa, “Giza Eskubideak zapaltzea eragin dezaketen egoerak justifikatzeko edozein saiakera baztertzea” ere gehitzen du, eta baita “gure gizarteko biktimei aintzatespena erakustea ere, superazio eta erresistentzia eredu gisa”. Alor horretako ebaluazio irizpideen artean, arau berriak “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarritzko printzipioak eta balioak eta beraien bilakaera ezagutzea” ezartzen du, eta baita “Giza Eskubide horiek zapaltzen dituzten egoerak bereiztea, horiek defendatzeko ekintzak proposatzea eta eskubide zapaltze horien biktimekiko enpatia erakustea ere”. Horrez gain, aintzatespena erakutsi behar zaie “gatazka belikoen biktimei, terrorismoaren biktimei, genero indarkeriaren biktimei, eskolako edo laneko jazarpenaren biktimei edo beste edozein indarkeria ekintzaren biktimei, eta beraien errealitatera hurbiltzeko ahalegina eta enpatia ere beharrezkoak dira”.

2007tik hezkuntzaren barruan biktimak era berezian kontuan hartzea eta beraien ikuspuntua prestakuntza prozesuan sartzea eskatu duen Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritziz, biktimen testigantza “oso baliabide baliotsua da eta laguntza handia ematen dio bizikidetzarako hezkuntza prozesuari”.

Jaurlaritzaren ekintzarekin bat etorritik, Euskadiko hezkuntza erkidegoaren partaide-tza organo horrek beste gauza bat ere eskatzen zuen, partaidetza hori “pedagogian eta pluraltasunean oinarrituriko irizpideek gidatzea” eta ikastetxe bakoitzaren autonomia pe-

dagogikoa kontuan izatea, jarduera horiek, metodologiak, denboraltasuna eta baliabideak zehaztu ahal izateko.

Azkenean, eta denbora garaituz, indarkeriaren deslegitimazioa, biktimen begirada orokorra eta terrorismoaren biktimen begirada bereziki, ikasgelan eskaini behar diren ikasketetara sartu ziren oso-osorik. Curriculumaren hobekuntzak ikaslearen hezkuntza osatua goa ekarriko du; pertsonaren prestakuntza integrala, bere duintasunari garrantzia emanez.

Curriculumaren aldaketa inkluyentea ez zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak indarrean jarritako neurri bakarra, baina bai martxan jarritako lehenbizikoa. Hasiera hasieratik, Hezkuntza Administrazio berriak ahalegin berezia egin zuen biktimen testigantza eta ikasgeletan izan beharreko presentzia bultzatuko zuten zenbait baliabide martxan jartzeko, bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako hezkuntza prozesua indartu ahal izateko.

“Curriculum aldaketarekin, biktimek ikasgelan duten presentziak balio handia hartzen du, hezkuntzan duen eraginkortasunarengatik. Biktimekin, beraien kontakizunarekin, testigantzarekin, denok ikas dezakegu, eta gure gazteek batez ere” azaldu du Mónica García, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Bizikidetzaren Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Planaren garapenaren arduradun eta ekimen horren aplikazioaren koordinatzaileak. Eta ondoren hau adierazi du: “baina badakigu curriculum aldaketak ez direla nahiko”.

Adierazi duenez, ikastetxeek eta bertako profesionalek, jarraibideez gain, laguntza eta orientazioa ere behar dute beren lana egin ahal izateko. “Horregatik, hiru norabidetan egin dugu lan hasieratik. Lehenbizi prestakuntza ikastaroak antolatu genituen, mintegi bat, batez ere, proposamenak, ikastetxeek gizarte eta hiritartasun alorrean lan egiteko eta jakiteko zuten gogoia jasotzeko eta bideratzeko. Bigarrenik, erantzuteko gaitasuna zuen kokagune fisiko zehatza eta kokagune birtuala zituen espazioa jarri genuen martxan, irakasleei informazioa emateko, materialak eskaintzeko, hau da, irakasleak orientatzeko. Eskola Bakegune izenekoa da, biktimen testigantzak hainbat euskarritan eta jarduketa integrala aurrera eramanez ahal izateko beste baliabide teoriko eta metodologiko batzuk aurki ditzakegun guinea biltzen duen baliabide unitatea. Eta hirugarrenik, ikastetxeei, ikasgeletan indarkeria-

ren deslegitimazioa eta biktimekiko enpatia lortzeko behar dituzten material bereziak eman dizkiegu”.

Biktimen ikuspegia ezinbesteko baldintza da hezkuntzan indarkeriara behar bezala hurbiltzeko. Ikuspegi horri esker, ikasleak indarkeriaren errealitatea ikusten du, era desberdinean, modu errealean, inolako zalantzarik gabe. Beraien presentziarekin, biktimek, indarkeria horren izaera suntsitzailearen, eragiten duen injustizia larriaren, indarkeria burutzen duenaren eta bultzatzen duenaren gainean dagoen erantzukizunaren testigantza bizia ematen dute. Horrela, alde kognitiboa eta motibazionala erabat uztarturik dauden bakerako hezkuntza egituratzen dute.

Biktimak ikasgelan eskaintzen duen testigantza, pedagogia sentimetaletik haratago, pedagogia narratzailearen adibide ere bada. Gertatu izan denaren narrazioak interpreta-tzea eta egin beharreko narrazioak imajinatzea proposatzen digun pedagogia. Biktimak eskaintzen duen kontakizuna, biktima izaeraren esperientziarako atea da ikaslearentzat.

Eta formulazio hori guztia harmenaren, errezeptibitatearen, pedagogia da. Biktimaren-gana hurbildu aurretik, bere testigantza hobeto jaso ahal izateko, ikasleek (eta baita irakasleek ere, jakina), pertsona horiengan biktima izaera behar bezala ikustea zaildu dezaketen aurreiritzi guztiak alde batera utzi behar dituzte.

Kontakizuna jaso eta gero, gazteek elkarrizketa hasiko dute eta, ondorioz, elkarrizketa horretan, beraien biktima izaeraren berri eman duten pertsonak esandakoari buruzko hainbat iritzi egon daitezke, eta, are garrantzitsuagoa dena, azterketara, jarreretara eta enpatia eraman dezaketen gogoetak zabalduko dira.

Horrela azaldu du gertaturikoa Ermuko San Pelayo ikastetxeko zuzendari pedagogikoak: “Bisitaren ondoren, eta ikastetxean beti egiten dugun bezala, ikasleen iritziak eta ikasi dutena jaso genuen. Kasu honetan hainbat saio behar izan genituen, ikasleak oso hunkituta zeudelako eta gogoetarako gauza asko zegoelako. Lehenbiziko saioan gogoeta egin zuten, ondorioak atera zituzten eta txosten txiki bat egin zuten. Bigarrean, eta eurak eskatuta, talde bakoitzak nahi zuena egin zuen, gutun bat, ohar bat, marrazki bat... biktimei

bidaltzeko. Bertan, eskerrak emateaz gain, beraien mirespina ere adierazi zizkieten. Saio horretan gehien harritu gintuena, beharbada, ikasleek, parte hartu zuten bi biktimek indarkeriari aurre egiteko moduan erakutsi zituzten desberdintasunei buruz egin zuten gogoeta izan zen. Ikasleren batek asko baloratu zuen biktimaren barkatzeko gaitasuna, hiltzailearen amari barkamena adierazi baitzion hiletaren egun berean; baina beste ikasle batzuen iritziz, beste biktimak bere ingurunean bakardadea jasotzeko orduan erakutsitako indarra izan zen azpimarragarriena.”

Susan Sontag-ek idazten duenez, “errukia emozio ezegonkorra da, ez bada ekintzetan gauzatzen zimeldu egiten da”. Horregatik oso garrantzitsua da narrazioan-testigantzan oinarrituriko ikuspegi hori keinu sinbolikoen pedagogiarekin batera eskaintzea, hau da, gutun bat idaztea, omenaldi edo elkartasun ekitaldia antolatzea, erakusketa bat prestatzea... Gainera, ikasketa jarduera zehatza osatzen duten jarduketak dira, ikasketaren esanahi sakonenean.

50

Argi dago biktimaren kontakizuna ikasgelara eramateko modu bat baino gehiago dagoela. Biktima izaera horren lekuko izan eta elkartasunaren eta enpatiaren bitartez bizi izan duenak konta dezake, eta baita gertaturikoaren berri izatean, hunkiturik sentitu eta jasan dako eraso bidegabea benetan zer den adierazten duten kontakizunak sortu dituenak, edo, erasotik bizirik irteteko zortea izan badu, indarkeriaren biktima zuzenak berak ere.

Testigantza, testu, audio edo bideo baten bitartez bidera daiteke. Biktimaren presentzia fikzioaren bitartez ere gauzatu daiteke, idatzizko kontakizunak eta filmak erabiliz. Benetan gertatu den zerbaiteh zehaztasun osoz adierazten ez badute ere, norbaitek indarkeria bidegabea jasaten duenean “benetan gertatzen dena” indar handiz irudikatzen dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abian jarritako ekimenak oso kontuan izan du baliabide pluraltasun hori, biktimen testigantza ikasgeletara hurbiltzeko orduan. Eskola Bakegune espazioak (www.eskolabakegune.euskadi.net) material, orientazio eta esperientzia ugari jasotzen ditu eta, horrez gain, pertsona horien testigantza asko daude, audioan, bideoan edo testuan. Material horietako asko, Bakearen Aldeko Koordinakundea, Baketik edo Fundación Fernando Buesa Blanco bezalako elkarten ekarpenari esker lortu da.

Mónica Garcíak gogoratzen duenez, gaur egun ere oso esfortzu garrantzitsua ari da egiten ETA-ren, GAL-en, 2004ko martxoaren 11ko atentatu odoltsuak egin zituen terrorismo islamiarraren... biktimen kontakizun anitzak eta objektiboak ikastetxeen esku jartzeko. “Etenik ez duen lan gogorra izan da”.

Programaren bultzatzaileentzat bi presentzia motak, erreala eta neurtua, oso interesgarriak dira, bakoitzak bere potentzialtasunak dituelako. Ez dira presentzia modu kontrajarriak eta, horregatik, hain zuzen ere, bakerako hezkuntzaren adituen iritziz, presentzia fisikoa presentzia birtualarekin konbinatzen denean oso tresna hezitzaile indartsua sortzen da. Hori dela eta, estrategia didaktiko zuzenena iturri guztiak behar bezala erabiltzea da, ahal den guztietan, presentzia pertsonalak, benetan gertatu izan diren gertakizunek duten garrantzia kontuan izanik. Hau da, dokumentuak, presentzia birtuala edo fikzioa, presentzia errealaren eta zuzenaren osagarri egoki gisa erabiliz.

Presentzia fisikoak oso potentzialtasun bereziak ditu, “kontaktatzen duena irakaslea ez izatea, hori bizi izan duen pertsona baizik, oso baliotsua da”, azaldu digu programa hori aurrera eramanean den talde bateko tutoreak.

51

“A ze alde dagoen biktima bat paperean, aurpegirik gabe, izen eta abizenarekin bakarrik ikustearen eta bere begiak, lehen pertsonan kontaturiko esperientzia, ikustearen artean!” Irakasle baten adierazpenak, bere ikasgelan terrorismoaren biktima baten testigantza entzun eta gero.

Egia da biktimaren testigantza pertsonalak inork zalantzan jartzen ez dituen abantailak dituela beste edonolako testigantzaren aurrean, biktima den pertsona horrekin aurrez-aurre egoteak sortzen duen aberastasunarengatik, batez ere. Balio horrek ez du indarririk galtzen topaketaren xehetasun guztiak aurretik prestatu badira ere. Esperientzia aberasten laguntzen duen beste gauza bat, biktimarekin aurrez-aurre egoteak elkarrizketarako ematen duen aukera zabala da. Pertsona erreal hori ikusteak eta entzuteak ez du zerikusirik bideo batean ikustearekin edo bere historiaren berri testu batean irakurri jasotzearekin.

Arartekoak 2008an egindako Ez Ohiko Txostenak honako hau azpimarratzen zuen gai horri dagokionez: “Zuzeneko ahozko testigantzak idatzizkoak baino askoz ere aberatsagoak izango dira beti. Ahozkotasunak biktimen benetako partaidetza eta biktima izae-raren prozesu dinamikoa zuzenago ezagutzea sustatzen du. Aurretik prestatu eta koordi-natu ondoren, biktimek galderak egiteko eta ikasleen galderei erantzuteko aukera dute, eta beraien protagonismoa askoz handiagoa da”.

Presentzia fisiko zuzenak, egitasmo pedagogiko honetan oso garrantzitsua den zer-bait lortzeko aukera ematen du, biktimak era aktiboan presente egotea, eta ez gogoeta iturri den zerbait edo ikasten den zerbait bezala subjektu pasibo gisa egotea. Ikasleei eta irakasleei hezkuntzak eskatzen duen intentsitatearekin eta benetakotasunarekin elkarrekin-tzan aritzeko aukera emango dien pertsonak izango dira.

“Sarritan irakurri dugu senide bat galdu duten pertsoneri buruz, baina zuen bizipe-nak zuzenean entzutea erabat desberdina izan da”, laburbildu zuen zuzeneko topaketaz gozatzeko aukera izan zuen Batxilergoko ikasle talde batek. Izan ere, ezin dira parekatu historialari baten, ikerlari baten, zientzia politikoan jarduten duen baten azterketa eta bikti-ma izan den, eta hori nola bizi duen, nola sentitzen duen eta nola proiektatzen duen konta dezakeen pertsonaren testigantza, esaten zuen Isabel Allendek. “Batez ere, jarraitzen du politikari txiletarrak, pertsona horrek gorrotoa edo mendekua transmititzen ez badu, egiaren eta justiziaren beharra transmititzen badu”.

BIKTIMAK HEZKUNTZAN EGIN BEHARREKO LANA



Er-raza”. Horrela azaldu du ikasgeletan izan duen partaidetza bere testigantza eskainti duen pertsonetako batek. Bere anaia Batallón Vasco-Español taldeak hil zuen 80ko hamarkadan. “Zuk orain hiltzailea ikusiko bazenu, zer esango zenioke? Hori da denek egiten duten galdera. Gorrotorik dagoen ala ez jakin nahi dute. Eta nik berdin erantzuten diet beti: Zer irabaziko dut nik gauza bera eginez? Nahiago dut nagoen tokian egotea, sufritzen dudana sufrituz, berari gauza bera egiteak duen sufrimendu hori gehitu gabe. Hori da bizikidetza. Ez egin besteari zuri egitea nahiko ez zenukeena... Eta ulertzen dute”.

53

Isabel Celaá Hezkuntza Sailburuaren iritziz, “gorrototik eta mendekutik urrun dagoen testigantza horrek hedapenerako duen indarrak kontzientziak eragiten ditu, fanatismoan erroturiko jarrerak eraldatzen ditu eta solaskidea, bere sentsibilitate moralean azterna sakona uzten duten esperientzia berrietarako prestatzen du”.

Zuzeneko harreman horretaz gozatu duten gazteen jarrera nagusia gorroto ezaren eta biktimaren kontakizunean mendeku nahirik ez egotearen aurrean nolabaiteko harridura adieraztea da. Horrek beraien bizitzan duten jarrerari buruzko gogoeta egitera eramaten ditu.

Askok ikasi dute “posible dela gorrotorik gabe bizitzea”, jarrera horretaz “kutsatu” dira nolabait esateko, beraien aitortzen dutenez. Hori da, hain zuzen ere, gazteek gehien eskertzen duten ezaugarrietako bat “begia begiaren truk eginez gero, denok itsu geratuko ginatekeela” ikastea, Laurak, Iñakik, Edurnek eta Paulak, lau ikaslek, beraien gogoetan, emozioz beterik, gogoratu zuten.

Egia da ez dela erraza biktimek hezkuntza prozesuetan presentzia fisikoa izatea, ezta beraientzat ere. Ausardia handia dute, abagune jakin batzuetan zailak izan daitezkeen egoerei aurre egin ahal izateko. Izaera indartsua beharrezkoa da, gertaturikoa gehiegizko kostu psikikorik gabe gogoratu ahal izateko. Halaber, indarkeria aurrera eramane dutenek indarkeria horretara bultzatu zituen alderdikeria absurdua ahaztu gabe, giza eskubideen alderdikeriaren gaineko dimentsioei eutsiko dien diskurtsoa eskaintzeko gaitasuna ere behar da. Horrez gain, behar adinako prestakuntza pedagogikoa behar da. Hori dela eta, biktima guztiek ezin dute hezkuntzan parte hartu, baina askok bai.

Xabier Etxeberriak gogoratzen du biktima ikastetxe batera sartzen denean, ezagutu eta errespetatu behar duen izaera propiodun dinamika duen toki batera sartzen dela. Biktimari laguntza eskatzen zaio, ikasgelan aurrera eramaten den hezkuntza ekintza indartu ahal izateko. Une horretan biktima hezitzaile bilakatzen da.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da, baita ere, biktimak aurretik, beharrezkoa den doluaren prozesua egina izatea, oraindik jasandako indarkeria gertuegi baldin badago, zaila izan daitekeelako lan hezitzaile hori aurrera eramatea, eta beretzat ere traumatikoa izan daiteke. Dolu prozesu hori betetzen denean, pertsona desblokeatu egiten da. Biktimek beraiek aitortzen dute hori: “lehen edo bigarren urtean nik ezin izango nukeen horrelako azalpenik eman, baina denborak zauriak sendatzen ditu, eta orain normaltasun osoz azaltzen dut, gertatu zen bezala”, azaldu du programan parte hartzen duen biktimetako batek.

Ikasgelara heltzen diren biktimei eskatzen zaien beste ezaugarri bat hezkuntza komunikaziorako beharrezkoak diren trebeziak izatea da. Kasu honetan, programaren arduradunak izan dira gehien harritu direnak, eta oso era positiboan, beraien testigantza eskaintzera joan diren biktimek, beraien hitzen eta beraien isiltasunen bitartez komunikaziorako erakutsitako gaitasunarengatik. Entzule gazteak besarkatzen dituzten eta ikasleek bikain ulertu duten mezua eraikitzen dituzten isiltasunak.

Baina biktimentzako garrantzitsuena beraien kontakizunean alderdikeriaren gainetik dagoen ikuspegi trinkoa eskaintzea da. Biktimak, duintasun unibertsalean kalteak jasan dituzten biktima gisa joaten dira ikasgelara, eta hori alderdien gainetik dago. Alderdietan oi-

narrituriko eztabaida politikorako eremuak beste batzuk dira. Hor bilatu beharko dira gizarte justiziarekin edo nortasun nazionalarekin erlazionaturiko planteamenduak, baina hori guztia biktimak ikasgelara daraman testigantzatik kanpo geratzen da.

Alderdikeriaren gainetik dagoen ikuspegi horrek esan nahi du terrorismoaren biktima bakoitzak biktima guztiak ordezkatzeko dituela, biktima izaera ematen dion funtsezko horretan: “Une jakin batean —azpimarratu du trinkotasunez Xabier Etxeberriak— entzuleek, adibidez, beraien aurrean jasandako indarkeriaren berri ematen ari den pertsona hori Batallón Vasco-Español taldearen, ETA-ren edo CAA-en biktima den ez jakitea. Baina oso garrantzitsua da guztiak ordezkatzeko dituela jakitea, denak direlako biktimak”.

Azken finean, Jesús Prieto irakasle eta Gasteizko berritzeguneko aholkulariak adierazten duenez, helburua “biktimaren narrazioa, lehenbizi, motibatzailea izatea da eta, etorkizunari begira, taldean, indarkerian oinarritzen ez diren jarduketan aldeko konpromisorako gogoeta librea, kritikoa eta eraikitzailea sortzea”.

Xabier Etxeberria etika katedradunarentzat, alderdikeriaren gainetik dagoen ikuspegi hori funtsezkoa izan da esperientzia sinesgarria izan dadin. “Esperientzia sinesgarria da alderdikeriaren gaineko jarrera horrek funtzionatzen badu; alderdikeriaren alderdien gaineko jarrerak funtzionatzen ez badu, agur sinesgarritasunari. Nire ustez hori oso garrantzitsua izan da, eta lortu dugu”.

55

Horiek guztiak dira ikasgeletarako sartzen diren biktimen beren gain bete behar dituzten baldintzak. Eta ikasgela barruan daudenean, jasan duten indarkeriaren lekuko moral zuzena izatea eskatu zaie, koherentzia moralez kontatuz egitasunari, konbikzioei, sentimenduei dagokienez, programaren arduradunek azaldu duten bezala. “Gertatu zitzaiena konta dezatela, erabateko koherentzia moralarekin, alderdikeriaren gainetik. Eta ikasleek lekukotza horren eragina bizi dezatela”.

Biktimei dei egiten zaie, beraien esperientzian oinarrituz, beraiengan hautsi diren oinarriko giza balioak defenda ditzaten, eta haustura horren aurreko erantzuna motiba dezaten,

“eta, gainera, balioak transmititzeko hezkuntza prozesuan lagunduz egitera daude deiturik, eta prozesu horretara egokitu beharko dira, hezitzailearen koordinaziopean”.

Entzuleek ere bere lana egin behar dute. Jesús Mari Mujikak adierazten duenez, biktimak “eskerronez eta errespetuz, beraien sufrimendua aitortuz” begiratu eta entzun behar dituzte. Kontakizunaren ondoren elkarrizketa hasiko da. Programan parte hartu duten pertsonak adierazitako ideia hau da: “elkarrizketa martxan jartzen denean, ikasleekin gogoetak hasten dira, eta bertatik irteten diren gogoetetan balioak, balizkoak, sentimenduak... sortuko dira; baina asmoa, bertan irteten dena, indarkeriari aurre egiteko oinarrizko balio moraletara bideratzea da. Eta egia da biktimek harriturik utzi gaituztela beraien gogoeten fintasun moralarekin”.

Ezer ez da inprobisazioaren esku utzi hezkuntza programa honetan. Alderantziz, denak plangintza zorrotza jaso du, programan parte hartu behar zuten biktimen aukeraketatik hasita. Lan hori Maixabel Lasak zuzentzen duen taldeak kudeatu du zuzenean. Maixabel Lasa Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Arretarako Bulegoko Zuzendaria da, eta, horrez gain, 2000ko uztailaren 29an ETAk hil zuen Juan Mari Jaureguiaren alarguna ere bada.

“Gure iritziz, jarduera pedagogiko hori aurrera eramateko baldintza egokiak betetzen zituztenak aukeratu genituen”, azaldu du Txema Urkijok, une honetan bulego horretako aholkulariak eta bere egunean Giza Eskubide zuzendari izandakoak, “eta gainera, agente pedagogiko gisa aritu behar ziren pertsonentzat baldintza hoberenak nahi genituenez, komenigarri iritzi genion zenbait prestakuntza jarduera burutzea”.

Programaren arduradunek argi eta garbi azaltzen dituzte biktimek programan parte hartzeko bete behar dituzten eskakizunak: “Biktima bati ikastetxe batera joateko eskatzen diogunean, beste zerbait ere eskatzen diogu. Orokorrean hitz eginez, kontzientziaz eta koherentziaz onar dezala ikasgelara hezitzaile gisa joango dela: bertan lan hezitzailea egin behar duelako, eta ez besterik. Biktimek beste funtzio batzuek ere bete ditzakete, eskubide osoz, baina horretarako beste esparru batzuk daude. Ikastetxera doazenean hezitzaileak dira, biktimak, baina hezitzaileak. Ikasgeletan parte hartu duten biktima batzuk hezitzaileak

dira lanbidez, baina gehienak ez. Baina denei hezitzaile izan daitezen eskatzen zaie, beraien biktima izaeratik”.

Biktima hezitzaile horien prestakuntza gazteekin izan beharreko lehen harremanen aurreko zenbait saiotan egin zen. Guztira hamabi ordu erabili ziren horretarako. Saio horietan elkarrekiko aintzatespena bilatu zen, ikasleei beraien historiaren, sentimenduen, kontaketa bideratu behar zitzaieela azaldu zitzaieen, balorazioei, alderdiei edo ideologiei dagokienez kontu handiz eskaini beharreko biktima izaeraren testigantza morala. Biktimei prestakuntza eman zaienean asko azpimarratu da hori: “zuek hezitzaile gisa zoazte, jarrera horrekin”. Eta beraien berotasunez eta interesez jaso dute, “eredu sinestezina eskainiz”, Mónica Garcíak laburbiltzen duenez.

Biktimen jarrerak eta kalitateak eta beraien kontakizunaren hurbiltasunak harrিতuta utzi dituzte programaren arduradunak eta, batez ere, ikastetxeak beraien. Horrela aitortu zuen irakasle talde batek, Jaime Arrese, nerabezaroaren ohiko arazoei, CC.AA taldeak 1980an bere aita hiltzeak gehitu zizkion arazoen berri ematen entzutean, gazteek sentitu zuten gertutasuna ikusi eta gero.

Biktima hezitzaileak eskolara eramateko lana oso atsegina eta pozgarria izan da, biktimen beraienez batez ere. Zoritxarrez, ez da zaila izan Euskadin terrorismoaren biktima izan diren pertsonak aurkitzea, Txema Urkijok azaldu duenez, “biktima ezagunen masa kritikoa, aukeraketa egokia egiteko bezain zabala zen”.

Zailtasun gehienak arazo teknikoetara mugatu dira, programan parte hartzeko prest zeuden baina lanean ari ziren biktima askoren laneko ordutegiaren eta jardueraren egin nahi zuten ikastetxeen ordutegiaren arteko bateraezintasuna, batez ere. Egia da, baita ere, batzuetan, biktima izaerari buruzko kontakizuna emateko eskaria jaso duen biktimak ez duela eskaini eskatzen zitzaion laguntza.

Batzuetan, alderdikieran oinarrituriko ikuspegi hori baztertzearekin ados ez zeudelako, edo horrela egingo zenik erabat sinesten ez zutelako edo administrazioarekiko errezeloak izan dituztelako, besterik gabe, biktima batzuek ezetz esan diote beraien testigantza es-

kaintzeari. Programaren arduradunek asko sentitu duten jarrera da, baina errespetatu egin dute. Hala ere, gai hori sakon ezagutzen duen Txema Urkijok azaldu duenez, “posible izan da programa, oso biktima ikuspegi anitzak dituzten pertsonekin aurrera eraman ahal izatea”.

Programa hori alderdien ikuspegitik ikustearen arazoetako bat, Administrazioak antolaturiko Gizarterako eta Hiritartasunerako Gaitasunaren Mintegian parte hartu zuen irakasle batek honela azaldu zuen: “Nire iritziz, Jaurlaritzak programa bultzatzeko duen interes garbiak erresistentzia politikoak ere eragin ditzake”.

Txema Urkijok arrisku hori onartzen du: “Egia da, eremu jakin batzuetan, batez ere alderdien gainetik aritzea bultzatzen zuen eta bultzatzen duen programa, alderdietan oinarrituriko ikuspegitik ikusi dela, eta hezkuntzan arrakasta lortzea bilatzen zuen programa arrakasta politikoa bilatzen zuen programa gisa aztertu dela”.

58

Gaur egun errezelo horiek desagertu dira. Gainera, eta gehienek onartzen dutenez, ekimen hori aurrera eramatea ezinezkoa izango zitekeen erakunde nagusietatik, Jaurlaritzatik eta Legebiltzarretik, bultzada politikoa jaso izan ez balu. Eta horrek arazoren bat edo beste sortu badu ere, ez du eraginik izan programak bere helburuak betetzeko izan duen gaitasunean.

Hala ere, ikastetxeetan programa ongi garatzeak ez du esan nahi lan erraza denik Hezkuntza Administrazioarentzat eta ikastetxe horietako arduradunentzat. “Beraiei ere aursardia eta alderdien gainetik aritzeko gaitasuna eskatu zaie”, azpimarratu du Mónica García. “Eta, beste ezer baino lehen, biktimen testigantza enpatiaz jaso ahal izateko testuingurua eta prozesuak sortzeko ahalmena eskatu zaie, ikasleek jarrera harkorra izan dezaten”.

INDARKERIAK GIZA BERDINTASUNAREN AURKA EGITEN DU



Indarkeriaren deslegitimazioa —azpimarratu du Isabel Celaák Eusko Legebiltzarrean— eta sistema demokratikoaren funtzionamendua zuzentzen duten erakundeen defentsa, ezinbesteko sarrerako atea dira hiritartasunerako benetako hezkuntzara. Eskubide demokratikoetan eta giza eskubideetan oinarritutako benetako hezkuntza zorroztasunez eta seriotasunez lantzeko abiapuntua. Baina, terrorismoaren deslegitimazio horrekin batera, giza eskubideen beste edozein zapalkuntza, gizarteak jasaten duen indarkeria oro ere salatu nahi dugu, eskolako jazarpena, genero indarkeria, kirol munduko indarkeria, adin txikikoei egindako erasoak, indarkeria arrazista, xenofobia... Indarkeria horiek guztiak berdintasunaren aurkakoak dira, eta indar eta pedagogia demokratiko berberarekin egin behar zaie aurre hezkuntza sistema barruan eta kanpoan”.

59

Emakumeei zuzendutako indarkeriaren edo berdinen arteko indarkeriaren aurreko sentsibilitatea oso nabarmena zen Euskadiko hezkuntzan, baina ez beharrezkoa den osotasunarekin. “Indarkeria politikoa hainbeste urtez jasatearen emaitzaren ondorioz, behar bada beste tokietan baino gehiago jabetzen gara bizikidetza zenbat kaltetzen den pertsona batzuek beste batzueganako indarkeria erabiltzen dutenean. Hori dela eta, bakerako hezkuntza plan batetik bizikidetza demokratikoa bultzatzeko plan batera pasatu nahi genuen”, adierazi du Mónica Garciak.

2008ko apirilean, Martxoaren 11ko biktimen elkarteak antolatutako “Trazos y Puntadas para el recuerdo. Una ventana de paz en Euskadi”, izeneko erakusketa antolatu zen Bilboko Euskalduna jauregian. Erakusketak Eusko Jaurlaritzaren eta erakusketa bisitatzera joan zen Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren berariazko laguntza jaso zuen. Erakusketa osatzen zu-

ten elementuak, hiritar anonimoeak eta mota guztietako erakundeek, martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuaren ondoren terrorismoaren biktimei emandako ehunka oparrietako batzuk ziren (tapizak, poesiak, patchwork-ak...). Horrez gain, erakusketan zenbait gune interaktibo zegoen, irakurtzeko, idazteko, komentatzeko edo gogoeta egiteko, besterik gabe.

Erakusketatik, hiru lurraldeetako hamabost ikastetxetako (bederatzi publiko eta sei kontzertatu) 800 ikasle inguru igaro ziren, martxoaren 11ren ondoren gertatutakoa kontatu zieten lau biktimak gidatuta. Jaurlaritzaren laguntzaren barruan, Bakeolak aurrera eramandako esku hartze pedagogikorako programa ere sartzen zen. Bakeola, Bakerako hezkuntzan ibilbide luzea duen erakundea da. Programa horren barruan, ikastetxeetan jarduera bat burutzen zen aurretik, DBH-ko bigarren zikloko ikasleei martxoaren 11n gertaturikoari buruz informazioa emanez eta zenbait galdera eginez. Ondoren, bisitaren ondoren, beste lan saio bat, ikasgelara itzultzean, jarduerari amaiera emateko.

Bilbon ospatutako Oroimenaren eta Bizikidetzaren Kongresuan Gorka Ruizek, Bakeolako arduradunak, adierazten digu “Trazos y puntadas para el recuerdo” erakusketaren garapenak, “hemen, gure lurrian, indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei dagokienez, burutzen ari garen lana planteatzera eramán zituela. Hor ulertu genuen zer zen biktima hezitzailea eta galera baten minak justizia bilatzeko energia bilaka dezakeen bakearen indar eraikitzailea. Ez maila partikularrean edo pertsonalean soilik, baita biktima guztiek bilatzen duten justizia orokorrari dagokionez ere”.

Erakusketa horretan, zirrargarria izan zen biktimen dolu prozesuak eta superaziorako gaitasuna eta bakerako kulturaren egiten zuten ekarpen hezitzailea ikustea. Hori guztia tresna bikaina izan zen indarkeriaren eta tolerantzia ezaren justifikazioa baztertzeko lagunduko zuen gogoeta pedagogikorako. Baina, zergatik zen posible horrelako jarduera bat egitea Bilbo erdian, Euskadi osoko ikasleekin, lau urte lehenago Madril odolez bete zuen terrorismo yihadistarekin, eta ez zen posible antzeko zerbait egitea terrorismoaren euskal biktimekin? Zergatik

ez zen 50 urtez Euskadi kolpatu zuen terrorismoaren biktimen laguntza hori posible egiteko prozesurik eta espaziorik sortzen?

Hezitzaile askok aspaldian hautemana zuten terrorismoaren deslegitimazio argia bilatuko zuen eta biktimen presentzia zuzena izango zuen Bakerako Hezkuntza programa baten beharra Euskadin, eta hainbat erakundek ere eskatua zuten.

2006ko maiatzaren 2an, “terrorismoaren biktimen eta beraien testigantzen presentzia euskal hezkuntza sarean bermatuko lukeen programa pedagogikoa, behar bezala sistemati-zatua” lantzeko asmoa onetsi eta Legebiltzarrera bidali zuen. Garai hartan Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria buru zuen Jaurlaritzak, Legebiltzarrera bidalitako testu horretan adierazten zuen “presentzia hori oinarritzko exijentzia zela, oso lagungarria lehen mailako zenbait helburu pe-dagogiko bete ahal izateko”.

Jaurlaritzaren testu horretan agertu zen lehen aldiz Bakerako Hezkuntza “indarkeria egoeren aurrean jarriz lantzearen beharra. Egoera horiek benetan zer diren biktimengan ikus-ten da; eta biktima izatearen esperientzia adierazteko modurik hoberena, biktima direnen testigantza da”.

“Bakerako hezkuntzaren xedea —jarraitzen zuen Jaurlaritzak onetsitako dokumen-tuak—, justizian eta, ahal izanez gero, adiskidetzean, oinarrituriko gizarte baketsuak lortzea da; baina justizia horren hedapen zehatza ulertzeko eta adiskidetze prozesuetarantz behar bezala bideratzeko oinarritzko baldintza, kaltetuenekin, biktimekin, elkarrizketa enpatikoa ire-kitzea da. Hori dela eta, ezinbestekoa da era aktiboan presente egotea”.

Egun horretan bertan, Maixabel Lasak zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Barne Sai-leko Terrorismoaren Biktimen Arretarako bulegoak, programa hori aurrera eramateko agin-dua jaso zuen, Hezkuntza Sailarekin eta Gobernuan Bakerako Hezkuntzarekin erlasionaturiko gaiak lantzeko sorturiko batzordearekin elkarlanean. Batzorde horretan beste sail batzuetako kideak ere bazeuden, Justizia edo Kultura Sailetako kideak, besteak beste.

Hilabete batzuk geroago, Bakeaz taldeak, Giza Eskubideen ikerketan aritzen den gober-

nuz kanpoko erakundeak, Terrorismoaren Biktimen Arretarako zuzendaritzaren laguntzarekin, Bigarren Hezkuntzarako proposamen didaktikoa argitaratu zuen. Proposamena, lanean ari ziren hiru irakaslek prestatu zuten, Susana Harillok, Jesús Prietok eta Ricardo Aranak, Bakearako Hezkuntzarekin erlazionaturiko beste hiru erakunderen laguntzarekin: Deustuko Unibertsitateko Etika Gela, Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Bakeaz bera.

“Markatzen gaituzten istorioak” izeneko gida pedagogiko hori balizko bikoitzean oinarrituz burutu zen. Alde batetik, Bakearen hezkuntza indarkeriaren biktimekin oinarrituz garatzea bultzatzen zuen, baina “beraiekin”, urtebete lehenago Xabier Etxeberriak eta Galo Bilbaok markaturiko lan ildo jarraituz. Beste alde batetik, zenbait jarraibide proposatzen zituen, terrorismoaren biktimen testigantza presentzia bultzatzeko eta errazteko, izan ere, “gizartearen ikuspegitik oso gertu egon diren arren, bakea bultzatzen zuten hezkuntza ekimenetatik kanpo geraturiko protagonista nagusiak izan baitira”.

Bere orrialdeetatik, gidak helburu orokorrak, kontzeptuzkoak eta prozedurazkoak definitzen zituen; galdetegiak, ibilbideak eta etapak planteatzen zituen; ikasleen artean aurreiritziak eta bestelako iritziak azaleratzen eta biktimekin erlazionaturik agertzen diren gaiez jabetzen lagunduko zuten jarduerak proposatzen zituen; eta konpromiso osaturiko proposamena eta testuinguru historikoz, zine forum jardueraz, soziodramaz eta rol jokoez osaturiko zenbait eranskin jasotzen zituen.

Argitaratu eta egokitasuna aztertu zuten hiru irizpen independenteren iragazkia jaso eta gero, lanak Eusko Jaurlaritza osatzen zuten alderdi politikoetako bozeramaleen harrera ona jaso zuen. Jende aurrean material eta orientazio pedagogiko horien alde azaldu ziren. “Terrorismoaren Biktimen zuzendaritzako bulegotik bultzatu den batasun hori ere oso garrantzitsua da, “markatzen gaituzten istorio” horiek, gure gizarte osoan bakearen aldeko hezkuntza sartzeko estrategian aurrera egiteko ahalegin ausartak baitira”, adierazi zuten aho batez Jaurlaritzaren alde zeuden Legebiltzarreko taldeetako buruek Eusko Legebiltzarreko tribunitatik 2007ko urriaren 5ean.

Terrorismoaren Biktimen Arretarako zuzendaritzak bultzaturiko “Markatzen gaituzten istorioak” proposamen didaktikoaren aurkezpenak zenbait mugimendu garrantzitsu eragin

zituen. Gai horretan Hezkuntza Sailaren aholkulari gisa aritu zen eta ekimenaren egokitasuna inoiz ikusi ez zuen pertsona batek azaldu zuenez, “saileko kideentzat gai arduratsua izatetik, lantzeko moduko gaia izatera” pasatu zen. Hori dela eta, Biktimen zuzendaritzak prestaturiko material didaktikoaren alternatiba prestatu zen, “Bakea eraikitzen duen gizartea” izenekoa, eta baita lehenbiziko “esperientzia pilotua” ere, 2006-2007 ikasturteko azken hiruhilekoan. Unitate horrekin bakerako hezkuntza eta bizikidetza sustatu nahi ziren eta, horrez gain indarkeria prebenitu nahi zen, indarkeria politikoa barne.

Esperientzia horrek zuzenketa gehiago jaso zituen 2007-2008 ikasturtean, bost ikastetxetako 279 ikaslerekin aurrera eraman zen “Pausoak bakerantz” izeneko beste entsegu pilotu batean. Baina denbora gehiago eta pedagogia lan gehiago behar izan zen ikastetxeek, hala nahi izanez gero, biktimen kontakizuna ikasgelara zuzenean sartzeko aukera izan zezaten.

“Gorrotorik gabe bizi al daiteke? Zuek baietz erakutsi diguzue. Eta gure bizitzako filosofian aplikatu nahiko genuke. Badakigu zaila dela, baina saiatuko gara, zuen testigantza gogoratuz”. Horrela kontatu zuten beraien ondorengo gogoetan Andonik, Anderrek, Ikerrek eta Danielak, 2011ko apirilaren 24an beraien ikastetxean lehen aldiz bi biktima sartu izanaren lekuko izan ziren DBH-ko ikasle haiefako lauk.

Terrorismoaren Biktimen Arretarako zuzendaritzaren aholkulari izateaz gain, Txema Urkijo Bakearen Aldeko Koordinakundeko bozeramaile izan zen joan den mendeko azken hamarkadan, eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide zuzendari 2002ko otsailetik 2005eko urrira bitartean. Beraz, ongi ezagutzen du urte horietan gai horren inguruan egindako guztia. Bere iritziz, urte horietan, Jaurlaritzako sail batzuetan sentsibilitate anitzak zeuden, eta baita errezeloak ere, Jaurlaritzak onetsitako Bakerako Hezkuntza Plana gauzatzeko. Ez ditu motibazioak epaitu nahi, baina Txema Urkijoren iritziz planteamendu zabalagoak eta “bakerako hezkuntzarekin buru belarri murgildu ziren” pertsonak zeuden, baina beste batzuk errezelo gehiago zituzten, planaren “parte bat baino ez zuten onartzen, eta ez zitzaizen garrantzitsu iruditzen biktimen testigantzek tresna pedagogiko gisa zuten garrantzia”.

Txema Urkijoren ustez, urte haietan aurrerapausoak eman ziren, baina gai hori hezkuntza munduan lantzeko “benetako bultzada, borondate politikoa, falta izan zen” hezkuntzako arduradun politikoen aldetik. 2009an, Arartekoak, hilabete batzuk lehenago egindako Euskadiko terrorismoaren biktimei emandako ez ohiko Txostena eman zuen, eta beste datu kezagarri batzuen artean, adierazten zen DBH-n ari ziren ikasleen %14k ez zuela ETA-ren terrorismoaren aurreko iritzirik ematen, edo eginez gero, beraien jarrera anbigua zela, eta beste %14k ez zuela errefusatzeko. Datu horien aurrean, ikusi zen berehala lanean hastea ezinbestekoa zela, hezkuntza tolerantziaren, demokraziaren, askatasunaren eta gurea ez denaren aurreko errespetuaren alorretan, terrorismoak erasotzen zituen balioetan, alegia.

“Terrorismoaren biktimen aurrean sentsibilitaterik erakusten ez duten gazteek, sentsibilitatea erakusten dute, berriz, beste biktima batzuen edo ekologiaren aurrean. Terrorismoaren biktimen aurrean ere sentsibilitatea erakutsiko lukete, gizartean ikasi dituzten zenbait balioen eta tekniken bitartez beraien kontzientzia neutralizatu edo baliogabetuko ez balute”, adierazten zuen argi eta garbi Arartekoaren ez ohiko txostenak.

64

Baina dialektika politikotik, eta alderdikieran oinarrituriko interesengatik soilik hezkuntza programa horien kontra azaltzeko joera izan dezaketenetatik haratago, ikasgelan biktimen testigantzak hain berandu jasotzea azaltzen duten beste arrazoi batzuk ere badaude, horretarako beharra premiazkoa bazen ere.

Terrorismoaren biktimen testigantza erabilera pedagogikoak gai hori lehen aldiz eztabaidatzeko aukera eman die irakasle askori. “Irakasleek, hezkuntzaren testuinguruan, terrorismoari buruz eztabaidatzen genuen lehen aldia zen”, adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak antolatutako Gizarterako eta Hiritartasunerako Gaitasunaren Mintegian parte hartu zuen irakasle batek.

Eskolak tolerantziaren alde hezi behar du eta, horregatik, hain zuzen ere, terrorismoaren aurka hezi behar du. Oso garrantzitsua da eskolan ongi bereiztea tolera daitekeena, tolera-


Estimada

Le escribimos esta carta con el fin de agradecerle el esfuerzo y el valor que tuvo al venir a nuestro colegio para contarnos su experiencia.

El poco tiempo que estuvo con nosotros, nos sirvió para comprender la realidad y entender la sensación de sufrimiento sentida al perder a un ser querido.

Admiramos la manera en la que afrontó el trágico hecho que le cambió la vida por completo, por eso, le apoyamos a que siga dando conferencias en más colegios para concienciar a la juventud de hoy día. Creemos que debería ser un ejemplo para muchas personas.

Un cálido abrazo de:



tua, baimendua edo ulertua izateko arrazoiak dituena, eta tolera ezin daitekeena, inoiz onartu beharko ez litzatekeena. Tolerantziaren muga bidegabekeria da. Terrorismoak erabat mespretxatzen ditu pertsonen bizia eta askatasuna, tolerantziaren aurkako jarrera sakonena da eta, ondorioz tolera ezin daitekeenaren goreneko bertsioetako bat da.

Isabel Celaá sailburuak, Eusko Legebiltzarrean gogoratu zuen, eskola dela gazte batek pentsamendu kritikoa behar bezala garatzea bultzatzeko eremu publiko bakarra. Ongi bereizi behar dira ideologia nagusiarekin bat ez datorren ideologia izatea eta hilketa justifikatzea.

A Coruñako Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza katedradun eta bakerako hezkuntza gehien bultzatu zuen pertsonetako bat izan zen Xesús Rodríguez Jaresek adierazi zuenez, eskolak bere “gizartearen kohesiorako”, giza aniztasunaren “alfabetizatzaile” eta errespetuan eta bakean oinarrituriko balio demokratikoen prestatzaile lana bete behar du.

Jaresen iritziz, hezkuntzak, hezkuntzako jardunbideetan oinarrituz, indarkeria gatazkak onartzeko forma gisa erabiltzeko justifikazioak aztertzeko eta aurre egiteko erronka du, hauek bezalako esamoldeekin “bidezko gerra, indarkeria askatzailea, etsaiari erantzuteko erabiltzen den indarkeria, prebentziozko gerra...”. Izan ere, bakerako heztearen helburu nagusien artean, “zein mundutan bizi garen jabetzen diren pertsonak prestatzea egon behar da, mundu horretan partaidetza kritikoa izateko; errealitate horren aurrean eta besteen minaren eta sufrimenduaren aurrean epel agertuko ez diren pertsonak prestatzea, zuzenak ez diren edo Giza Eskubideak zapaltzen dituzten egoeren aurrean disidentzia ager dezaketena; samurtasunean eta elkartasunean oinarriturik bizitzen dakiten pertsona sentsibleak prestatzea; bakearen, edertasunaren eta elkartasunaren idealetan inspiraturiko pertsona zurrak prestatzea”.

Eusko Jaurlaritzak indarkeria politikoa deslegitimizatzeke eta bere biktimekin enpatizatzeke ekimen horrek, oso sakon finkaturik egon diren mitoen kontra ere egin behar izan du. Terrorismoak, gazteen bizipenetik oso urrun dagoen indarkeria osatzen duela esaten duen mitoaren kontra, adibidez.

Mito hori onartzeak, terrorismoaren eragin izugarria eta biktimen eguneroko bizitzan izan

dituen ondorioak ahaztea da, eta biktima horien artean haur eta gazte asko daude. Berrogeita hamar urtetan ETA-k soilik hogeitahi baino gehiago hil ditu, asko izan dira, beraien gurasoetako bat atentatu batean hiltzen ikusi dutenak, eta beste batzuk ez dute jakin, duela denbora gutxira arte, gurasoekin kalean era librean, eskoltarik gabe, ibiltzea zer den.

“Nire iritziz, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienetan indarkeria terrorista ez da gatazka gisa bizi. Era artifizialean sartzea izango litzateke”. “Ez dugu gure ikasgelatik atera behar gure errealitatearen parte bat: indarkeria. Gure bizitzetan baldin badago, ikasgeletan ere egon behar da”. Bi iritzi erabat desberdin horiek, Gizarterako eta Hiritartasunerako Gaitasunaren Mintegian parte hartu zuten bi irakaslek adierazi dituzte. Horrek argi eta garbi uzten ditu irakasleen artean dauden ikuspegi desberdinak.





INDARKERIA EZ DA EZ URRUNEKOA EZ ARROTZA



Ideia bat garatu behar da, “hezkuntzarentzat ezer ez dela arrotz izan behar” (Isabel Celaá). Hezkuntzak integrala izan behar du, eta ezin du terrorismoaren fenomenoari ondorio pedagogikoekin aurre egiterik baztertu. Terrorismoa errefusatu behar du, giza eskubideen erabateko zapalkuntza den heinean. Gertutasun kontu soila balitz, ez lirateke Berpizkundeko balioak ikasiko... “Eskolak hots kutxa gisa jardun behar du eta gizartearen arazoen aurreko erantzun berrien lantegi gisa” gogoratzen du Jose Luis Ortiz de Guineak.

Indarkeria terrorista ez dago hurrengandik eta gazteengandik hain urrun, eta gazteei ez zaie batzuetan uste dugun bezain arrotza, eta ez bakarrik komunikabideek terrorismoaz hitz egiteaz sortzen duten gertutasunarengatik bakarrik. Sarritan ahaztu egiten dugu erakunde terroristek hildako, kaltetutako edo mehatxatutako pertsonen seme-alabak, ilobak edo bilobak eskolara joaten direla. Gazteak diren arren, ez dute sinesten norbaitek automobil azpian begiratzen duenean katuren bat ote dagoen ikusteko denik. Badakite bonbarik dagoen ala ez ikusteko begiratzen dutela.

69

Jesús Maraurik, Deustuko Unibertsitateko irakasleak, Magisteritzako ikasle batek biktima baten testigantza entzun zuenean izan zuen emozioa azaltzen du. “Gaztea hitz egiten ahalegindu zen, baina hunkitu eta negarrez hasi zen. Ezin izan zuen hitz egin, ezin izan zuen eta ezin izan zuen. Dirudienez, bere etxean egoera bera zuen, beno, ez egoera berbera, baina bere aita mehatxaturik egon zen, eta eskoltarekin bizi izan zen.”



1979ko irailaren 28an, BVE taldeak Tomás Alba, Donostiako Udaleko HB-ko zinegotzia, hil zuen. Cristina alabak desagerturiko aita gogoratzen du: “nik dakidanez ez zuen inoiz inor hil, ez zen pertsona bortitza. Bai, aitarik gabe geratu nintzen 13 urterekin, eta nire seme-alabek ez dute aitona ezagutu”.

“Bakeroak etorri dira pistolekin eta ama hil egin dute”. Horrela kontatu zion izebari gertaturikoa hiru urteko haurrak. Bere ama Dolores González Catarain zen, eta ETAk hil zuen semearekin batera paseatzen ari zela, bere herriko, Ordiziako, plazan, 1982ko irailaren 22an. Aurreko egunean, ama hark, semeak ikastolan erabili behar zuen amantalean semearen izena josi zuen.

Manoli Uranga alderdi sozialistako zinegotzia da, eta 2000. urtetik 2009.era, jazarpen indarkeria izenez ezagutzen denaren biktima izan zen: “Horrek arazoak ekarri zizkidan alabarekin. Oso zaila zen 13 edo 14 urterekin nire egoera ulertzea. Oso gogorra zen berarekin hitz egitea. Ez zuen ulertzen. Hemen jaiotakoa da, eta txikitatik, irain gisa, bere ama espainiarra zela esaten zioten. Azaltzeko oso zailak diren gauza asko gertatu dira; hau bizi egin behar da, haurrei gauza asko erakutsi behar zaizkie txikitatik. Orain asko baloratzen du egiten dudana”.

Carmen Hernández, 2000ko ekainaren 4an ETAk hildako Jesús Mari Pedrosa PP-ko zinegotziaren alargunak, senarra hil aurretik urte luzez jazarpen indarkeria jasandakoak, “gure etxe aurrean dagoen institutuko mutikoak” jolastorduetan beraien kontra egiten zutela gogoratzen zuen Bilbon ospatutako Oroimenaren eta Bizikidetzaren Kongresuan.

Urte luzez, ikastetxe batzuetan terrorismoaren biktimek ezin zuten presentziarik izan, baina erasotzaileek bai, martiri edo heroi gisa. Gazte asko indarkeriaren inguruan murgildu dituen eta gorrotoz beteriko curriculum ezkutua ikasgeletara eraman duen inguru informala ikusten zen, ikaskideei eta irakasleei zuzendutako irainen, mehatxuen eta erasoen bitartez. Beraien izenak arbetan edo hormetan margoturiko dianen azpian agertu dira, eta beraien aurpegia mehatxuzko paperetan edo karteletan. Irakasle eta ikasle asko jazarririk eta mesprextaturik sentitu dira, jasaten ari ziren erasoaren ondorioz. Ikasgeletan ezagutu izan den indarkeria politikoaren eta askatasun faltaren ondorioz, ikasle askok ez zuten beren gura-

soen lanbidearen berri ematen edo ez zituzten beren zaletasun politikoak adierazten. Kasu batzuetan, kirol edo musika arloko nahiak ere ezin zituzten adierazi.

Duela denbora gutxira arte, egoera hori ez da kontuan izan curriculum ofizialean, eskolako antolakuntza formalean, klaustroan edo ikasgelan. Duela oso denbora gutxi, 2009-2010 ikasturtean eman beharreko aginduak eman zaizkie ikastetxeei, adierazpen askatasuna, hezkuntza erkidegoko eta erakundeetako kide guztien duintasuna, erabateko errespetuz betetzen dela kontrola dezaten.

Sarri askotan, euskal gizartea jasaten ari zen eta kalean nabarmena zen terrorismoa ikasgeletara hel zedin saihesteko, asmo onak erabat ezinezkoa zen zerbait bilatzen zuen: ikastetxea, kanpotik isolatuko lukeen burbuila babeslean biltzea. Estrategia horren emaitza axolagabekeriaren ondorioa baino ez da.

José Luis Ortiz de Guinea, bakearen hezkuntzan aspalditik etengabeko jarduera burutzen ari den Askartza Claret ikastetxeko bizikidetzako koordinatzaileak, juxtu aurkakoa defendatzen du. Hezitzaile horren iritziz, ikastetxeak “hedapen guneak dira, baina baita bizitzarako alternatiba tailerrak ere”, eta adierazten du belaunaldi gazteak sufrimendua ez ezagutzea oso arriskutsua dela. Bere iritziz, “gazteak ez dira mundutik isolatu behar, munda zabaldu behar dira”.

Theodor Adorno gizarte ikerlari handiak, “La educación después de Auschwitz” lanean esaten zuen “bizitzak duen krudeltasunaz eta gogortasunaz inolako susmorik ez duten haurrak direla basakeriaren mende errazen geratzen direnak, beraien inguru babeslea utzi eta berehala”.

Euskadin indarkeria politikoa garrantzirik gabeko zerbait edo existitzen ez zen zerbait gisa hartu izan da baita ere hezkuntza alorrean, eta, sarritan, kontu handiz, horrelakorik ez aipatzeko ahalegina egin da, hitza bera aipatzeak indarkeria ekarriko balu bezala. Jarrera horrek ez du inolako zerikusirik genero indarkeriaren edo homofobiaren aurrean erakutsitako jarrerarekin, mota horretako indarkeriak lantzea ezinbesteko ikusten baitzen ikaslearen garapen egokia lortzeko.

Martxoaren 11ko atentatu terroristek asko irauli zuten egoera, eta galdera asko planteatu zituzten: Lasaiago al gaude horrelako atentatu basatien egileak euskaldunak ez direla izan jakitean? Urruneko indarkeria errefusagarria da, baina gauza bera gertatzen al da gertukoenaekin? Galdera horiek guztiek indarra hartu zuten ikasgela askotan eta hezkuntza-ren profesional askoren artean.

Batzuetan, indarkeria terrorista eta bere ondorioak, ikasgelatik uste baino gertuago egon daitezke, baita era fisikoan ere. Oso gauza logikoa, arazo horrek gure herrialdean izan duen eragina kontuan izaten badugu. “Eta arazoa ez da soilik ordura arte ezer egin ez izana — Carmen Hernándezek, Jesús Mari Pedrosak, atentatuz hil aurretik, jasan zuen jazarpena aipatuz — erailketaren ondoren ezer egin ez izana baizik, alargun horrek bere biktima izaaeren berri gazteenei eman ahal izateko eta gazteen prestakuntza etikoari laguntzeko aukera izan dezan”.

Argi dago hezkuntza oso garrantzitsua dela giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustapenean, garapen iraunkorrean, hiritar demokratikoak eta kosmopolitak eta tolerantzia eta kulturen arteko elkartasunean oinarrituriko etika zibikoan oinarriturik egon behar duen bakerako kulturak duen garapenean. Horregatik esaten dugu indarkeria ezin dela inoiz gauza arrotza izan eskolan, ezta indarkeria politikoa ere. Eskola gizatasunez beterik dago eta, duela bi mila urte baino gehiago, Terenziori, gizakiari zegokion oro arrotz ez bazitzaion, are gutxiago izango zaio arrotz etorkizunarekin konpromisoa izan behar duen egungo hezkuntzarako eskubidea duten milaka pertsonaren egoera bidegabea. Eloisa Larea Bilboko Ibaizabal BHI-ko irakaslea da, eta bere Etika ikasgelatik terrorismoaren biktima baten testigantza igaro da. Beretzat, irakasle gisa duen helburua “ez da edukiak erakustera mugatzen, hiritarrak hezi behar ditugu”.

José Antonio Marinak esaten duenez, beharrezkoa da erakustea “printzipio etikoetan oinarrituriko gizarte demokratikoak zein punturaino babesten eta eskatzen gaituen”. Eurydice informazio sare europarrak, 2006an argitaratutako ikerlan batean, adierazten du hiritartasunerako hezkuntza, gazteak hiritar arduratsu eta aktibo bilakatzeko tresna dela, eta hiru ardatzetan egituratzen dela: kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta jarreraren eta balioen garapena eta partaidetza aktiboa. Horiek dira Gizarte eta Hiritar gaitasunaren oinarriak.

“Estatu demokratikoak, Espainiako Konstituzioaren 27.2 artikulua jasotzen duenez, hiritar guztiak balio demokratikoetan hezi behar ditu eta betebeharrak hori du, eta kontuan izan behar da Konstituzioa Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean oinarritzen dela”, esaten zuen 2007an, hil baino urtebete lehenago, Xesús Rodríguez Jares irakasleak eta bakerako hezitzaileen Galiziako lehen taldeko koordinatzaileak.

Izan ere, demokraziak, demokrazia horren bertuteak ezagutuko dituzten, demokraziari eutsiko dioten eta demokrazia defendatuko eta hobetuko duten pertsona aktiboak behar ditu. Hori da hiritartasun aktibo eta kritikoa izenez ezagutzen dena. Richard Crossman idazle, politikari eta editoreak, Dachauko esparruan sartu zen lehen ofizial britainiarretako bat izan zenak, adierazten zuenez, “erakunde demokratikoen arrakasta lortzeko, ezinbestekoa da erakunde horiek mugituko dituen behar adinako demokrata aktibo eta arduratsu guxtiengoak egotea”, hau da, konpromisoa duten pertsonak, eta hezkuntzak horretarako bete behar duen lana ezin da zalantzan jarri.



Kaixo [redacted]:

Eskerrik asko emandako hitzaldiagatik.

Benetan oso gogorra izan da zuk bizitakoa eta [redacted]ko laugarren Dbh-ko klase honetatik barkamena eskatzen dizugu zure aitaren heriotzagatik. Bihotzera heldu zitzaizkigun esandako hitzak; zutaz ikasi ahal izango dugu nola jauzi eta berriro zutundu, nola ez dagoen pertsona bat erailtzeko arrazoirik, eta denok merezi dugula bigarren aukera bat. Zure aitaren hilketak ez zuen ezertarako balio izan, eta hori gure errua ere bada, denok mundu honetan bizi garelako, eta mundu honetan gertatzen denaren arduradunak garelako. Horregatik guk barkamena eskatzen dizugu eta zure eta zure aitaren istorioa gurekin geratuko da. Zuk irakatsi diguzu terrorismoaren biktimen familien aurrean nola jokatu behar dugun.

Eskerrak bihotzez, eta espero dugu zure alaba ondo haztea.

Gutun hau zure gustukoa izatearen itxaropenarekin agurtzen gara;

Dbh-ko laugarren mailako D taldea.

EUSKAL HEZKUNTZAREN POTENTZIALITASUNA



Egungo gatazkei”, Pedro Sáezek adierazten duenez, asko kostatzen zaie eskolan sartzea, dituen haustura metodologikoen ondorioz edo ikasgelan alderdien arteko eztabaidarako elementuak sartzen direla uste delako. Euskadik behar argia eta premiazkoa zuen, indarkeria terroristaren erasoaren indarrak eragindakoa. Beharrezkoa zen ikastetxeek konpromiso berezia erakustea bakearen, askatasunaren eta giza eskubideen balioen aurrean. Horretarako ez ohiko erantzun potentzialtasuna zuten, hezkuntza sistematik ezaugarri horiek izango lituzkeen kultura hiritarra sustatzeko. Horrez gain, irakasleak, ikasleak eta familiak bat zetozen funtsezko balioak aipatzeko orduan, IDEA Fundazioak Arartekoaren Bulegoarentzat 2006an egin zuen Txostenak berresten zuenez.

75

Irizpideetan bat etortze horrek, Euskadiko familien artean hezkuntzak duen izen onarekin, alor horretan parte hartzeko eta ekiteko tradizioarekin eta hezkuntza sistemak erakutsi izan duen ahalmen handiarekin batera (euskara berreskuratzeko prozesuan izan duen garrantzia, adibidez), balioetan oinarrituriko hezkuntza garatzeko baldintza egokiak zeudela pentsatzera eraman zezakeen, eta baita hezkuntza horrek indarkeria bidegabe mota guztiak eta pertsonaren duintasunari egindako eraso guztiak barne hartuko zituela pentsatzera ere.

Eta, hala ere, ahalmen potentziala oso handia zen arren, erantzun hori ez zen ez azkar ez erraz sortu. Euskadiko ikastetxe askotan ez da indarkeria terroristaren salaketarako eta indarkeria horren biktimekiko enpatiarako ekintza jarraiturik garatu, jarduketa puntual gutxi batzuk baino ez dira eman. Bakerako lehen Hezkuntza plana ez zen 2006ra arte indarrean jarri, eta bitartean, isiltasun ilunak inguratzen zituen bake kulturaren garapenaren arazo nagusiak.

Ikastetxe askok ekintza puntualak burutzen zituzten indarkeriazko ekintzen aurrean. Beste batzuetan, eta bakea, gatazka falta gisa, ulertzeko joera gero eta ahulagoa zen arren, helburu nagusia “arazoak saihestea” zen. Beste era batera esanda, sarri askotan helburu bakarra “bakean egotea da”, hau da, ikastetxetik kanpo jasaten zen indarkeria politikoa, zerbait arrotza edo urrunekoa ez zena, ikastetxearen eremutik kanpo geratzea, eta indarkeria hori ikastetxean ikustea ezinbestekoa bazen, “intentsitate urrikoa” izan zedin ahalegintzea. Eta aurre egin gabeko erronka hori benetako arriskua zen gazteen prestakuntza integralerako.

“Ez da eroso biktimek jasan duten krudeltasuna edo gizar-tearen parte handi batek urte luzez erakutsi dien axolagabetasuna erakustea. Izan ere, horrek gure buruari zenbait galdera egitea eskatzen du, non geunden eta zer egin genuen gaizki gutariko bakoitzak. Askoz errazagoa da ekologia edo giza eskubideak era abstraktuan erakustea. Beste alde batetik, zailtasun horrek berak oso altxor baliotsua eskaintzen digu.

76

Gure aurrean nolabaiteko ordainketa egiteko, gure gazteekin eta gure gazteentzat, gizarte hobea eraikitzeko aukera dugu, biktimei aurrez aurre begiratzeko beldurrik gabe, egingdako bidegabekerien ardura gure gain hartuz, bidegabekeria horiek berriro errepika ez daitezen. Erakunde guztiek erronka bat dute aurrean, giza eskubideen aplikazioa zehaztu behar dute, eta horretarako ezinbestekoa da terrorismoaren biktimen partaidetza, gazteek ez dezaten gizarte ikasketa eredu okerrik jaso, askoz ere zailagoa den zerbait baizik: justiziaren aldeko borroka baketsuaren unibertsaltasunarekiko benetako konpromisoa”. Terrorismoaren biktimei eman beharreko Arreta Instituzionalari buruzko Arartekoaren Ez ohiko Txostena (2009).

“Bidezkoa da beti norberaren buruari galdetzea, zintzotasunez, presentzia jakin batzuk ezkutatzeko arrazoi pedagogikoak benetakoak diren, ala ikasgeletan ager daitezkeen biktimekiko intolerantzia edo enpatia falta adierazpen horiei aurre egin behar ez izateko aitzakia diren”, adierazi du Xabier Etxeberriak. Hezkuntzari dagokionez, arazoaren edozein azterketa zuhurtzian oinarriturik egin behar da, eta inoiz ez aurretiko amore ematetik.

Litekeena da oraindik ere arazoez irautea eta, eremu batzuetan, indarkeria bidegabe hori erabat deslegitimatua gabe egotea eta terrorismoaren biktimekiko mespretxu hori desagertu gabe egotea, baina hezkuntzaren alorrean aurrerapauso garrantzitsuak eman dira. Susana Harillo irakasleak esan zuen bezala, “zailtasunak aukera bilakatzen ikasten ari gara”.

Indarkeria terrorista hezkuntzatik hain urrun ez dagoela eta gauza arrotza ez dela argi geratu bada ere, urte hauetako beste mito handietako bat ez da oraindik guztiz desagertu. Indarkeria politikoaren aurreko ustezko “gizarte kontsentsua”, behin baino gehiagotan aipatu izan da indarkeria horren biktimen testigantza ikasgeletara eramateko zailtasun gisa. Sarri askotan esamolde batekin laburbildu da hori: “ez dezagun ikasgelara eraman gizarteak oraindik konpondu gabe duena”.

Traba horrek indarra hartu du azken garaietan, gizartean gertatzen ari diren aldaketak eta eskolari egiten zaizkion eskari handiagoak direla eta. Galdera eta eskari berriek harriduraz sortu dute irakasleen artean, eta hezkuntza sistemak pertsonen prestakuntza integratzea bilatzearen aurrean erresistentzia berriak sortu dira.

Ez dira adierazpen isolatuak, ezta gutxiengo txiki batek egindakoak ere. Irakasleen parte baten argudioak laburbiltzen dituzte, Hezkuntza Sailak martxan jarritako Gizarterako eta Hiritartasunerako Gaitasunaren Mintegian parte hartzen ari zen irakasle batek egindako galderak erakusten duenez: “Gizartean ebatzita, konponduta, egotetik oso urrun dagoen gatazkak, tokia izan behar al du eskolan? Eskola al da hori ebatztearen arduraduna?”.

Batzuek jende aurrean esan dute munduko ezin herrialdetan ezin izan dela eskolan konpondu gizartean konpondu ezin izan dena, eta, aurretik alderdi politikoen artean akor-

diorik lortzen ez bada, ezinezkoa dela bakerako hezkuntza ‘zuzena’, hau da, gure euskal gizartean zabalik dauden gatazkekin erlazionaturik dagoena, lantzeko beharrezkoak diren baldintzak bermatuko dituen gizarte akordioa lortzea.

“Argi dago kontua ez dela eskolan ebaztea gizarteak konpondu ezin duena”, erantzun dio galdera horri Mónica Garcíak, “baina arazo hori ustez ‘konpondu arte’ ezer ez egitea oso planteamendu kontserbatzailea eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza-ren konpromisoaren aurkakoa da eta, jarrera horren alde nor dagoen ikusten badugu, oso planteamendu kontraesankorra dirudi. Inork imajina al dezake giza eskubideen, pertsonen duintasunaren, alorrean hezitzaileak alde batera geratzea, gizartean, ustez, adostasunik ez dagoela adieraziz? Bidezkoa izango litzateke hezkuntza homofobia, sexismo edo arrazakeria adierazpenen aurrean alde batera geratzea, gure gizarteak konpondu ez dituen arazoak direla esanez?”

“Eskolak ezin du konpondu gizarteak konpondu ez duena” esamoldeak oso elementu larriak ditu, indarkerian oinarrituriko portaera lantzean talde batean edo ikasgela batean sor daitekeen arazo puntual baten erreferentzia baino larriagoak, eta gogoeta bikoitza eta sakona eskatzen du.

78

Lehenbiziko ideia, hezkuntzak indarkeriaren eragina jasaten duela onartzea da. Gaur egun “sarritan ezagupenen transmititzaile soil gisa baino ez da baloratzen hezkuntza, hau da, bertan erakusten denak ematen duen errentagarritasunaren arabera baloratzen da”, adierazten du Javier Elzo soziologoak. Baina, hala ere, “eskolak ezinbesteko tokia betetzen du balioen prestakuntzan, hezkuntzan eta transmisioan”. Hori dela eta, ezin du gizartearen arazoetatik kanpo egon, are gutxiago arazo horiek giza duintasuna zalantzan jartzen dutenean. Betebehar garrantzitsua du arazo horien aurrean, ezagupenak eskainiz zein jarrerak erakutsiz.

Antonio Bolívar Botía Didaktika eta Eskola Antolakuntza katedradunak adierazten duenez, “dilema ez da gizartea aldatzea eskola aldatzeko edo alderantzizkoa, elkarrekiko birtartekaritza baizik”. Hezkuntzak ez ditu berez gizartearen arazoak konponduko, baina ezin daiteke arazo horietatik kanpo geratu. Are gehiago, arazo horien ebazpenerako bideak

ezartzen ditu, bide horiek bakarrak ez badira ere. Europako hezkuntza programa gehienek, hezkuntza prozesuek gizarte bizikidetzat hobetzeko betetzen duten eta bete behar duten ezinbesteko toki hori gogoratzen dute.

Euskadiko ikasgeletan berehala nabarmentzen da, pertsonaren duintasunaren aurkako arazoak direla eta, beste indarkeria mota batzuekin alderatuz dagoen aldea. Beste indarkeria mota batzuk lantzea ohikoa izan da, eta sarritan emaitza bikainak lortuz. Ohikoa da Euskadiko ikastetxeetako leihoetan eta hormetan emakumeen aurkako indarkeria errefusatzeko mezuak ikustea azaroaren 25 guztietan. Kasu horretan badirudi ikasgela genero indarkeria deslegitimatze gune egokia dela, baina ez dirudi gauza bera gertatzen denik indarkeria politikoaren kasuan.

“Gogoratzen dut behin galdetu niela nire ikasleei —jada 22 eta 23 urte zituzten ikasle ez hain gazteei— eskolan, ikastolan edo institutuan kontsumo kritikoa, arduratsua eta iraunkorra izan beharrarekin erlazionaturiko zerbait jaso ote zuten. Oso gutxik altxatu zituzten eskuak eta beraien esperientzia apurraren berri eman zuten. Ondoren eztabaida interesgarria piztu zen, eta bazirudien denak ados zeudela, ezinbestekoa zela ikastetxetan gai horri buruz gehiago erakustea. Nire ikasleen partaidetza maila ikusita, beste galdera bat egin nien: “Eta bakeari, biktimei eta Euskadin bizi dugun terrorismoaren arazoari buruz, zein hezkuntza esperientzia jaso zenuen eskolan? Erabateko isiltasuna. Ez zen eskurik ikusi. Ez zen eztabaidarik egon...”

Iñaki García Arrizabalaga

Inor ez da agertzen Euskadiko ikasgeletan bide hezkuntzaz, kontsumorako hezkuntzaz edo bakearen aldeko hezkuntza orokorraz hitz egitearen aurka, baina hori bai, urrunezko zerbait denean, eta baita terrorismoaz ere (terrorismo islamiarra baldin bada); baina zailagoa da gure gizartean bertan gertatzen diren beste indarkeria zuzen batzuei buruz hitz egitea.

Hori dela eta, guztiz kontraesankorra da Hezkuntza ministerioak duela denbora gutxi iragarri duen Hiritartasunerako Hezkuntzaren alorreko curriculumean homofobiari, sexismoari edo antisemitismoari buruzko aipamen zuzenak kentzearen aurrean eskuak burura eramatea eta, aldi berean, terrorismoaren deslegitimazioa eta terrorismoak eragindako biktimenganako enpatia alor horretan era sakonean lantzeari trabak jartzea.

Batzuetan Jaurlaritzan bertan ardurak izan dituzten pertsonak egin dituzten aipamen horien bigarren irakurketa, gai horri, gizartean “konpondu gabeko” arazo izaera ematearekin dago erlazionatuta. Hori dela eta, honako galdera hauek egin daitezke: Zer da oraindik “konpondu gabe dagoen” hori? Indarkeria politikoa “ebatzi gabeko gatazka” al da? Ez al dago argi eta garbi terrorismoak giza eskubideak urratzen dituela eta terrorismoaren biktimak indarkeria bidegabea jasan dutela eta indarkeria ez dela gatazkak konpontzeko bidea? Ez al da nahikoa 2003an Eusko Legebiltzarrean izandako eztabaidari amaiera emateko aho batez hartutako erabakia, gai hori ikasgelan lantzerik behartzen duena?

80

Bakerako hezkuntza “zuzenean” lantzeko beharraren inguruan zalantzarik geratzen baldin bada, indarkeria politikoak Euskadin izan duen alienazio gaitasunaren ondorioz da. Denbora honetan erakutsi du zuhurrena ere nahas dezakeela, akordio eta konponketa ezak markaturiko zirkuluan egotera behartuz, indarkeria aurrera eramaten dutenek akordio eta konponketa horien parte izan nahi ez duten bitartean. Indarkeria aurrera eramaten dutenek diskurtso hori onartzen ez duten bitartean, beti esan ahal izango da ez dagoela “benetako konponbiderik”.

Ez da egia, ezta ere, Euskadin terrorismoa egon denik konpondu gabeko gatazka politiko bat edo gehiago dagoelako. Gatazka horiek badute beraien adierazpen eta ebazpen eremua, baina horrek ez du zerikusirik bere izenean inor hiltzearekin. Badirudi gero eta hurbilago dagoela politika, indarkeriaren tranpatik libre geratuko den eguna, baina edonola ere, horrek eztabaida hezkuntzaren alorretik urruntzen du. Gogoratu behar da, hala ere, hezkuntzaren ardura izaten jarraituko duena, behin eta berriro adierazi denez, indarkeria bidegabe horren deslegitimazioan eta indarkeria horren biktimenganako enpatiaren bilaketan aurrera eraman beharreko elkarlan nekaezina dela.

HEZKUNTZA LANERAKO LAGUNTZA



Gizartearen beste alor batzuetan ere gertatu izan den dimisio pedagogikoaren aurrean irakasleek izan duten harridurak, “konplikazio berri baten” aurkako joera hori indartu du. Gehiegitan hezkuntzaren esku uzten da arazo berriak edo hezkuntza gainditzen duten arazoak konpontzeko ardura, eta hezkuntzak ezin du dena egin, eta are gutxiago bakarrik baldin badago. Ziurrenez egia izango da Susana Harillok gizartearen laguntzaren garrantziaz aipatzen duena. Euskadiko eskolak bere ingurunearen laguntza gehiago duela sentituko balu, “terrorismoaren biktimekin egin beharreko etengabeko lan sistematiko horren inguruan agertu ohi diren traba horietako asko desagertu egingo liratekeela”.

81

Dena den, eskolak ez du inoiz lan egiteko abagune idealik izango. Egia da Giza Eskubi-deekiko erabateko konpromisoa duen bakerako hezkuntza ikasgeletan aurrera eramateko egon diren trabak garrantzitsuak izan direla, eta ez familien edo ikasleen aldetik batez ere.

2002ko lehen hiruhilekoan tokian tokiko lan garrantzitsua egin zen. Hamar eztabaida talde osatu ziren, eta Euskadiko ikastetxe publikoetako eta kontzertatuetako ia 3.000 ikasleri, irakasleri eta gurasori galderak egin zitzaizkien. Galdera horietan, beraien ikastetxeetan bizikidetzarako eta bakerako hezkuntza nola ulertzen zuten galdetzen zitzairen, eta baita galdetegietan “euskal gatazka” izenez adierazten zenaren inguruan zuten iritzia iruzten ere, horren barruan indarkeria terrorista sartuz. Lan horren ondorioak bi urte geroago argitaratu ziren “Bizikidetzarako eta bakerako hezkuntza EAE-ko ikastetxeetan” izenburuarekin.



Erabilitako laginaren eremua, unibertsitatetik kanpoko prestakuntza arautuko 140 ikastetxek osatzen zuten, eta hiru talde izan ziren elkarrizketak jaso zituztenak: DBH-ko 4. mailako eta DBHO-ko ikasleak, 16 urtetik gorakoak; Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta DBHO-ko irakasleak eta eskola kontseilueta edo guraso elkarteetako kide ziren gurasoak. Ikerketa lanak, zenbait taldek (Elkarri, Gernika Gogoratu, Bakearen Aldeko Koordinakundea, Unesco Etxea...) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Justizia, Enplegu, Gizarte Segurantzaren eta Kultura Sailek eta Gazteriaren Eskola Kontseiluak proposaturiko adituek koordinatu zituzten.

Azterlan horretan ikusten da ikasle gehienek “euskal gatazka” izeneko ikastetxean era sistematikoan lantzeko eskaria egiten zutela, zenbait alorretan edo ikasgai programatan edo ikasleen arteko gogoeta eta eztabaida talde gisa. Gurasoei dagokienez, gai hori ikastetxean landu zitekeela eta lantzea komenigarria zela uste zuten, baina, hori bai, logika osoz, gaia lantzean inolako manipulaziorik ez egitea eskatzen zuten.

Gurasoek eta ikasleek osaturiko eremu horretan ez zen terrorismoa eta bere ondorioak lantzeko traba berezirik aurkitu, normala denez. Gazteek jakin-mina izaten dute beti, ikasteko nahia, berezkoa, eta arraroa izango litzateke, baita ere, bere seme-alabentzat hezkuntza ez osoa edo balio unibertsalean oinarritzen ez dena nahi duen familiarik.

Susana Fernández Sola ikerlariak, txosten horretan parte hartu zuen pertsonetako batek, 2004an Bakeazek argitaratutako gogoetan, Euskadin bakerako hezkuntzaren alorrean ekintza kolektiboaren “finkapen ezaren” arrazoiak, “bere izaera instituzionala eta eraginkortasun eza pertsonal sentimenduak” zirela adierazi zuen, eta arrazoi horiek hezkuntza erki-degoko estamentu garrantzitsuenetako batean sortzen zirela, irakasleen artean, hain zuzen ere.

Hezitzaileek, bakerako hezkuntza lantzeko orduan sentitzen duten eraginkortasun eza pertsonalaren eta erakundearen laguntza eta lidergo faltaren parte handia indartu egiten da lan hori, berez, oso handia dela uste dutelako. Horrela, Susana Harillok adierazi duen bezala, eskolak “benetan hemorragia den horretan tiritu gisa” jardutearen arriskuaren aurrean egongo ginateke.

José Antonio Marina filosofoak adierazten duen bezala, ekintzaz edo omisioz, irakasle guztiak ari dira proiektu etiko batean lanean.

Elisa Usategui Basozabal eta Ana Irene del Valle Loroño Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, eskolan egiten zen balioen transmisioari buruzko ikerketa lan handia egin zuten 2008an eta 2009an, bi zatitan banaturik (“La escuela sola” eta “La escuela cuestionada”), Fernando Buesa Blanco fundazioaren laguntzarekin argitaratu zen. Ikerketa lan horretan, irakasleen irakaskuntza lanak bizi dituen egonezina eta animo falta ikusi zuten. Gasteizko hezkuntza erkidegoaren azterketa zabal hori Euskadi osora hedatu daiteke, eta bertan, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlariak lortutako ondorioetan esaten da “bakea euskal eskolako balioen maparen parte dela, baina absentziaz, omisioz, zailtasunez eta gatazkez beteriko balioa dela”. Balioetan oinarrituriko hezkuntza lantzen denean, sentsibiltate eta esanahi anitzak, elkarren artean baztergarriak, agertzen dira.

Irakasle batzuek beraien ezkortasuna adierazi dute giza eskubideen errespetuan eman beharreko aurrerapausoei dagokienez. Horrez gain, giza eskubideen oinarri izan beharko lirartekeen balioen inguruan zailtasun moralak ikusten dituzte, dauden sentsibiltate desberdinen, “irakasleentzat bakea/indarkeria eza bikoteak duen izaera polisemikoaren”, eta terrorismoa jasan duen ingurunean prestatzaile izatearen ondorioz. Horrek guztiak desoreka sortzen du sentsibilizazio mailaren eta horren alde jarduteko borondatearen artean.

Argi dago irakasleentzat, orokorrean, beharrezkoa dela errespetua, tolerantzia eta bizikidetzaren bezalako balioak, hau da, bakearen hezkuntzaren oinarri diren balioak, lantzea. Dena den, eszenatokia aldatu egiten da erreferente semantikoa “bakea” denean eta euskal gizarteak bizi dituen indarkeria arazo zehatzetara eramaten gaituenean. Izan ere, irakasleek eta ikastetxeek ez dute sentsibiltate bera bakearen balioaren presentziari edo absentziari, eskolako dinamikan izan behar duen garrantziari ezta horren aurrean izan beharreko erantzukizunari dagokienez.

Irakasle askok, oker, uste dute “bakea” kontzeptuak ez duela pertsona guztiengan gauza bera adierazi behar. “Hori dela eta –jarraitzen du Elena del Valle eta Elisa Usategui irakasleen lanak– ulergarria da prebentzio eta zuzentzeriaren joera nabarmena eta neutraltasun

dosifikatua ikustea. Hori da horrelako lanetan parte hartzen duten irakasleen diskurtsoak orokorrean adierazten duena”.

Ikerlarien ustez, ez dira gutxi gai horretatik kanpo geratzea aukeratzen dutenak, gaiak duen zailtasuna dela eta, nahiago dute familiaren esku uztea. Erljioarekin edo ideologiarekin erlazonaturiko beste gai batzuekin gertatzen den bezala, bakea kontuz landu beharreko edukia da, eta segurtasun eza sortzen dio hezitzaileari. “Neutraltasuna aniztasunaren errespetua eta askatasun ideologikoa konbinatzeko mugarik gabeko modua da”, adierazten du Irene del Valleren eta Elisa Usateguiaren txostenak.



INPARTZIALTASUNA EZ DA NEUTRALTASUNA



Hezkuntza sistemak izaera politikoa duten gatazken aurrean neutraltasuna izan behar duen ala ez eztabaidatzen hasten garenean, komenigarria da beste gatazka historiko batzuk gogoratzea, duela 55 urte Little Rock-en (Arkansas) gertaturikoa, besteak beste. Europan ez da oso ezaguna, baina oso gertakizun garrantzitsua izan zen Estatu Batuetako eskubide zibilen garapenerako.

1954ra arte, Estatu Batuetako hezkuntza sisteman zurien eta beltzen ikastetxeak bereizita zeuden. Urte horretan, Epaitegi Gorenak, aho batez, ikastetxe publikoen bereizketa hori konstituzioaren aurkakoa zela erabaki zuen. Neurri horrek estatu guztietan zuen eragina. Hiru urte geroago, Little Rock-eko eskola barrutiak, bere Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Nagusian bederatzi ikasle beltz onartzeko erabakia hartu zuen.

1957ko irailaren 2an, Orval Faubusek, Arkansaseko estatuko gobernadoreak, gazte beltzei sarrera debekatzeko asmoa adierazi zuen, eta estatuko Guardia Nazionalako indar armatuak erabiliko zituela azaldu zuen "indarkeria prebenitzeko". Gobernadorea ez zen segregazioaren aldeko muturrekoa, baina integrazioaren eta integrazio hori eskatzen zuen epaitegi federalaren aginduaren aurka azaldu zuen. Irailaren 4an, ikasleak ikastetxean sartzen ahalegindu zirenean, Guardia Nazionalak ez zien utzi. Geroago, ikasleak Little Rock-eko Bederatziak izenez egin ziren ezagunak.

Ikasle gazte horietako bat, 15 urteko Elizabeth Eckford, bakarrik geratu zen jendetza artean, eta jipoitua izateko arriskuan egon zen. Bakarrik, ehunka pertsona berari jarraika,

erakusten duen irudia mundu osoan ikusi ahal izan zen. Jarraitzen zutenen artean, bere adineko neska gazte bat, Hazel Bryan, zegoen, “zoaz etxera, beltza!” oihukatuz.

Bederatzi gazte beltz haietatik bat ere ez zen ahalegindu irailaren 5ean ikastetxera itzultzen. Egun horretan bertan, eskola kontseiluak integrazio plana bertan behera uztea eskatu zuen, baina Ronald Daviesek, barruti federaleko epaileak, atzera bota zuen eskaria. Irailaren 20an, epaile berak erabaki zuenez, Faubusek ez zituen Guardia Nazionaleko indarrak legea zaintzeko erabili, eta bertatik eramateko agindua eman zuen.

Guardia Nazionaleko indarrak gabe, bederatzi ikasleak Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Nagusian sartu ziren, baina mehatxuka ari zen jendetzaren ondorioz poliziak atzeko atetik atera behar izan zituen. Gertaturikoa “lotsagarria” zela adierazi zuen Dwight D. Eisenhower Estatu Batuetako presidentek, eta Airez garraiatutako Armadaren 101. Dibisioaren parte bat Little Rock-era bidali eta Arkansaseko Guardia Nazionalaren agintea hartu zuen.

Irailaren 25ean, soldaduek lagunduta, Little Rock-eko bederatzi ikasle beltzak institutura joan ahal izan ziren, eta beraien lehen ikasketa egun osoa bete zuten. Dena den, horretarako, biraoka eta txu eginez hartu zituzten jende askoren artean igaro behar izan zuten. Indar armatu federalak ikasturte osoan egon ziren bertan.

Ikastetxe barruan, bederatzi ikasleak irakasle eta ikasle zuri talde txiki baten laguntza baino ez zuten. Hitzek eta fisikoki erasan zieten urte osoan, eta beraien senideek ere jasan zituzten horrelakoak. Etengabeko gehiegikeria horiek jasan ezinik, ikasle haietako batek, Minnijean Brownnek, bere erasotzaileei aurre egin zien, eta 1958an ikastetxetik kaleratu zuten. Faubus gobernadoreak bigarren hezkuntzako ikastetxe guztiak ixtea agindu zuen hurrengo urtean, arraza integrazioa saihesteko xedez. “Urte galdua” izenez ezagutu zena izan zen, baina azkenean amore eman behar izan zuen. Hala ere, gobernadore aukeratu zuten berriro ere, eta beste hamar urte eman zituen agintean.

“Jendetzaren artean aurpegi atseginen bat bilatzen saiatu nintzen, lagunduko ninduen norbait. Emakume zahar baten aurpegian ontasuna aurkitzea iruditu zitzaidan, baina begiratu nio-

nean, txu egin zidan”. Elizabeth Eckford, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Nagusiko lehen bederatzi ikasle beltzetako bat.

“Eskolara beltz batekin nindoan lehen aldia izan zen, eta ez zidan minik egin.”

Robin Woods

Little Rock-eko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Nagusiko ikasle zuria

Bederatzi ikasle beltz horietatik bakarrak, Ernest Greenek, lortu zuen Little Rock-eko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Nagusian graduatzea. Baina, gaur egun, bertako instalazioetan, arraza bereizketaren amaiera ospatzen duen Estatu Batuetako parke nazionalen sarearekin loturiko museoa dago. Elizabeth Eckford Hazel Bryanekin, eraso egin zion neska zuriarekin elkartu eta barkatu zuen, baina bien arteko errezeloak ez dira inoiz guztiz desagertu. 1999an, bederatzi ikasleek Estatu Batuetako Kongresuaren urrezko domina jaso zuten, Little Rock-en jaio eta hazi zen Bill Clinton presidentearen eskutik.

“Historia horrek bidegurutze handiaren aurrean jartzen gaitu. Historiatik gehien interesatzen zaidana, garai hartan bizi zen gatazka erraldoi hura aztertzea eta giza eskubideekin konpromisoa baldin badugu zer egin behar dugun ikustea da. Albo batean geratuko al naiz? Noren alde jarriko naiz, biktimarekin ala erasotzaileekin? Neutraltasuna bidezkoa al da? Nik ezetz uste dut”, egin du goetoa Mónica Garcíak.

Izan ere, indarkeria terroristaren deslegitimaziorako eta indarkeria horren biktimekiko enpatiaren bilaketarako hezkuntza programa horren azalpen publikoan iskanbila gehien sortu zuen kontzeptuetako bat, giza eskubideak argi eta garbi zapaltzen dituzten indarkeriazko ekintzen aurrean hezitzaileak izan dezakeen neutraltasunaren errefusatze argia izan zen.

“El valor de educar” lanean, Fernando Savater filosofoak adierazten duenez, eskolan egon daitekeen nolabaiteko “neutraltasuna” honako kasu hauetan baino ezin daiteke justifikatu: “alderdi politikoek eskaintzen dituzten hauteskunde aukeren, erlijio konfesioen, eta gizartean sor daitezkeen proposamen estetikoaren edo existentzialen aurrean”. Bai-

na filosofoak gogoratzen du “ezin dela neutraltasuna onartu torturaren, arrazismoaren, terrorismoaren, heriotza zigorraren, epaileen prebarikazioaren, edo kargu publikoen ustelkeriaren aurrean; ezta osasunarekin edo hezkuntzarekin, zahartzaroarekin edo haurtzaroarekin, erlazionaturiko gizarte babesen defentsan edo, ahal duen neurrian, aberastasunaren eta txirotasunaren arteko tartea zuzentzen ahaleginduko den gizarte baten idealean. Zergatik? Ez direlako alderdi baten edo beste baten aukera hutsak, zibilizazio humanizatzailearen lorpenak baizik, eta jada ezin dira alboratu, basakeriari bidea zabaldu gabe”.

Xabier Etxeberriaren hitzetan, “irakasleen artean, sarritan ez dira ongi bereiztu inpartzialtasuna eta neutraltasuna”. Ezin daiteke neutral izan indarkeriaren aurrean, baina inpartzial izan daiteke proiektu politikoen eta gizartearen ikuspegiaren aurrean. “Irakasle batzuek neutral izan nahi izan zuten ETaren gaiaren aurrean, ‘ni ez naiz sartuko ez A-rekin ezta B-rekin ere’. Ba ez, ETak hil egiten zuen, giza eskubideak zapaltzen zituen, eta horren aurrean ezin zitekeen neutral izan”, azaltzen du Xabier Etxeberriak. Hezitzaileak bere iritzia eman behar du bidegabekeriaren aurrean, eta hori egiteko modurik hoberena hezkuntza alorreko lana da, eta indarkeriaren biktimen aurreko elkartasun enpatikoa bultzatu behar du.

88

Gai horrekin loturik, Galo Bilbaok epaile batek futbol norgehiagoka batean betetzen duen lana gogorarazi nahi du. “Epaileak, bere funtzioa betetzen ari denean, ez du futbolearen jolasten, eta ez du talde baten edo bestearen aldeko zaletasunik erakusten, inpartziala da lehiakideen elastikoei dagokienez... baina ez da neutrala, izan ere, ez da jokoan gertatzen den edozer ikustera eta alboan geratzera mugatzen, parte hartzen du, arauak hausten ditzutenak zigortuz”.

Irakasleak bete behar duen lanaren kontzeptuan egiten den akats horrek biktimen testigantza ikasgeletara sartzeko trabak zergatik eta nondik zetozen erakusten digu. Euskal hezkuntzak indarkeria bidegabe oro deslegitimatzen laguntzeko zeuden erresistentziak nondik nora doazen erakusten digu. Hala ere, ez dira horiek hesiak jasotzen zituzten arrazoi bakarrak.

Susana Fernándezen azterlanetan eta Irene del Valleren eta Elisa Usateguiren azterlanetan adierazi denez, badaude beste puntu batzuk ere, baita irakasleak horrelako gaiak lantzeko orduan izan dezakeen beldurra edo segurtasun falta ere. Ez dago ikuspegi bateraturik. Oso ikuspegi anitzak daude, gaiari buruz hitz egin nahi ez duenetik, inplikazio handiagoa bilatzen duenera arte. Eta arazoaren neurria erakusten duen isiltasun handia ere badago. Izan ere, lan horietarako aurkitu den zailtasun nagusietakoa, “irakasleen artean gai horri buruz hitz egiteko dagoen erresistentzia” izan da.

Irakasle batzuetan erresistentzia sendoak ikusten dira bakearen balio positiboa eta indarkeriaren karga negatiboa lantzeko. Gaiak beldurra eta segurtasun eza sortzen ditu. Gainera, hezkuntza esparrua ez dago gure herrialdeak jasan duen eta beldur handiak sortu dituen indarkeria politikotik kanpo.

Dena den, gaia lantzeak duen izaera “delikatua” onartzea ez da beti gai hori lantzeko oztopo izan. Leioako Mesedetako ikastetxeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko programaren izaera horrek “kontuz landu eta gurasoekin eta gainerako irakasleekin komentatu beharra” eragin zuen.

Kasu batzuetan beldur fisikoa ere sor daiteke. Euskal gizartearen parte batek, mehatxu terrorista jasaten zuenak, bizi izan duenaren antzeko beldurra izango litzateke, eta hori izan da arazo larrienetakoa. Kurt Goldsteinek, Hitlerren erregimenetik ihes egin zuen psikiatra alemanak, psikologia humanistikoaren aitzindariak azaltzen zuenez, “jendea esklabo bihurtzeko eta demokrazia desagiteko erarik hoberena pertsonengan beldur egoera sortzea da”.

Euskal gizarteak jasan duen egoera horrek berak irakasle askoren hezkuntza lana mugatu du. José Antonio Marinak esaten duenez, beldurrak komunikaturik dauden edalontziek bezala funtzionatzen du: “beldur mailak arrisku maila markatzen du, eta alderantziz”, eta beldur horrek ihes egiteko mekanismoak bultzatzen ditu. “Sentimenduak ekintzarekin zuzenean erlacionaturik daude”, azpimarratu du.

“Nire iritziz, bakeaz, elkarrizketaz... hitz egiten ari bazara, zertarako sartu behar duzu

euskal gatazka? Eskatzen dizutela? Beno, ba atera ezazu bere testuingurutik eta hitz egin ezazu elkarrizketaz, errespetuaz eta nahi duzunaz. Baina ez duzu zertan hemengo egoera politikoaz hitz egin behar”. Hori da Bigarren Hezkuntzako irakasle batek terrorismoa ikasgelan lantzeari buruz erakutsitako iritzia.

Bi arrazoi posible daude argudiatze hori azaltzeko. Lehenbizikoa kontzeptuzko akats batean oinarritzen da. Behin eta berriro errepikatu da bakerako hezkuntzak ezin dituela bizi dugun indarkeria eta bere biktimak ahaztu, eta biktimak izan behar dutela bakearen aldeko hezkuntza prozesuak zentratuko dituztenak. Bakea indarkeriari kontrajarriz baino ez da lantzen.

Ikasgelan, jatorrian edo jarduketa eremuan gugandik urrun dauden edo abstraktua-goak diren indarkeriak lantzea, gure ingurukoak landu beharreak, ihes egiteko modua baino ez da.

Argudiatze horren bigarren azalpen posiblea beste beldur batean oinarritzen da, ikasgelan sor daitekeen gatazka posiblearen aurreko beldurrean, horrek izan ditzakeen ondorio aurreikusiezinak, eta batez ere, ez konstruktiboak, sortzeko beldurrean. Nolabait esateko, Irene del Valle eta Elisa Usateguik azaltzen duten bezala, hezkuntza erkidegoko eremu jakin batzuetan “bakea, eskolara gerra ekarri dezakeen elementu gisa ikusten da”.

Eta hala ere, Hezkuntza Sailak bultzaturiko programa, eta horrekin batera beste leku batzuetatik sortu diren beste ekimen batzuk, inolako arazorik gabe eta arrakasta osoz ari dira gauzatzen. Ana Extramianaren hitzetan, orain arte garatutakoa “gauza asko erakusten ari zaigu, lehenbizikoa, hori egitea posible dela”. Berritzegune Nagusiko Bizikidetasun aholkulari horrek bildutako balorazioa oso positiboa da, eta bere iritziz, programaren garapena “existitzen ziren beldur asko ari da apurtzen”.

Horrela da, programa oso emaitza onekin ari da garatzen planteatu den mailatan (DBHko 3. eta 4. mailatan), eta baita hasiera batean pentsatu gabeko beste maila batzuetan ere, Batxilergoan edo Magisteritza eskoletan, besteak beste. Hori dela eta, Ana Extramianaren iritziz, goiko maila horietara zabaldu beharko litzateke, inolako zalantzarik gabe: “Batxilergo

goko eta DBH-ko saioretan egon naiz; heldutasun, eztabaida, gogoeta... maila oso bestelakoa da, baina nik egingo nuke. Bigarren Hezkuntza osora zabalduko nuke, batxilergoa barne, inolako zalantzarik gabe”.

Irakasleen aldetik jasotako aldeko iritzi berbera dute parte hartu duten biktimek. Horrela uste du Jaime Arresek, parte hartu duen biktima batek, programa zabaltzearen aldeko apustu argia eginez: “Oso argigarria izan da, sumatzen genuen, baina ez ginen adieraztera ausartzen. Honek ez luke nerabeei edo hamabost urteko gazteei soilik zuzenduriko ekimena izan behar; 18 urtetik gorakoei zuzendutako ekimena ere izan beharko luke”.

Os agradecemos a [redacted] y a [redacted] vuestros testimonios. Quisieramos decir que éstos testimonios provocaron en nosotros un breve y leve cambio de mentalidad. Es decir, queremos aclarar que habeis dejado en nosotros una semilla que nos hace reflexionar sobre la idea de que se puede vivir sin odio, sois un claro ejemplo de ello, pero nosotros todavía metemos la pata con conductas violentas... Es tan difícil en esta sociedad !!! ... En fin, mil gracias porque el grupo formado por [redacted], [redacted], [redacted] e [redacted], se compromete a tener presente siempre vuestros testimonios para intentar ser mejores personas. Eskerrik asko !!

1-2-11

Kaixo

Soy una alumna de [redacted] del colegio
en el que estuviste dándonos un testimonio.

En primer lugar, agradecer que vinieras
a hablar como víctima de E.F.A. En
mi opinión hay que tener mucho coraje
y valentía para hablar de la muerte
de un padre. Sinceramente, admiro el
valor que tuviste. En muchas campañas
de la paz de años anteriores hemos
hablado de guerras y problemas lejanos,
pero nunca hemos podido escuchar
como una víctima cuenta lo que
ha pasado.

Lo productivo de tu testimonio, ha
sido aprender que por mucho que
la vida te de la espalda hay
que aprender a seguir hacia delante,
y que el perdón es algo más
serio que perdonar a alguien por
insultarte.

Gracias por haber participado en
esta campaña de la paz. Un saludo.

ERREZELOAK GAINDITUZ



I kasgela terrorismoa lantzeak, terrorismo horren deslegitimazioa bilatzeko eta biktimenganako empatia sortzeko, aurretik lan zorrotza egitea eskatzen du eta, horrez gain, hezitzaileari ausardia eskatzen dio. Dena den, behin baino gehiagotan gogoratu denez, ausardia hori zuhurtziaz beteriko ausardia izan beharko litzateke, zein esparrutan burutu behar den kontuan izanik, ordura arte emandako pausoak aztertuz, hau da, dena ebaluatuz. Hor ere aurretik lana egin behar izan da. “Norbaitek, biktimen testigantza ikasgela testuingurutik kanpo sartzea bultzatzen ari ginela uste baldin bazuen, oso oker zegoen”, esan du Mónica García.

93

Beldur hori, errezeloa, gehien bat, programa hori, ikastetxeak burutzen ari ziren beste jarduketak batzuetatik isolaturik egitearena edo terrorismoaren biktimen kontakizuna zerbait “exotikoa” izatearena eta hezkuntzako esku hartze orokorrean eta jarraituan ez sartzearena da. Baina beldur hori ere gainditu da.

Ikastetxeek era naturalean sartu dute beraien jardueran. Horrela azaldu du Leioako Mesedetako ikastetxeko irakasle taldeak: “Bat zetorren hezkuntza proiektuarekin, tutoretza ekintzarako planean egin genuenarekin, Etikako programazioarekin. Hezkuntzako planteamendu guztiak betetzen zituen”. Programa horrekin, ikastetxeak “bizi ditugun hiru indarkeria moten zirkulua itxi zezakeen: berdinen arteko indarkeria, genero indarkeria eta indarkeria terrorista”, irakasleetako batek azaldu duenez.

Eskuetan dituen datuak kontuan izanik, Ana Extramianaren iritziz ez dago programa hori testuingurutik kanpo lantzen ari den ikastetxerik. Horrela, Mónica García gogoratzen



du Hezkuntza administrazioak ez duela inoiz indarkeria politikoaren deslegitimazioa eta indarkeria horren biktimenganako enpatia era “puntualean” lantzerik proposatu, Gizarte eta Hiritartasun gaitasunaren hobekuntza sakon gisa baizik, curriculuma argituz eta antolatuz eta irakasleak prestatuz. Biktimen kontakizunarekin egin beharreko lana aukera eta behar gisa aurkeztu izan da beti, eta ez zerbaiten osagarri gisa.

Maite Garaigordobil, EHU-ko Ebaluazio Psikologikoko katedradunaren iritziz, balioetan hezteko eta indarkeria, gure kasu zehatzean indarkeria terrorista, prebenitzeko esku hartze orokorrak, oso esparru zabala behar du, Haur hezkuntzatik hasi eta goi mailetaraino. Alor horretako zenbait ekimenen ebaluazioan parte hartu duen ikerlariak esaten duenez “esku hartze orokorraren edo fokalaren alde egonik ere, estrategia metodologiko batzuk edo besteak bultzatzen badira ere, argi dago bakearen kultura, bizikidetzeta eta indarkeriaren prebentzioa sustatzen duten horrelako esku hartzeak oso beharrezkoak direla”.

94

Arazoak oztupo bilakatzen dira aurre egiteari ezetz esaten zaion unean, eta hori une oro aztertu dute programaren arduradunek. “Argi dago bakerako hezkuntzan aurrera egiteko eta programa hau aplikatzeko zailtasunak egon daitezkeela, baina guk hezkuntzako talde guztiak gonbidatu nahi ditugu, arazoaren azterketan oinarrituz jardun dezaten, eta ez aldeaz aurretik amore emanez”, gogoratu du Mónica García.

Ikerketa askok erakutsi dutenez, irakasleen parte batek, bakea lortzeko lana baztertzeko, alde batera uzteko... estrategiak izan dituzte betidanik. Hori egiteko arrazoien artean, lana egiteko orduan ikusten zituzten zailtasun pedagogikoak, norberaren gaitasunetan konfiantzarik ez izatea edo horretarako behar bezala prestatu ez zeudela uste izatea daude.

Irene del Valle eta Elisa Usateguik ikusten dutenez, irakasleak deslegitimaturik sentitzen dira gizartearen ia alde guztietatik. Eta,aldi berean, inpotentzia sentitzen dute egoera horren aurrean, ez dutelako modu positiboan aurre egiteko estrategiarik eta tresnarik. Azterlan hori bat dator, neurri handian, Susana Fernándezek egindako aurreko lanean aipatzen ziren izaera pertsonaleko zergatiekin eta norberaren eraginkortasun eza sentimenduekin.

“Sentitu genuen lehenbiziko beharretako bat irakasleei jarraibide argiak emateko marko berria zabaltzea izan zen, izan ere, irakasle horien arteko parte garrantzitsua, ordura arte, gaia lantzeko prestatu gabe eta laguntza gabe sentitzen baitzen”, azaldu du Mónica García. “Laguntza nabarmena izan zen curriculumean sartutako argitzeak zirela eta, eta, gainera, izaera preskriptiboa zuen, hau da, ikastetxe eta irakasle guztiek irizpide eta helburu berberak zituzten. Ondoren, prestakuntza jarduerak indartu genituen, Gizarterako eta Hiritarta-sunerako Gaitasunaren Mintegia sortuz.

Ordura arte egindako ikerketek emandako datuetako batek erakusten zuenez, irakasleek ez zekiten gauza askorik gai hori ikastetxeetan eta beste toki batzuetan lantzeko moduari buruz. Hori dela eta, mintegi horren bitartez, Hezkuntza sailak orientabideak, baliabide didaktikoak eta ereduak eman nahi izan zizkien ikastetxeei, beraien curriculumetan hezkuntza gaitasunak sartzen joan zitezela.

Gizarte eta Hiritartasun Gaitasun horrekin zuzenean erlazionaturiko ikasgaietako bat “Hiritartasunerako Hezkuntza” izeneko da, curriculumean duela denbora gutxi sartu den gaia, orain arte arreta berezirik jaso ez duena. Horrez gain, irakasleek ikasgai berriari buruzko hainbat jarraibide metodologiko jaso behar zituzten.

Horrez gain, azken lau urteetan bizikidetzarako planak burutzean hainbat ekimen sortu dira, estamentuek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko ekimenak, ikasleari protagonismoa ematen diotenak, curriculum aldaketei buruzkoak... Horiek guztiak ahalmen horren oinarrian daude, eta oso baliagarria da beraiei buruz gogoeta egitea.

Mintegian landutako gaitasun horretan, giza generoaren pertenezien garapena jasotzen da, ikuspegi bikoitzetik: espaziala, eskala guztietan, eta baita giza eskubide unibertsalen defentsari dagokiona ere.

Zortzi izan ziren 2010eko urritik 2011ko maiatzera bitartean aurrera eramandako lan saioak, eta aurreikusi baino askoz ere ikastetxe gehiagok erabaki zuten bertan parte hartzea. Hezkuntza berrikuntza prozesuetan esperientzia duten, bizikidetzaren proiektu landua daukaten, eta lan horretan egiten ari diren lana berrikusteko asmoa duten 57 ikastetxetako

irakasleek hartu zuten parte mintegi horretan. Mintegia hiru lurraldeetara zabaldu behar izan zen, parte hartzeko eskari guztiei erantzun ahal izateko.

Alor horretan, terrorismoaren biktimen testigantza sartzeko programa horren justifikazioa, egokitasuna eta metodologia eztabaidatu zen. “Kasu honetan gehien landu zena zalantzak argitzea, baloratzea... izan zen”, mintegiaren arduradunek azaldu digutenez. Ondorioei esker alor horretan aurrera egin ahal izateaz gain, ikastetxeek ahalmen horren garapenean duten interesa aztertu ahal izan genuen.

Badago oso une garrantzitsua, biktimak, irakasleak lanean ari diren tokietara doazenean, zuzenean, aurrez aurre, beraien testigantza emateko. “Ezagutzen ez diren pertsonak dira, eta gai horri buruz hitz egin ahal izateko espazioa eratu behar dute, denek komunean duten hori konpartituz, inor ezeroso sentitu gabe. Une horretan konturatzen dira alderdikeriaren gaineko gunea sortzen ari direla”, azaldu dute mintegiaren antolatzaileek.

96

Biktimen testigantza entzutea hunkigarria da baita irakasleentzat ere, ez ikasleentzat bakarrik. “Helduak gazteak baino asko ere hunkituagoa irteten ziren –esan du José Luis Ortiz de Guineak, Askartza Claret ikastetxeko Bizikidetzako koordinatzaileak–errealitate hori bizi eta jasan izan dutelako, eta kontzientzia handiagoa dutelako. Horregatik, ondoren biktimak klaustrora etortzeko aukera izatea eskatu dute”.

“Lan horrekin aurrera jarrai dezatela, beste pertsona askok ere gogoeta egin dezaten”. Terrorismoaren bi biktima entzun ondoren ikasle batek egindako balorazioa.

Esperientzia horren urteurrenak balorazioa egiteko aukera ematen dio Mónica Garcíari. “Hainbat klaustro eta irakasle talderen aurrean parte hartu dugu, bertako kideekin prestakuntza jarduerak jarri ditugu martxan, ikastetxe publikoetako eta kontzertatuetako ehunka gurasorekin hitz egin dugu, bakoitza bere erritmoan, zuzendaritza taldeko kideekin eta Bakerako Hezkuntza alorreko adituekin, eta 2.000 ikasle baino gehiagoren begietara, bihotzera eta kontzientziara zuzenean heldu gara”.

Kaixo

batxilergoko bigarren mailako ikasleak gara, eta askerak eman nahi dizkizugu lehengo egunean zure esperientzia kontatzera etorri izanagatik. Klasean etorriko zinela ezan zigutenean, hainbat aldiz erreplikatu genuen ezaldi hau: 'NIK ezin izango nuke barkatu moite dudan pertsona bat hil duena'. Hitz egiten omeitu zenuenean, barkamena ez zuen erraza ematen ere ez, baina gutxienez posible dela ikusi genuen. Geldera askorik egingo ez genuela pentsatu arren, guztion artean beharrezkoa genuen yogoeta bat egitea lortu genuen. Hainbatetan ikurrari dugu zenide bat galdu duten pertsonen buruz, baina zure bizipenak zuzenean entzutea... guztiz ezberdina izan zen. Behin baino gehiagotan erreplikatu zenuen zure alabei mundu hobea bat utzi nahi dizula, eta errezeptuan eta barkamenean hezi nahi dituzula, gorrotasun alba batera utziz. Argi izan ezazu gutxienez gu bizitzaren aurrean duzun jarrera horrekia kitatu gaituzula, ez bakarrik bizitza zaharo aldatzen duten gertaerei dagokienez, baizik eta egunerako bizitzara begira ere. Gure pizartean hain ahikoa den besteekiko mefidantzaren ordex, zok duzun pertsonen- ganako konfidantza asko heritu gintuen. Vifritu duzunaren ostean hain pertsonak baino asko eta irakia izatea oso aurreratu da zure partetik. Askorik asko berriz ere gorrotorik gabeko mundu bat eraiki behar dugula erakustezagatik.

Para empezar lo primero es darte las gracias de parte de las alumnas de [redacted] por tu charla porque nos ha ayudado mucho en el proceso para abrirnos a perdonar.

Como todas sabemos y creemos se han valorado mucho tus palabras porque es muy difícil hablar delante de tanta gente sobre la muerte de alguien al que nos querido pasados veinte, treinta, cuarenta o cincuenta años y por eso volver a darte las gracias.

Tus palabras nos han dado fuerza y la opción de poder crecer como persona. Porque si empezamos a contar cuanto gente antes de dar tu charla no estaba dispuesta ni a mencionar la palabra perdón no acabamos, pero tu vivencia ha cambiado el pensamiento de muchos y la opción de poder abrirnos a temas como este. A temas los cuales veíamos lejanos, nos hemos empezado a dar cuenta que la vida nos pone en situaciones difíciles de las cuales deberíamos saber salir con el perdón.

Para acabar nuestra carta te lo agradecemos de nuevo y esperamos que tengas en cuenta la ayuda que nos has proporcionado para abrir el sentimiento de perdón entre nosotros.

Un saludo,

“Kostaldera, itsasbazterrera, heltzen ari garen une honetan, pozik gaudela esan dezakegu, gure gazteek, erabat hunkiturik, biktimei beraien presentzia eta ikasgelan eskainitako testigantza eskertzen dietenean eta irakasleek, inoiz aurrera eraman duten esperientzia arrakastatsuenan izan dela aitortzen dutenean”. Mónica García, irakasle batek jarduera horietako batetik irteetan egin zuen balorazioa gogoratzen du: “gure itxaropen guztiak gainditu ditu”; eta baita ikastetxe bereko ikasle batek egindakoa ere: “zorianak, ikastolan inoiz entzun dudak hitzaldi hobereana izan da”.

Hori ez dute inoiz ahaztuko, ez da zerbait puntuala edo testuingurutik kanpokoa izango. “Marko egokia dugu eta, gainera, adierazle bikaina ere badugu: programa hori aplikatzen hasi diren ikastetxeek aurrera eramandako jarduera, eta baita programa sakon ezagutu nahi duten edo jada prestatzen ari diren ikastetxeek egindako lana. Eta baita parte hartu duten biktimen erantzun atsegina ere, genituen itxaropen guztiak gainditu dituzten testigantza hezitzaileekin”.

Baina programa honek gehiago egin du. Programarekin, 2003an Eusko Legebiltzarrak planteaturiko eskariei erantzun nahi izan zitzairen. Bost urte geroago eskariak berriztatu ziren, Biktimen legearen bitartez, eta Jaurlaritza berriak bere egin zituen. Beste helburu bat, hezkuntzak, bere neurrian, bizikidetzat hobetzen laguntzea eta gure gazteen prestakuntza hutsunerik gabe lantzea zen. Dena sufrimenduaren erakustaldi hutsa izatera ez mugatzea ere bilatu zen, bidegabekeriaren ulermena eta salaketa sakona lortzeko. Testigantzak, “benetako helburua, jendea sentimendu egokietan heztea, lortzeko tresnak” baino ez dira, Galo Bilbaok gogoratzen duenez.

Eta lortzen dute. Gazteek gogoeta egitea lortzen dute, beraien ekintzak baloratzea, gauzatu aurretik, besteengan eragin ditzaketen ondorioak ikusteko, eta gorroto sentimendua eta indarkeriaren erabilera baztertzea, gatazka bat konpontzeko baliabide gisa. Eta gazte horiek dira biktimek beraien testigantza eskaintzean erakutsitako ausardia eskertzen duten lehenak, eta horrela jarraitzea animatzen dituzte.

Zailtasunak izan ditugu programa hau aurrera eraman ahal izateko. Zailtasun horietako

batzuk, lantzen zuen arazoaren parekoak izan dira eta, gainera, ez da beti lortu horrelako gai garrantzitsuak eskatzen duen adostasun maila.

Zenbait manipulazio interesatuk oztopoak jarri zizkieten ekimenaren garapen arruntari. Programa aplikatu den Leioako Mesedeetako ikastetxeko irakasle den Edurne Bilbao honela azaldu du polemika horiek sortutako “kutsadura”: “Proiektua politizatuta agertu zen, hitz horren esanahi txarrean, proiektua, berez, hezkuntzaren, pertsonen prestakuntzaren, aurrera daramatzagun balioei buruzko lan guztiaren ikuspuntutik, oso ona zen arren”.

Baina ibilbide horren guztiaren azken emaitza oso pozgarria da, inolako zalantzarik gabe. Denbora igaro eta gero, indarkeriaren biktimak, eta ez indarkeria terroristaren biktimak soilik, ageriago egotea lortu da. Enpatiaren aldeko dinamikak sortu dira, eta dinamika horiek beste alor batzuetara ere zabaldu dira, eskola giroan edo ziberespazioan ematen den berdinen arteko erasora edo genero indarkeriara, besteak beste. Irakasleek prestakuntza eta baliabide hobeak dituzte, alor hori oraindik hobetu daitekeen arren, eta Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna eta Hiritartasunerako Hezkuntza berak garrantzi handiagoa hartu dute.

100

Errezeloak gainditu dira, eta ikastetxeetan aurrera eramandako hezkuntza jardunbideak aurreiritzi guztiak argitu ditu. Ikasgelek inolako zailtasunik gabe jaso dute biktimen testigantza zuzena. Eta ikuspegi horretatik lanean ari diren pertsona eta erakunde gehiago daude, beste esparru batzuetan Bakeolak, Baketikak edo Deustuko Unibertsitateak aurrera eramandako esperientzietan ikus daitekeenez.

Eta, batez ere, eskola gizartearen parte gisa hartzen duen eremu komuna zabaldu egin da. Eskolak, giza eskubide guztien defentsan, salbuespenik gabe, eta eskubide horien urraketen salaketan hezteko helburua du, ezein ikaslek ezin dezan izua justifikatu. Alderdikeriaen gainera dagoen espazioa dela onartu da, guztientzako tokia eskaintzen duena, eta bizikidetzaren aldeko adostasuna indartu egin da: gaur egun gutxiago dira indarkeria bidegabea justifikatzen duten pertsonak, eta gehiago dira indarkeria horren biktimekiko enpatia dutenak.

Estimado [redacted]:

Me alegró mucho tu visita a nuestro colegio. Había visto testimonios de familiares de los fallecidos de ETA en la televisión pero nunca tan reales como el suyo. Me ha hecho recapacitar sobre el tema de perdonar al asesino, aunque sigo pensando que me resultaría muy difícil.

Espero que le vaya todo bien en la vida.

Un saludo,

[redacted signature]

[redacted], 30-01-2012



EZUSTEA ETA ERRUKIA



Er-raza izan daiteke esperientzia honen ebaluazioan inpartziala ez izatea, esperientziaren parte izan bagara. Erraza izan daiteke, baita ere, gehiegizko poza erakustea, programa aurrera eramaten jardun badugu. Erraza izan daiteke orekatua ez izatea, urte luzez isilik egon behar izan eta gero, norberaren testigantza ikasgela batean adierazteko aukera duen terrorismoaren biktima, edo kontakizuna entzun ondoren hunkituta dagoen ikaslea izanez gero. Fernando Mugak ez du aipaturiko ikuspuntuetatik hartu parte esperientzian. Bere partaidetza, Leioako berritzeguneko Bizikidetzaren aholkulari gisa betetzen duen lanaren ikuspegitik bideratu du.

103

Berak esaten duen bezala, asko izan ziren proposamen horretan parte hartzera bultzatu zuten faktoreak, ikastetxeko aholkulari zen heinean. Alde batetik, indarkeria eta bidegabekeria egoeren aurrean zuen jarrera pertsonala, “aurrerantz mugitu behar da, egoerak aldatu, bakea sustatu, gauden lekutik...”. Beste alde batetik “Gizarterako eta Hiritartasunerako Gaitasunaren Mintegian eman ziguten egitura teorikoa eta proposamena, nik ongi ezagutzen dudana ikastetxe bateko hezkuntza errealitatera zein ondo egokitzen zen ikustea”.

“Erreferentziazko zentroa” zen tokian terrorismoaren biktima batek izan behar zuen partaidetzaren aurreko minutuak itxaropenez beterik zeuden. “Hura” ongi ateratzen bazen, landu beharreko hezkuntza bide egokia zabalduko zitekeen. “Gainera, eta hori asko atsegin dut nire laneko eta bizitzako edozein alderditan —jarraitzen du Fernando Mugak—, eskolan gauza batzuei buruz hobe ez hitz egitea esaten duten askoren ‘egia absolutuaren’ zati bat, behintzat, apurtu egingo zen”. Leioako berritzeguneko aholkulari horrentzat, giza



eskubideen etikan oinarrituz jarrera hartzea oso hezitzailea da eta, horrez gain, ikusi zuenez, bazuen puntu “apurtzaile” erakargarria ere.

Tentsiorik al zegoen zuk ikusitako lehen bisitan? Zerk arduratzen zintuen?

“Ez zegoen tentsio askorik. Gauza berri bat egiten denean egon ohi dena: azpiegitura materiala zaintzea, gazteak prestatzea, ikusi eta entzun behar zutena uler zezaten, gauzak berrikus-tea, gogoetak baliagarri izan zitezen... Baina guztia normaltasun profesionalaren barruan, Hezkuntza sailaren eskaintza onartzea beraien borondatez erabaki zuten oso jende profesionala delako.

Beste alde batetik, aurretik jarduera irakasleekin, familiar-kin... prestatu zitegun zegoen. Eta, amaitzeko, garrantzitsuena izan daitekeena: lehen bisitaren kasuan, biktima bikain aritu zen”

Fernando Muga, Leioako berritzeguneko aholkularia

Nola bizi izan zituzten ikasgelara sartu aurreko une haiek? Zein sentsazio izan zuten Jaurlearitzaren ekimen horretan ari diren biktimek beraien “lehen aldi” haren aurrean?

Zegoen tentsio bakarra “berria den zerbaiten edozein lehen aldi” zegoena zen, azaldu du Iñaki García. “Dena oso ongi prestatuta eta antolatuta zegoen —kontatu du—. Ez nintzen sentitzen “lurralde arrotzean” ezustean agertzen den “paraxutista”. Nire presentzia, ikasleek nire bisitaren aurretik hasitako eta nire bisitaren ondoren jarraituko zuen prestakuntza prozesuaren parte zen. Gainera, nik oso argi nuen esan beharrekoa. Azken finean, nitaz hitz egin behar nuen, sentitzen nuenaz eta bizi izan nuenaz. Tentsioa baino gehiago jakin-mina nuen: zer galdetuko zidaten, hau edo hura zer irudituko zitzaie, zeri buruzko informazio gehiago nahi izango zuten... Ikasgelara eroso, lasai, joan nintzen, beldur berezirik gabe. Eta bizi naizen gizarte honek bere errealitatea hobeto ezagutzen laguntzera nindoala jakinda.

Biktimen lasaitasuna aurretiko lan garrantzitsuan oinarritzen zen. Ermuko San Pelayo ikastetxeko zuzendariak gogoratzen duenez, klaustroaren eta familien akordioa izan arren, nolabaiteko urduritasuna zegoen giroan, norbaitek biktimen presentziaren berri zabaldu eta arazoren bat izango ote zuten beldurra.

“Ez genuen aipatu zein motatako biktimak izango ziren ikastetxera etorriko zirenak. Ikasleek beste batzuetan ere jasoak zituzten indarkeria estrukturalaren edo trafiko istripuen biktimak, eta ez zuten terrorismoaren biktimarik itxaroten... Ez genuen inolako kontrolik gazteen erreakzioaren aurrean. Kontuan izan behar dugu nerabeez ari garela, eta beraien begiraden, aurpegiaren edo jarreraren bitartez, ados ez dauden ideiekin errespetu falta edo mespretxua adierazi dezaketela.

Baina ez zen horrelako ezer gertatu. Alderantziz.

Mariló Vera, Jerónimo Veraren, 1974ko urriaren 29an Pasaian hil zuten goardia zibilararen, alaba da. Beste biktima batzuekin batera Gleencree ekimenean parte hartu duen donostiar horri, pertsona talde baten aurrean agertzeak “nolabaiteko urduritasuna” eragiten zion. Iñaki irakaslea da, baina Mariló ez dago ikasleen aurrean hitz egitera ohiturik. “Ardurata nengoen, ez nekien beraien arreta erakartzeko gai izango nintzen. Ikasleak aspertzeak beldurtzen ninduen, nik kontatu behar niena irratian eta telebistan entzundako edo prentsan irakurritako gauza bera izango zela pentsatuko ote zuten beldur nintzen. Berriro ere kontu bera. Jada ezagutzen zuten kontakizuna.”

Terrorismoaren beste biktima batek, Carmen Hernándezek ere, egun horretan urduri zegoela aitortzen du. “Alde batetik, hain jende gaztearen aurrean egon behar nuen lehen aldia zelako, nire kontakizunaren, bizitza goitik behera aldatu ninduenaren, berri emateko. Beste alde batetik, ez dakizu nola hartuko zaituzten, behar bada gauza horiek urruti samar ikusten dituztelako, eta ez zaielako gehiegi interesatzen. Ez dakizu nola egongo diren, arre-ta jarriko duten ala ez. Irakasleak ere ez dituzu ezagutzen...”

Hala ere, nerbioek ez dute inolako arazorik sortu biktimen artean ikasgelara joan direnean. Dena den, biktima batzuek, Jaime Arresek adibidez, aitortu dutenez, ikasleen aurrean

“estreinatu” aurreko gauean ez zuten lorik egin. Jaime Arresek adierazten duenez, “gaueko ordu horietan asko izan ziren nire urdaila konkistatzen saiatzen ziren sentsazioak: tentsioa, zalantza, lotsa, erantzukizuna... Hori guztia aurreko minutuetan sentitu nuen, baina ikasleek eta irakasleek, sentsazio haiek gogobetetasun eta zoriontasun bilakatzea lortu zuten.”

Kasu batzuetan, urduritasuna kontakizunaren hasieran nagusitu zen. Mariló Verak gogoratzen du bere partaidetza hasi eta denbora gutxira isiltasun handia nagusitu zela ikasgelan. “Ikasleek zein irakasleek errespetu eta arreta guztia eskaini zidaten, niri eta nire hitzei. Hasierako tentsioa desagertu egin zen. Giro lasaia eta partaidetza handia lortu genuen. Denbora azkar igaro zen, eta baita urduritasuna ere”.

106

Iñaki Garcíak ere “ikasleen errespetua eta, batez ere, nire partaidetza guztian erakutsi zuten isiltasuna eta interesa” gogoratzen ditu. Hori da, baita ere, Carmen Álvarezek, Ermuko San Pelayo ikastetxeko zuzendariak, duen lehenbiziko oroitzapena: “burura datorkidan lehenbiziko oroitzapena isiltasuna da. Gure ikasleak oso ohituta daude pertsona askok emandako hitzaldietara joaten, eta gaiak motibatzen ez dituenean mugitu egiten dira, ahopeka hizketan hasten dira, aulkiak mugitu egiten dira... Garrantzi handirik ez duten gauzak, baina zarata sortzen dutenak. Gainera, nerabe gehienekin gertatzen den bezala, urduri jartzen dira isiltasunen aurrean. Horregatik geratu nintzen hain harrituta biktimak isilik geratzen ziren uneetan, esaldia bat pixka bat gehiago luzatzen zenean... ikasleak geldik geratzen zirenean, bazirudien arnasik ere ez zutela hartzen, begirik itxi ere ez zuten egiten. Ikasleak gaien erabat murgilduta zeuden, hizlariak, bere denbora hartzeko zuen beharra ulertuko balute bezala, berarenganako errespetua erakusteko eta laguntzeko”.

Antzeko gauza gogoratzen du Jaime Arresek, “errespetuz beteriko atmosfera”, izan ere, horrek, bere hitzetan, “esperientzia traumatiko baten kontakizunaren eragina gizatiarrago egiten baitu, eta arinagoa bilakatzen du”. Biktima guztiek harridura erakusten dute gazteen jarrera dela eta, hasieran erabat adi zeudelako, baina beti ere naturaltasunez. Eta gazteen galdera zuzenak gogoratzen dituzte batez ere (“etengabe ari ziren galderak egiten!”), galdera ausartak, bat-batean botatakoak (“inolako lotsarik gabe”), eta baita, kasu batzuetan, beraien partaidetza amaitu eta gero, gazte askok eskaini zizkieten txaloak ere.

TRAS LA EXPERIENCIA QUE NOS HABEIS APORTADO,
HEMOS SEGUIDO REFLEXIONANDO SOBRE EL TEMA.

¿SE PUEDE VIVIR SIN ODIO?, VOSOTROS NOS HABEIS DEMOSTRADO
QUE SÍ. NOSOTROS: ... Y ... QUERRIAMOS
APLICARLO A NUESTRA FILOSOFÍA DE VIDA. SABEMOS QUE ES
DIFÍCIL PERO LO INTENTAREMOS ACORDANDONOS DE VUESTRO
TESTIMONIO. ESKERRIK ASKO.

SI LA DEMOCRACIA MATA
LA DEMOCRACIA MUERE,
Y DIME TÚ
¿QUÉ PREFIERES?

TANTOS AÑOS
PISANDO ESTA TIERRA
SIEMPRE TROPEZAMOS
CON LA MISMA PIEDRA

¿CÓMO NO NOS DIMOS
ANTES CUENTA,
DE QUE LA GENTE
NO ESCARMIENTA?

NO LO LOGRAREMOS EN UN DÍA
NI SIQUIERA EN UN AÑO...
LO HAREMOS TODOS JUNTOS
SIN ODIO, CON PAZ Y TRABAJO.

Biktimek badakite beraien testigantzak “aztarna uzten dutela” ikasleen artean. ETaren biktima den Carmen Hernándezen iritziz ekimenean parte hartzea erabakitzeke orduan zeharrikusi handia izan zuen hartzaileak gazteak, nerabeak, izatea. Izan ere, adin horretan “etorkizunean izango duten jarrera finkatzen lagunduko dizkien balioak barneratzen baitituzte”. Gazteei laguntza eman nahi zien “gogoeta egin zezaten, indarkeriak, gorrotoak... ezertara eramaten ez dutela ikus zezaten, kontura zitezten pertsonak errespetatzea, bestea zu beza-lakoa dela sinestea... dela bizikidetzaren egokirako bide bakarra”.

Mariló Verak azaltzen du bere erabakian pisu handia izan zuela hartzaile izango ziren gazteen adin bereko iloba izateak. “Terrorismoak ia mila hildako eta milaka zauritu eta familia apurtu baino ez ditu lortu, eta gazteek hori ulertzea nahi nuen; terrorismoa jasatearen karga daramagun familien errealitatea ezagutzea, aurrera egitea nola lortu dugun jakitea; eta, batez ere, ikustea hori ez zela bidea, eta beraiek direla terrorismoa errepika ez dadin eta herrialde honetako hiritar guztien artean bizikidetzaren demokratikoa lortzeko borrokatu behar direnak”.

108

Iñaki García bat dator berarekin: “Orain pertsona bat ikusten dute, bere alde onekin eta txarrekin, eta ez uniforme bat, albiste bat edo estatistika makabro bateko datu bat”. Bere iritziz, programa hau bere istorioa azaleratzeko aukera izan da. “Urte luzez terrorismoaren biktimak ikustezinak izan gara Euskadiko hezkuntza sisteman. Ezin zitekeen guri buruz hitz egin; gure historiak ‘ez ziren existitzen’, besterik gabe. Horregatik, jarduera honetan parte hartzeko aukera izan nuenean, ez nuen inolako zalantzarik izan, nire testigantzaren berri eman nahi nuen. Gazteekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukera paregabea zen, bitartekorik eta interferentziarik gabe, eta terrorismoaren biktima gisa dudak ikuspegitik sufrimenduari, gorrotoari, mendekuari, bizikidetzari edo barkamenari buruz ditudan esperientziei eta bizipenei buruz. Parte hartzera animatu ninduen beste gauza bat, ikasleei, terrorismoaren biktimak ez garela izaki arrotzak, urrunekoak edo prentsan edo telebistan baino agertzen ez direnak, erakustea zen. Gazteek, gu hezur haragizko pertsonak garela barneratzea nahi nuen, beraien alboan bizi dena, beren lagunen aita edo ama, dendan ogia saltzen diena... izan gaitezkeela”.

No demostrasteis ~~el~~ buen capullo,
que la violencia ~~es~~ exactamente ~~la~~ solución de nuestros
problemas.

De repente echamos la mirada atrás y buscamos un resplandor
del pasado, ocasiones en las que no supimos controlar.

Demostrasteis ~~que~~ valor que queréis de poner tirar adelante,
poniendo en que la ~~posibilidad~~ ~~de~~ su cambio, y gracias
a nosotros pudimos ver la realidad de la vida, que no sirve
de nada devolverle a alguien el mazo ~~ya~~ te ha hecho
a ti, sólo que te convertirías en ~~una~~ ~~persona~~, un ~~niño~~.

Sólo queremos daros las gracias, porque únicamente nos supieron
abrir los ojos a unos cuantos adolescentes que han sabido
aprender de nosotros

con cariño y afecto:

1. _____

2. _____

3. _____

4. _____

Eta “bizipen pertsonalen berri emateko” lan horretan bat egitea bikaina sortzen da, izan ere, gaia kanpotik lantzen duen Fernando Mugak adierazten duen bezala, “gazteengan gatazka honek ez duelako hartzen pertsona helduengan hartu duen beste denbora”. Baina, hala ere, gazteek hainbat sentimendu erakutsi dituzte, “harridura, haserrea, indarkeriak sortzen duen mina ulertzeko jarrera, are eta harridura gehiago biktimek, galeraren minetik, positiboan eraikitzeke erakutsi jarreraren aurrean, indarkeria baztertuz, edozer lortzeko tresna gisa...”

Leioako berritzeguneko Bizikidetza aholkulariak bi hitzetan laburbiltzen du: “harridura eta dolumina”. Izan ere, ikasleak harritu egiten dira, baina biktimaren mina ulertzeko eta konpartitzeko ahalegina ere egiten dute. Eta ez da iritzi isolatua. Esperientzian parte hartu duten irakasle guztiek ere ekimen honen egokitasuna eta “indarra” azpimarratu dute.

Hori guztia dela eta, gazte horiek hezkuntza munduan ematen dituzten aurrerapausoetan interesa duen ikuslearen balorazioa positiboa da beti, pitzadurarik eta “bainarik” gabe. “Uste dut asko laguntzen duela Gizarte eta Hiritar ahalmenaren*** garapenean, ikasleak, indarkeria jasan duenaren eta ‘mina-gorrotoa-indarkeriazko erantzuna’ bukletik irteten jakin duenaren aurrez-aurre jartzen dituelako. Horrek aukera ematen die ikasleei biktimaren mina sentitzeko eta bukletik horretan aipatzen direnak ez diren beste alternatiba batzuk aztertzeko, eta hori oso lagungarria izan daiteke bakea eraikitzeke”, amaitu du Fernando Mugak.

ETORKIZUNA ZABALDUZ



Errespetuan eta giza eskubideekin bat egitean oinarrituriko hezkuntzaren lurralde komuna gero eta handiagoa dela erakusten duen adibide garrantzitsuena, hezkuntzako hogeita hiru agente inguruk 2011ko abenduaren 30ean Billoko Carlton Hotelean jende aurrean sinatu zuten “Bizikidetzarako Hezkuntzaren aldeko Konpromisoan” ikus daiteke. 2012ko maiatzaren 4an beste 4 erakundek bat egin zuten konpromisoarekin.

Euskadiko Eskola Kontseiluak, Euskadiko hiru unibertsitateek, irakaskuntza kontzertatuko Kristau Eskolak, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteak, AICE-k, Eusko Ikastola Batza eta Ikasgiltza ikastetxeetako titularren elkarteak, EHIGE-k, UFEPA eta Bidelagun erakundeetan elkarturiko familiek, CC.OO. eta UGT sindikatu etako irakaskuntzako federazioek, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak biltzen dituen Sarean elkarteak, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendaritzekin gauza bera egiten duen BIHE elkarteak, jende aurrean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, hiritar libreak, konszienteak eta kritikoak prestatzeko bost konpromiso biltzen dituen akordioa sinatu zuten.

Eta beste gauza berri bat Bakearen eta Giza Eskubideen hezkuntzarekin erlazionaturiko Euskadiko erakunde gehienek ere akordio horrekin bat egin zutela da: Bakeaz, Baketik, Bakeola, Fundación Fernando Buesa, Gernika Gogoratzuz, Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Unesco Etxea. Guztiek ere ardura, diagnostiko eta helburu berbera erakutsi zuten.

Erakunde eta elkarte horien guztien iritziz, Euskadiko gizarteak garai berri eta garran-

tzitsua bizi du, baina horrek ez du esan nahi balioetan oinarrituriko hezkuntza baztertzeko garaia denik. Alderantziz. “Carltoneko Konpromisoaren” sinatzaileen ustez, hezkuntzako lana indartu egin behar da, “gure ikasleen prestakuntza hobetzen jarraitzeko, bakean eta askatasunean oinarritutako garai osoa, integratzailea eta iraunkorra bermatuko duten etorkizuneko protagonista eta aktore bilaka daitezen”.

Lortutako akordio horren bitartez, Euskadiko hezkuntza erkidegoko erakunde eta agente nagusiek, etorkizuna osatuko duten belaunaldiak askatasunean hezteko lanari “jarraipena ematea” erabaki dute, Giza Eskubideen erabateko errespetuan oinarrituta. Izan ere, hezkuntza, haur hezkuntzatik unibertsitatera, beraien iritziz, balioetan oinarrituriko hezkuntza da, hiritar libreak, konszienteak eta kritikoak sortzeko prestakuntza integralerako tresna, batez ere.

Guztien iritziz, ekintza pedagogiko hori, gaur egunari eta iraganari buruzko ezagutza egiazkoan, sakonean eta integralean oinarriturik egin behar da, izan ere, beraien akordioan azaltzen duten bezala, “oroimenik gabe ez dago etorkizunik, ez dago askatasunik, ez dago justiziarik”.

112

Sinatzaileen iritziz, Euskadiko gizarteak, askatasunean eta demokrazian, justizian eta egian, oinarrituriko etorkizuna sortzeko argia eta ilusioa eskatzen die hezkuntza alorreko erakundeei, gatazkak eta ezadostasunak indarkeriarik gabe, elkarrizketaren bitartez, konponduko diren etorkizuna.

Hezkuntzako erakunde eta agente horiek guztiek badakite oso anitzak direla, baina bat eginda sentitzen dira, herrialdearen ikuspegi partekatuaren bila, demokraziarekin eta hezkuntzarekin konpromisoa dute, hezkuntzarekin, batez ere: “badakigu hezkuntzan adostasuna eta akordioa, landu eta kontserbatu behar ditugun balioak direla beti”.

Carlton-eko konpromisoa

Erakunde bakoitzak dugun autonomiatik eta lantzen ditugun hezkuntza-etapetako helburuak eta ezaugarriak kontuan harturik, etorkizuneko belaunaldien prestakuntza adoretzeko ohorea

eta abantaila, baina era berean erronka eta erantzukizuna, ditugu. Horregatik adosten dugu:

Giza Eskubideen eta pertsonaren duintasunaren begirunean oinarritutako hezkuntzaren aldeko ahaleginak berretzea, edozein xede edo egokieraren gainetik.

Iraganean, orainaldian edo etorkizunean Giza Eskubideen urraketaren edozein justifikazioaren aurrean jarrera kritikoa indartzea.

Eskubide horien haustearen ondoriozko biktimekiko elkartasuna eta laguntza erakutsiko dituzten jarduerak sustatzea.

Benetako bizikidetza demokratikoa sostengatuko duten balioak eta jarrerak indartzea, hezkuntza esparrutik hasita gizarte osoraino helduz.

Gure hezkuntza komunitatean eta gure gizartean kultura demokratikoa finkatuko duten jarduera adostuak eragitea.

Konpromiso hori ordura arte inoiz lortu gabea zen, herrialde honetako hezkuntzako agente gehienek sinatua, askatasun, justizia eta berdintasun, bake eta pertsonenganako errespetu balioetan oinarrituriko hezkuntza gaur egungo eta etorkizuneko jarduketa ororen ardatz izan dadin. Eta hasi da bere ondorioak sortzen. Topaketetan, egiten ari dena aztertu eta eman beharreko pausoei buruzko gogoeta egiten da.

Asko dira bakerako hezkuntza, indarkeriari eta bidegabekeriari aurre egingo diona, biktima guztienganako elkartasuna adieraziko duena, ez dela jada inoiz ahaztuko edo ez dela zerbait puntuala edo mekanikoa izango pentsatzera eramaten gaituzten adierazleak. Hurbil zegoen indarkeriaren arazoak fokatzen uzten ez zuen eta urrunekoak soilik erakus-

ten zituen lente horrek ikuspegi gizakiarragoa ematen digu orain, gure ikuspegia distantzia guztietara egokitu ahal izateko. Hurbilen ditugun biktimak ikusteak eta beraiekin egoteak ez du urrunekoekin gauza bera egitea zailduko. Alderantziz.

Orain, Euskadik bere arauetan horretarako toki egokia du, eta, horrez gain, esperientzia bikaina ere badu: beraien bizikidetzak planak dituzten eta Bakerako eta Bizikidetzak Demokratikorako Hezkuntza Planaren irizpideak aplikatzen hasi diren ikastetxeetan aurrera eramandako jarduerak.

Eta, programan parte hartu duten indarkeria terroristaren biktimen erantzun eskuzabala ere badute, aurretiko itxaropen guztiak gainditu dituzten eduki hezitzailez beteriko testigantzez josia. Biktimen kontakizunak, programan parte hartu duten ikastetxe batzuetako irakasleek adierazi dutenez, belaunaldi bakoitzari helarazi beharreko altxor handia dira.

Asko dira esperientzia honetan elkartu diren borondateak, eta horrek, etorkizunean ere bide berean aurrera egitera gonbidatzen gaitu. Ekimenak bere alde onak erakutsi ditu, beharra eta egokitasuna mahai gainean jarri ditu, eta denek irabaziko duten programa dela erakutsi du: ikasleek eta irakasleek, familiek eta erakundeek, biktima guztiek, gizarte osoak, pertsona guztiek.

BIBLIOGRAFIA



· *La presencia de los víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco.*
Xabier Etxeberria, Galo Bilbao, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2005.

· *La educación para la paz ante la violencia de ETA.*
Xabier Etxeberria, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2003.

· *Educar para la paz en tiempos difíciles.*
Xesus R. Jares, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2004.

· *Educar para la verdad y la esperanza: en tiempos de globalización, guerra preventiva y terrorismo.*
Xesus Rodríguez Jares, Popular, 2005.

· *Respuestas educadoras frente a la intolerancia.*
Ricardo Arana, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2005.

· *Sobre la tolerancia y la neutralidad del educador ante la violencia terrorista.*
Xabier Etxeberria, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2005.

· *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco.*
Galo Bilbao, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2007.



· *La participación social y política de las víctimas del terrorismo.*

Xabier Etxeberria, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2007.

· *Historias que nos marcan. Las víctimas del terrorismo en la educación para la paz.*

Ricardo Arana, susana harillo, Jesús Prieto, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2006.

· *Marka uzten diguten istorioak. Terrorismoaren biktimak bake hezkuntzan. Bigarren hezkuntzan erabiltzeko gida didaktikoa.*

Susana Harillo, Jesús Prieto, Josu Ugarte (koord.), Bakeaz, 2010.

· *Sobre la tortura: perspectiva ética y propuesta pedagógica.*

Xabier Etxeberria, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2006.

· *El otro en la construcción de una cultura de paz.*

Pedro Sáez, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2004.

· *Actitudes y comportamientos hacia la educación para la paz en Euskadi.*

Susana Fernández Sola, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2004.

· *La educación para la convivencia como proceso de alfabetización en conflictos. Propuestas de formación.*

Xesús R. Jares, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 2004.

· *Razones contra la violencia. Por la convivencia democrática en el país.*

Varios autores, Bakeaz. Centro documentación estudios para la paz, 1998.

· *Con las víctimas del terrorismo.*

Javier Villanueva, Antonio Dupla, Gakoa, 2010.

· *Competencia social y ciudadana.*

Jose Antonio Marina, Rafael Bernabeu, Alianza Editorial, 2007.

· *Diccionario de los sentimientos.*

Marisa López Penas, Jose Antonio Marina, Anagrama, 2001.

· *Cronicas de la ultramodernidad.*

Jose Antonio Marina, Anagrama, 2000.

· *Anatomia del miedo.*

Jose Antonio Marina, Anagrama, 2009.

· *El valor de educar.*

Fernando Savater, Ariel, 2008.

· *Ante el dolor de los demas.*

Susan Sontag, Debolsillo, 2010.

· *Bizikidetza eta bakearen aldeko heziketa EAEko ikastetxeetan.*

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila / Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila / Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004

· *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan.*

Arartekoaren Txosten Berezia, 2006

· *Adingabekoei balioak transmititzea.*

Arartekoaren Txosten Berezia, 2009.

· *Euskadin terrorismoaren biktimei erankundeek emandako arreta.*

Arartekoaren Txosten Berezia, 2009.

· *La escuela sola. Voces del profesorado.*

Elisa Usategui Basozabal, Ana Irene del Valle Loroño. Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa, 2008.

· *La escuela cuestionada. Voces del alumnado y familias.*

Elisa Usategui Basozabal, Ana Irene del Valle Loroño. Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa, 2009.

· *Biografía del estado moderno.*

R.H.S. Crossman, Fondo de Cultura Económica, 1977.

· *Educación para la emancipación.*

Theodor W. Adorno, Ediciones Morata, 1998.

· *Bake Hitzak* aldizkaritik aukeratutako artikuluak.



“Liburu hau eta bertan azaltzen diren jarduerak Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko elkarrizketaren emaitzak dira, baina gure geletako irakasleei esker soilik burutu ahal izan da. Beraiek izan dira euskal curriculumera biktimen begirada ezinbestekoari sarbidea eman dietenak

Duela denbora gutxira arte, terrorismoaren biktimek ezin izan dute beraien biktima izaeraren berri eman, ezin izan dute azaldu horrek izan dituen ondorioak, eta gazteak isiltasun latz horren barruan hazi eta hezi dira, inguruan zegoen sufrimenduaren kontakizunetik aparte, inolako azalpenik jaso gabe.”

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN